

# *Euskadiko Udal Kirolaren Behatokia 2020*

---

*KAIT. Kirol Arlorako Iritzi Taldea*

*Euskadi, auzolana*



**2020**

KIROL ARLORAKO IRITZI TALDEA  
ASOCIACIÓN VASCA DE  
GESTORES DEL DEPORTE **kait.**

Azterlanaren titularra: Eusko Jaurlaritza

Egilea: © KAIT. Kirol Arlorako Iritzi Taldea

Ikertzailea: Oskar Martín Caballero [oskarmartin1973@gmail.com](mailto:oskarmartin1973@gmail.com)

Editorea:

Lege-gordailua:

Diseinu grafikoa eta maketazioa:

Inprimatzailea:

## Edukia

<b>EUSKO JAURLARITZAKO JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARIAREN HITZAURREA</b> .....	6
<b>KAIT-EKO LEHENDAKARIAREN HITZAURREA</b> .....	8
<b>SARRERA</b> .....	10
<b>ESKER ONAK</b> .....	11
<b>1. EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018</b> .....	12
<b>1.1. Udal Kirolaren Behatokia 2018 azterlanaren justifikazioa</b> .....	12
<b>2. IKERKUNTZA - EAE-KO UDALERRIEK KIROL-ARLOAN DUTEN JARDUNBIDEA</b> .....	14
<b>2.1. ARAZOAREN PLANTEAMENDUA ETA IKERKUNTZAREN HELBURUAK</b> .....	14
<b>2.1.1. Arazoaren planteamendua</b> .....	14
<b>2.1.2. Ikerkuntzaren helburuak</b> .....	14
<b>2.2. METODOLOGIA</b> .....	15
<b>2.2.1. Ikerkuntzaren diseinua</b> .....	15
<b>2.2.2. Tresna</b> .....	16
<b>2.2.3. Parte-hartzaileak</b> .....	16
<b>2.2.4. Datuak biltzeko prozedura</b> .....	20
<b>2.2.5. Datuen tratamendua</b> .....	20
<b>2.2.6. Emaitzen azterketa deskriptiboa eta estatistikoa</b> .....	20
<b>2.2.7. Adierazleak</b> .....	21
<b>2.3. EMAITZAK</b> .....	22
<b>2.3.1. 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerriak</b> .....	22
<b>2.3.1.1. Aldagai ekonomikoari buruzko datuak, 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrietan</b> .....	23
<b>2.3.1.2. Aldagai sozialari buruzko datuak, 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrietan</b> .....	25
<b>2.3.1.3. Langileen aldagaiari buruzko datuak, 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrietan</b> .....	31
<b>2.3.1.4. Aldagai teknikoari buruzko datuak, 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrietan</b> .....	33
<b>2.3.1.5. Arduradun teknikoen iritziari buruzko datuak, 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrietan</b> .....	35
<b>2.3.2. 5.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerriak</b> .....	36
<b>2.3.2.1. Aldagai ekonomikoari buruzko datuak 5.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerrietan</b> .....	37

2.3.2.2. Aldagai sozialari buruzko datuak, 5.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerrietan .....	39
2.3.2.3. Langileen aldagaiari buruzko datuak, 5.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerrietan .....	46
2.3.2.4. Aldagai teknikoari buruzko datuak, 5.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerrietan .....	48
2.3.2.5. Arduradun teknikoen iritziari buruzko datuak, 5.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerrietan.....	50
2.3.3. 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerriak .....	51
2.3.3.1. Aldagai ekonomikoari buruzko datuak, 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrietan.....	52
2.3.3.2. Aldagai sozialari buruzko datuak, 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrietan .....	54
2.3.3.3. Langileen aldagaiari buruzko datuak, 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrietan .....	60
2.3.3.4. Aldagai teknikoari buruzko datuak, 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrietan .....	62
2.3.3.5. Arduradun teknikoen iritziari buruzko datuak, 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrietan.....	64
2.3.4. 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerriak .....	65
2.3.4.1. Aldagai ekonomikoari buruzko datuak, 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietan.....	66
2.3.4.2. Aldagai sozialari buruzko datuak, 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietan .....	68
2.3.4.3. Langileen aldagaiari buruzko datuak, 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietan.....	74
2.3.4.4. Aldagai teknikoari buruzko datuak, 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietan .....	76
2.3.4.5. Arduradun teknikoen iritziari buruzko datuak, 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietan.....	78
2.3.6. 100.001 biztanletik gorako udalerriak .....	79
2.3.6.1. Aldagai ekonomikoari buruzko datuak, 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrietan .....	80
2.3.6.2. Aldagai sozialari buruzko datuak, 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrietan .....	82
2.3.6.3. Langileen aldagaiari buruzko datuak, 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrietan .....	88
2.3.6.4. Aldagai teknikoari buruzko datuak 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrietan .....	90
2.3.6.5. Arduradun teknikoen iritziari buruzko datuak, 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrietan .....	92

<b>2.4 EZTABAIDA</b> .....	94
2.4.1. Aldagai ekonomikoaren konparazioa, udalerriaren kategoriaren arabera	95
2.4.2. Aldagai sozialaren konparazioa, udalerriaren kategoriaren arabera .....	98
2.4.3. Langileen aldagaiaren konparazioa, udalerriaren kategoriaren arabera..	104
2.4.4. Aldagai teknikoaren konparazioa, udalerriaren kategoriaren arabera ....	108
2.4.5. EAEko udalerrietako arduradun teknikoen iritziaren konparazioa, udalerriaren kategoriaren arabera.....	110
2.4.6. Udalerriaren profila: 1 eta 5.000 biztanle bitartean.....	113
2.4.7. Udalerriaren profila: 5.001 eta 20.000 biztanle bitartean.....	114
2.4.8. Udalerriaren profila: 20.001 eta 50.000 biztanle bitartean.....	116
2.4.9. Udalerriaren profila: 50.001 eta 100.000 biztanle bitartean.....	118
2.4.10. Udalerriaren profila: 100.001 biztanle baino gehiago.....	120
2.4.11. Udalerri tipoaren profila. Euskadiko Udal Kirolaren Behatokia 2018....	122
2.4.11.1 Udalerri tipoaren aldagai ekonomikoa. Euskadiko Udal Kirolaren Behatokia 2018 .....	122
2.4.11.2. Udalerri tipoaren aldagai soziala. Euskadiko Udal Kirolaren Behatokia 2018.....	124
2.4.11.3. Udalerri tipoaren langileen aldagaia. Euskadiko Udal Kirolaren Behatokia 2018 .....	134
2.4.11.4. Udalerri tipoen aldagai teknikoa. Euskadiko Udal Kirolaren Behatokia 2018.....	136
2.4.11.5. Udalerri tipoetako kirol-arloko teknikari arduradunen iritziaren aldagaia. Euskadiko Udal Kirolaren Behatokia 2018 .....	139
<b>3. ONDORIOAK</b> .....	141
<b>4. HOBEKUNTZA-ARLOAK</b> .....	145
<b>ERREFERENTZIAK</b> .....	151
<b>ERANSKINAK</b> .....	154
I. ERANSKINA. GALDETEGIA.....	154
II. ERANSKINA. TAULAK.....	169
III. ERANSKINA. GRAFIKOAK .....	171

## **EUSKO JAURLARITZAKO JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARIAREN HITZAURREA**

Zein da kirol-politiken egungo errealitatea gure udalerrietan? Horixe da udal kirolaren 2018ko argazkia eskaini nahi digun lan honen norainokoaren azpian dagoen galdera. Azterketa hau, nolana ere, 2015ean egin zenaren jarraipena da.

KAIT Asociación Vasca de Gestores del Deporte – Kirol Arlorako Iritzi Taldeak 2015eko azterketa bideratu eta bultzatu zuenean, Euskadin jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruan jarraitutako udal-politiken benetako norainokoari eta dimentsioari buruzko gogoeta egiteko beharra planteatu zuen, eta agerian geratu zen nekez baloratu daitekeela zerbait aldeaz aurretik ezagutza nahikoa – bere dimentsioan ahalik eta errealistena eta, nolana ere, bere asmoetan posibilista – izan gabe.

Kantak dioenez, “ibiltzean egiten da bidea”, eta bigarren azterketa hau eskuetan dugula, 2015eko lehen azterketak deskribatu zuen errealitatearen eta 2018ko datuak biltzen dituen argitalpen honetan islatzen den errealitatearen artean egindako bidea baloratzen has gaitezke.

Eskerrak eman nahi dizkiegu ikerketa-taldeari beren datuak eman dizkioten 29 udalerriei, parte hartu izanagatik. 29 udalerririk horiek Euskadiko biztanleriaren % 51,65 biltzen dute, eta, beraz, lagina nahikoa da Euskadiko udal-arloko jarduera fisikoaren eta kirolaren errealitate orokorraren azterketa adierazgarri bat izateko. Hala ere, Araban biztanle gehien dituzten udalerririk falta sumatzen da, eta, oso bereziki, Gasteiz hiriburuarena.

Eskerrak eman nahi dizkiogu, halaber, azterketaren egilea den Oskar Martín Caballerori, Euskadiko Udal Kirolaren Behatokia - 2018 osatu eta eskaintzeagatik. Azterketaren amaieran hobekuntza-arloen inguruan egiten diren proposamenak eta oharrak abiapuntu interesgarriak izan litezke gure udalerrietako kirol-politiken etorkizunari buruzko eztabaida bultzatzeko.

Auzia, beraz, KAIT Asociación Vasca de Gestores del Deporte – Kirol Arlorako Iritzi Taldera itzuli da, baita kezka bera duten eta helburu bera (hots, jarduera fisikoa eta kirola ingurune hurbilean egiteko ohitura gero eta jende gehiagok bihurtzea bizitza osasungarrirako aukera) duten guztiengana ere.

Jon Redondo Lertxundi

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza

Kultura, Hizkuntza Politika eta Kirol Saila

¿Cuál es la realidad actual de las políticas del deporte en nuestras corporaciones municipales? Esa es la pregunta que subyace en el alcance de este trabajo que pretende ofrecernos una fotografía del deporte municipal en 2018. Un estudio que da continuidad al que ya se llevó a cabo en 2015.

Cuando el grupo KAIT, Asociación Vasca de Gestores del Deporte – Kirol Arlorako Iritzi Taldea, propició e impulsó el estudio de 2015 se planteaba la necesidad de reflexionar sobre la dimensión y el alcance real de las políticas municipales en el ámbito de la actividad física y el deporte en Euskadi y quedó patente que difícilmente se puede valorar algo sin un conocimiento previo suficiente, lo más realista posible en su dimensión y, en cualquier caso, posibilista en sus pretensiones.

Como dice el cantar, se hace camino al andar y con este segundo estudio en nuestro poder ya podemos empezar a valorar el camino recorrido entre la realidad que describió el primer estudio de 2015 y el que se refleja ahora con esta publicación que recopila los datos de 2018.

Agradecemos la participación de los 29 municipios que han proporcionado sus datos al equipo investigador. Entre los 29 municipios representan el 51,65 % de la población de Euskadi, una muestra más que suficiente para tener un estudio representativo de la realidad global de la actividad física y el deporte municipal en Euskadi, aunque se eche en falta una mayor participación de los municipios más poblados de Araba, muy en especial de su capital Vitoria-Gasteiz.

Gracias a Oskar Martín Caballero, autor del estudio, por completar y ofrecernos este Observatorio del Deporte Municipal en Euskadi - 2018 que concluye con una serie de observaciones y propuestas de áreas de mejora que bien pudieran constituir un interesante punto de arranque para propiciar el debate sobre el futuro de las políticas de deporte en nuestros municipios.

La pelota vuelve, por tanto, al tejado de KAIT, Asociación Vasca de Gestores del Deporte – Kirol Arlorako Iritzi Taldea y todos y todas las que sienten la misma preocupación y comparten el mismo objetivo: que cada vez más gente haga de la práctica habitual de la actividad física y el deporte en su entorno más cercano, una opción de vida saludable.

Jon Redondo Lertxundi

Director Actividad Física y Deporte

Departamento de Cultura, Política Lingüística y Deporte

## KAIT-EKO LEHENDAKARIAREN HITZAURREA

Udal-kirola, arlo horretan lan egiten zuten pertsona talde baten kezka izan zen Kaiten jatorria. Beren lana hobeto egin nahi zuten eta mahai baten inguruan elkartzen hasi ziren, hilabete batzuk geroago, 1989an, Kaiten jaiotza ofizialdu genuen, kirolaren arloko iritzi-taldea. Hogeita hamar urte baino gehiagoko ibilbidearen ondoren, eboluzionatu egin dugu, eta, gaur egun, ez kirol-arlo guztietako ehun bat pertsonak osatzen dugu elkarte, askotariko ikuspegietatik.

Gaur aurkeztuko dizuegu "Udal kirolaren behatokia" KAITEk egindako lanaren bigarren edizioa da. Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari esker izan da posible eta baita informazioa eman diguten udal askoren laguntzari. Azterlan honen bidez, udal-kirolaren argazki bat eskaini nahi dugu, eta, horrela, 2015ean egindakoarekin alderatu ondorio egokiak atera ahal izateko, garatutako politikei eta horien eraginkortasunari buruz.

Gure lana hobetzen jarraitu nahi dugu, eta azterlan honek oso informazio interesgarria eman diezaguke horretarako.

Eskerrak eman behar dizkiogu Oskar Martini egindako lanagatik eta egindako ahaleginagatik. Horrelako azterlan bat egiteak konplexutasun handia du, tartean dauden eragileen kopurua dela-eta, besteak beste. Zorionak Oskar.

Agur bero bat.

Iñaki Ugarteburu

Kait-eko lehendakaria



El deporte municipal, la inquietud de un grupo de personas que trabajaban en ese ámbito, que deseaban realizar mejor su trabajo y comenzaron a juntarse en torno a una mesa fue el origen de KAIT. Meses más tarde en 1989 oficializamos el nacimiento de KAIT, grupo de opinión para el área del deporte. Tras más de treinta años de trayectoria hemos evolucionado y hoy en día, formamos la asociación un centenar de personas preocupadas y ocupadas por el deporte desde las más variadas perspectivas.

Hoy os presentamos la segunda edición de un trabajo realizado por KAIT, “Observatorio del deporte municipal”, realizado gracias a la Dirección de Actividad Física y Deporte del Gobierno Vasco y de un buen número de ayuntamientos que nos han proporcionado información referente a su gestión. Con este estudio pretendemos realizar una fotografía del deporte municipal, de este modo compararla con la que realizamos en el año 2015 y extraer las conclusiones oportunas, sobre las políticas desarrolladas y su efectividad.

Seguimos buscando realizar mejor nuestro trabajo y este estudio nos puede aportar información muy interesante para ello.

Debemos de agradecer a Oskar Martín el trabajo y el esfuerzo llevado a cabo, la realización de un estudio de este tipo tiene una gran complejidad, entre otras razones por la cantidad de agentes implicados. Felicidades Oskar.

Un afectuoso saludo.

Iñaki Ugarteburu

Presidente de KAIT

## SARRERA

Ikertzea ez da soilik planteatzen ditugun galderei erantzutea, beste galdera batzuk aurkitzea ere bada.

Beste kirol-ikuskerara batzuetan ez bezala (non adinari, kirol-errendimenduari, kirol-modalitate edo -jarduera bat edo beste gogoko izateari lotutako faktoreek adin-tarte bateko edo besteko herritarren sarbidea mugatzen duten), udal-kirola, herritarrengandik benetan hurbil dagoen erakundea da, eta, *a priori*, herritarren sektore guztietara zabaltzen da eta kirol mota guztiekiko lankidetzarako prest dago. Toki-erakundeak ez daudenez soil-soilik lehiaketen mende, horrek aukera ematen du pertsona guztiek –jaioberrietatik hasi eta adinekoetaraino– aurki dezaten kirol-jarduera apropos bat.

Azterlanaren xedea da aurreko paragrafoko esakune hori EAEko tokiko kirol-erakundeetan nola betetzen den behatzea. Horretarako, egiaztatu egiten du udal-agertokiak herritar guztien nahiak betetzen dituen. Hausnartu egiten du haren egoerari buruz eta, hala badagokio, iritzia ematen du hobetzeko eremuei buruz.

Azken batean, azterlanaren xedea da KAIT - Kirol Arloko Iritzi Taldearen mantretako bati jarraipena ematea, hau da, euskal gizartearekin elkarlanean aritzea, eta berriro ere zerbitzu-bokazioa duela adieraztea.

Oraingo honetan, ekimen horri jarraipena ematearen aldeko apustua egin du KAITek. Ekimen horri 2013an eman zitzaion hasiera Euskadin, Udal Kirolaren Behatokiaren lehenengo txostenarekin. Halatan, Euskadin kirola hobetzeko etengabe eztabaidatzeko grinari eutsi nahi zaio. Izan ere, horixe da KAIT *“kirol kudeatzaileen talde bat, ... iritzia eman, besteengandik ikasi eta bere esperientzien berri emateko biltzen den taldea”* Solar (2016).

Azterlan hau egitean KAITeko lehendakari zen Iñaki Ugarteburuk honako hau zioen (2016): *“Merezi duguna daukagu. Gure kirolak zer garen islatzen du, bere gabezia eta bertute guztiekin. Gaur egun, euskal kirolak, zorionez, hobetzeko marjina handia duela esan dezakegu. Gure ustez, udal-kirolak ere badu hobetzeko tarte hori, eta argitalpen honetan bildutako datuek toki-erakundeen kirolaren ikuspegi orokorra emango dute.*

Behaketaren antolamenduak ahalbidetu egiten du udal bakoitzak (herritarren kopuruaren arabera) dagokion profileria jo dezan zuzenean.

Konfiantza osoa dugu tresna hau baliagarria izango dela lurralde historikoetako udalerrietako errealitate bakoitzak auto-konparazioa egin dezan, hausnarketa piztu dezan, eta gure toki-erakundeen kirol-zerbitzuen kalitatea eta kudeaketa hobetzeko ezar daitezkeen neurriak zehatz daitezten.

Etorkizunerako erronka berriak sortzea. Ziur KAITeko kideek erronka horiez hitz egiteko aukera izango dutela.

## ESKER ONAK

Badakigu ez dela erraza izaten Behatoki honek egindako galdetegi antzekoei erantzutea, denbora eta ahalegina eskatzen baitute. Hortaz, eskertzekoa da udal-kirolaren errealitateari buruzko azterlana zabaltzeko aktiboki parte hartu eta lagundu duten udal-kiroleko profesionalen lankidetzak eskuzabala.

Hori dela eta, KAITek eta ikerketa-taldeak lerro hauek baliatu nahi dituzte Euskadiko Udal Kirolaren Behatokiaren 2. azterlana egiteko datuak biltzen parte hartu duten pertsona guztien ekarpen ordainezina eskertzeko.

Horrez gain, kirol-jarduera garatzeko azterlanean parte hartzera gonbidatu nahi dituzte.

Mila esker parte hartu duzuen udalerrioi.

### UDAL-KIROLAREN BEHATOKIA 2018 AZTERLANEAN PARTE HARTU DUTEN UDALERRIAK

<i>Probintzia</i>	Eskualdea	1etik 5.000ra	5.001etik 20.000ra	20.001etik 50.000ra	50.001etik 100.000ra	100.001 baino gehiago
<i>Araba</i>	Agurain	Agurain				
<i>Bizkaia</i>	Arratia	Igorre	Amorebieta-Etxano			
	Bilbo					Bilbo
	Busturialdea	Mundaka				
	Durangaldea	Berriz	Ermua	Durango		
	Ezkerraldea			Santurtzi		Barakaldo
	Enkarterri	Sopuerta				
	Lea-Artibai	Markina-Xemein				
	Mungialdea	Bakio	Mungia			
	Nerbioi-Ibaizabal		Arrigorriaga	Basauri		
	Txorierrri		Derio			
	Uribe Kosta		Sopela		Getxo	
<i>Gipuzkoa</i>	Debagoiena	Eskoriatza	Bergara			
	Bidasoa Behea		Hondarribia		Irun	
	Debarrena	Soraluze	Elgoibar			
	Donostialdea			Errenteria		Donostia
	Tolosaldea		Tolosa			
Urola Kosta			Zarautz			

## 1. EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018

### 1.1. Udal Kirolaren Behatokia 2018 azterlanaren justifikazioa

KAITek ahalegin handia egiten du Euskadin dugun udal-kirolaren eredu etengabe berrikusteko. Oraingo honetan, KAITek berak 2015ean aurkeztutako ikerkuntza-eredua da berrikusketa-lanaren abiapuntu. Bilakaeraren konparazioa egiten du eta ikuspuntu berriak txertatzen ditu, ideiak trukatu eta Euskadiko udal-kirolaren kudeatzaileen zeregina den bilakabidea aztertzeke. Horrela, foroaren definizioko maximoa betetzen da, alegia, udal-kirolean interesa duten pertsonen topagune izatea, gure udalerriek kirol-arloan gauzatzen duten kudeaketari buruzko informazioa bildu eta aztertzeke.

Justifikazioa, berez, Behatokiaren helburuak aztertzeari eustea da. Honako hauek dira helburuok:

1. Udal-kirolaren profil orokorra erakustea: ezaugarriak eta bilakaera.
2. EAeko udalerrietan kirola kudeatzeko udal-politiken alderdi orokorrak eta zehatzak aztertzea.
3. Udal-kirolaren kudeaketaren joerak aztertzea, bereziki honako hauei dagozkienak:
  - Aurrekontuak
  - Antolamendu-egiturak
  - Kudeaketa-ereduak
  - Kalitate-sistemak
4. Udalerrietako aurrekontuen aldagai ekonomikoen adierazle nagusiak behatzea.
5. Euskadin udal-kirolak duen autofinantzaketa-maila ezagutzea.
6. Udalen kirol-politiken aldagai sozialak aztertzea, eskaerari dagokionez: abonatuak, ikastarogileen, federatuak, premia bereziak dituzten kirolarien eta udal-instalazioak erabiltzen dituzten klubak kopurua.
7. Udalek egiten duten eskola-kirolaren, guztiontzako kirolaren eta kirol federatuaren eskaintza aztertzea. EAeko udalerriek dituzten kirol-instalazio eta -espazioen tipologiari buruzko ikuspegi orokorra izatea.
8. Udal-kirolaren politikak egiaztatzea giza baliabideen arloan.
9. EAeko udalerrietako kirol-zerbitzuek gehien erabiltzen dituzten kudeaketa-ereduak identifikatzea, eta aztertzea ea alderik dagoen udalerrietako biztanle kopuruen arabera.
10. Udal-kirolaren ezaugarrien eta bilakaeraren ikuspegi orokorra ematea.
11. Teknikarien prestakuntza- eta birziklatze-beharrak aztertzea.
12. Kirola kudeatzeko udal-politikei buruzko informazioa bildu eta aztertzeke bide izatea.

13. Azken batean, berrikuspena erraztea eta, ahal dela, Euskadiko udal-kudeaketaren eredia hobetzea, azterlanen ondorioetatik abiatuta.

Helburu horiek guztiak lortzeko, ezinbestekoa da adierazleak ondo zehaztuta edukitzea, eta, horretarako, beharrezkoa da udal-kirolaren gaineko ikerketa-lana egitea; eta horrexetan dihardu KAITk. Hala, lagundu egiten du udal-kirolaren kudeaketan erabiltzen diren parametroak ezagutzen eta kudeaketa hori hobetzeko estrategiak egiten, alde batetik. Eta, bestetik, udal-kiroleko teknikari, irakasle eta kudeatzaileen arteko eztabaida berpizten ere laguntzen du.

## **2. IKERKUNTZA - EAE-KO UDALERRIEK KIROL-ARLOAN DUTEN JARDUNBIDEA**

### **2.1. ARAZOAREN PLANTEAMENDUA ETA IKERKUNTZAREN HELBURUAK**

#### **2.1.1. Arazoaren planteamendua**

Euskadiko Udal Kirolaren Behatokiaren definizioak adierazten du udal-kirolean interesa duten pertsonen topagune dela, EAeko udalerriek kirol-arloan gauzatzen duten kudeaketari buruzko informazioa bildu eta aztertzeke.

Hortaz, ikerkuntza honen arazoaren planteamendua informazioa ematea da, interesdunek Euskadiko udal-kirolaren bilakaera ikus dezaten.

Lehenengo ikerkuntzako galderak berriz formulatzea da kontua: Lortzen ari al da herritarrek kirol-arloan dituzten beharrei erantzutea? Lortzen al dugu EAeko udalerrietako kirolak gizarte-, kirol- eta ekonomia-errentagarritasuna bermatzea?

#### **2.1.2. Ikerkuntzaren helburuak**

2015eko ikerkuntzaren 9 helburuei 11 gehiago gehitu zaizkie, eta horiek osatu egiten dituzte behatokiaren beraren helburuak. Nolanahi ere, alde batera geratzen da eskola-kirolaren berrikuspena; izan ere, "EAeko udalerrien aktuazioa Eskola Kirolean, 2018" azterlanean aztertu zen. Azterlan hori 2018ko abenduaren 14an aurkeztu zen, Bilboko Bizkaia pilotalekuan, "Udalerrien erronkak eskola-kirolean" jardunaldian.

1. EAeko udalerrietan kirola kudeatzeko udal-politiken alderdi orokorrak eta zehatzak aztertzea, 2018 ekitaldian gertatutakoari dagokionez.
2. 2018 ekitaldian likidatuko aldagai ekonomiko nagusiak behatzea, udalerrietako aurrekontuei dagokienez.
3. Beste aldagai ekonomiko batzuk zenbatzea 2018ko aurrekontuen likidazioen bidez, zehazki kirol-erakundeen 1. eta 2. kapituluen (gastuak) eta 3. eta 5. kapituluen (sarrerak) bidez.
4. Euskadin udal-kirolak 2018ko aurrekontu likidatuan izan duen autofinantzaketa-maila ezagutzea.
5. Tokiko klubentzako lankidetzak ekonomikoak behatzea.
6. Ekitaldien bidez kirola nola sustatzen den aztertzea.
7. Udalerrietako kirol-zerbitzuen prezioen politikak bistaratzeko.
8. Kirol-arloan administrazio-emakiden ereduak egiaztatzea.
9. Kirol-arloko udal-politiken aldagai sozialak aztertzea, honako kopuru hauei dagokienez: 2018ko abonatuak, ikastarogileak, kirolari federatuak, desgaitasuna duten kirolariak eta udal-instalazioak erabiltzen dituzten klubak.

10. Udalerrietan kirol-jarduerari buruzko azterlanaren kudeaketa gainbegiratzea.
11. Kirolak tokiko beste sail edo entitate batzuekin duen zeharkakotasuna egiaztatzea.
12. EAEko udalerriek 2018an zein kirol-instalazio mota zituzten behatzea.
13. Kirol-instalazioak kudeatzeko giza baliabideen arloan dauden udal-politikak egiaztatzea.
14. Udal-kirolaren kudeatzaileen eta haiek zuzentzen dituzten arduradun politikoen profila behatzea.
15. Udalerrietako kirol-errealitateari buruzko aholku-organoen edo hausnarketa-organoen egoera aztertzea.
16. Behaketaren aldagaietan dauden aldeak konparatzea, udalerrietako biztanle kopuruari dagokion kategoriaren arabera.
17. 2018an EAEko udalerriek zein kirol-profil zuten ezagutzea.
18. 2013ko eta 2018ko profilen bilakaera konparatzea.
19. Antolamendu-egiturak, kudeaketa-ereduak, kalitatearen eta herritarren parte hartzearen kudeaketa-sistemak behatzea.
20. Arduradun teknikoek egungo ereduaren bilakaerari buruz zein iritzi duten ezagutzea.

## **2.2. METODOLOGIA**

### **2.2.1. Ikerkuntzaren diseinua**

Azterlan honek zeharkako diseinu deskribatzaile eta kuantitatibo bati jarraitzen dio, eta aldagaiak kategorien arabera kuantifikatu dira, kategoria horien arabera azter daitezten. Diseinuaren oinarria inkesta da, gizarte-zientzien arlorako deskribatutako proposamen

metodologikoei jarraikiz (Alvira, 2004; Cea, 1999; García-Ferrando, Ibáñez eta Alvira, 2003). EAEko udalerriek kirol-arloan izan duten jardunaren analisia eragin duten funtsezko faktoreen inguruko aldagaiak aztertu dira (2018ko datuak).

### 2.2.2. Tresna

EAEko 2015eko udalerri buruzko azterlanean eta 2018ko ikerkuntza honetan lortutako emaitzen konparazioa egiteko datuak lortze aldera, 2013 ekitaldian KAITEk EAEko udalerrietako kirol-arloko udal-politikak kudeatzeko arduradunei egin zien galdetegi espezifiko beraren erantzunen azterketan oinarritu da behaketa. Gainera, udal-kirolari buruzko azterketa aberasten duten galdera berriak gehitu dira. Hortaz, galdetegi hori (ikusi I. eranskina) EAEko udalerrietako kirol-zerbitzuen arduradun teknikoei eman zaie.

Galdera ireki eta itxiak egin ziren. Azterlanaren autoreak berak osatu zituen galderak eta kirol-arloko teknikariek (KAITEko kideak) gainbegiratu zituzten inkesta ireki baten bidez.

### 2.2.3. Parte-hartzaileak

Euskadiko Udal Kirolaren Behatokiaren 2018ko azterlanean, laginaren biztanleria identifikatze aldera, EAEko 251 udalerrien inbentarioa egin zen, eta, biztanle kopuruaren arabera, hainbat azpimultzo osatu ziren, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 26. artikuluari jarraikiz:

- 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak
- 5.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerriak
- 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerriak
- 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerriak
- 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerriak

Logikoki, edozein ikerkuntza kualitatibotan bezalaxe, lagina diseinatzean, emaitzak adierazgarriak izatea lortu nahi izan da, kasu honetan EAEkoak. Erabat ausazkoa zen laginketa diseinatzea ezinezkoa zenez, diseinu ez-probabilistiko bat erabili zen; horretarako, laginaren guztizko tamaina 52 udalerrikoa izan da, eskualde guztiak ordezkatuta geratuko zirela ziurtatzeko. Hortaz, azterlan honetan EAEko 251 udalerrien inbentarioa egin da, lurraldea eskualdeen arabera banatuta, eta eskualde bakoitzeko bost udalerrri hautatu dira, biztanleria-kategoria bakoitzeko bat, nahiz eta alde zuzen jakin eskualde guztiek ez dituztela betetzen bost kategoriak. Eskualderen batek biztanleria kopuruaren ezaugarria betetzen duen udalerrri bat baino gehiago izanez gero, ausaz hautatu dira udalerrriok. Helburua zen ahalik eta eskualde gehien ordezkatzea.

52 udalerrri horiek EAEko udalerrien % 20,71 ordezkatzen dituzte. Oro har, % 55,77ko parte-hartzea (29 udalerrri) lortu zen.




Halaber, EAEk 2.194.158 biztanle ditu, eta laginak 1.133.373 biztanle hartzen ditu; hau da, EAeko biztanleriaren % 51,65 ordezkutzen du.

Aurrekoa aintzat hartuta, estatistika aldetik, uste da azterlanaren emaitzak Euskadiko errealitatea ordezkutzen dutela.


Berriz geratzen da agerian oso zaila dela hain ezberdinak diren errealitateak konparatzea, "tokiko kirol-sistema neurtzeko". Gainera, lurralde guztiek ez dute nahikoa ordezkagarritasun. Arabak 326.574 biztanle ditu, eta lurraldearen laginak 5.018 biztanle hartzen ditu, hau da % 1,53. Izan ere, lurralde horretan biztanleriaren polarizazioa heterogeneo da, probintziako hiriburuak (Gasteiz) biztanleriaren % 75,6 biltzen baitu. Hori dela eta, halako azterlanetan, EAEn errealitatea osorik aztertu nahi den heinean, beharrezkotzat jotzen da Gasteiz laginaren barruan egotea, are gehiago kontuan izanda Araban ez dagoela 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko kategoriako udalerririk ezta eta 50.001 eta 100.000 bitartekorik ere. Adierazi behar da lurralde horretako 7 udalerrri gonbidatu zirela parte hartzera, baina horietako 6k uko egin zioten parte hartzeari.

Bestalde, Bizkaiak 1.148.302 biztanle ditu, eta laginak (18 udalerrri) 746.460 biztanle ordezkutzen ditu, hau da lurraldearen % 65a. Gipuzkoari dagokionez (10 udalerrri laginean), 719.282 biztanle ditu, eta laginak 381.895 biztanle biltzen ditu, hau da, probintziaren % 53,1.



1. grafikoa. Lagineko udalerrietako biztanleak


## EUSKADIKO LURRALDEETAKO BIZTANLERIAREN ORDEZKAGARRITASUNA AZTERLANEAN



■ ARABA ■ BIZKAIA ■ GIPUZKOA

2. grafikoa. Euskadiko lurraldeetako biztanleriaren ordezkagarritasuna azterlanean

## ORDEZKAGARRITASUNA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA, 7/1985 LEGEARI JARRAIKIZ



■ <5.000 biztanle  
 ■ 5.001 eta 20.000 biztanle bitartean  
 ■ 20.001 eta 50.000 biztanle bitartean  
 ■ 50.001 eta 100.000 biztanle bitartean  
 ■ >100.001 biztanle

3. grafikoa. Ordezkarritasuna udalerriaren tamainaren arabera, 7/1985 Legeari jarraikiz

## 2.2.4. Datuak biltzeko prozedura

- A) Lagineko udalerrien harremanetarako datuak ikertu ziren.
- B) Lehenengo kontaktua egin zen udaleko kirol-zerbitzuetako 52 arduradunekin. Kontaktua horretan, azterlanaren oinarriak azaldu ziren eta udalerrien eta ikerkuntza-taldearen arteko lotura izango zen pertsonaren harremanetarako datuak bildu ziren.
- C) 2019ko ekainean, proiektua aurkezteko eskutitza eta datuak biltzeko bete behar zuten galdetegia bidali ziren.
- D) Galdetegi horiek 2019ko ekainaren eta 2020ko otsailaren bitartean jaso ziren.
- E) Datuak aztertu ziren.
- F) Azterlanaren ondorioak atera ziren.

## 2.2.5. Datuen tratamendua

Emaitzak kodifikatu eta Microsoft Excel-orriaren bidez aztertu ziren. 2016. Datuak prozesatzean, maiztasun-taulen bidezko analisi deskribatzailea egin zen, biztanle kopuruaren aldagai independenteen arabera taldekatuta.

Datuak 251 udalerriko unibertsoetik (aipatutako 2.194.158 biztanleak ordezkatzeko dituzte) eta 29 udalerriko azken laginetik (1.133.373 biztanle ordezkatzeko dituzte) jaso ziren. Konfiantza-maila % 95koa da eta konfiantza-tartea edo gehieneko errore-marjina % 0,06koa.

## 2.2.6. Emaitzen azterketa deskriptiboa eta estatistikoa

Datuen azterketa deskriptibo estatistikotik abiatuta eta behatutako aldagaien batezbestekoa eta portzentajeak erabilia, aztertutako adierazleak konparatu ziren.

29 udalerririk erantzun zuten galdetegia; hau da, lagineko % 55,77k (ikus 1. taula. Hautatutako udalerrien kopurua eta tamaina). Kopuru absolutuetan, laginak EAEko biztanleriaren % 51,65 ordezkatzeko du.

Ikerkuntzaren galdetegian 96 galdera egin ziren.

Egindako galderen emaitza bost aldagai izan dira:

- Datu orokorrak
- Aldagai ekonomikoa
- Aldagai soziala
- Aldagai teknikoa
- Langileen aldagaia
- Udaleko kirol-teknikarien iritzia

1. taula. Hautatutako udalerrien kopurua eta tamaina

Udalerrien kopurua	Udalerrien tamaina
--------------------	--------------------

8 udalerrri	1 eta 5.000 biztanle bitartean
10 udalerrri	5.001 eta 20.000 biztanle bitartean
6 udalerrri	20.001 eta 50.000 biztanle bitartean
2 udalerrri	50.001 eta 100.000 biztanle bitartean
3 udalerrri	100.001 biztanle baino gehiago

### 2.2.7. Adierazleak

Eskatutako datuak konbinatuta, honako adierazle hauek ondorioztatu dira:

Datu orokorren aldagaiaren 1 adierazle

Aldagai ekonomikoaren 20 adierazle

Aldagai sozialaren 59 adierazle

Langileen aldagaiaren 18 adierazle

Aldagai teknikoaren 25 adierazle

Teknikarien iritziaren 6 adierazle


Behatutako 129 adierazleetatik abiatuta, Euskadi osoaren konparazio-azterketa egin da. Kasu honetan, ezin izan dira konparatu 2015eko azterketan konparatu ziren udalerrriak, Arabak ez baitu nahikoa ordezkagarritasunik.

## 2.3. EMAITZAK

Aintzat hartuta Toki-araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua, biztanleriaren arabera udalerrri-kategorien emaitzak aztertu dira.

### 2.3.1. 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrriak

Aldagai orokorrean, laginean hautatutako udalerrrietako biztanle kopuruari buruzko datuak aipatuko ditugu. 4. grafikoa.



4. grafikoa. Lagineko 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrriak

Kategoria honen datu demografikoaren profila 3.612 biztanleko udalerrri bat da.

Euskadiko 180 udalerrri daude 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrrien kategorian. Horiek 224.383 biztanle biltzen dituzte. Lagineko udalerrriek (28.899 biztanle) kategorian unibertsoaren % 12,87 ordezkatzeko dute.

Aipatu behar da kategorian Araba ez dagoela ordezkaturik.

### 2.3.1.1. Aldagai ekonomikoari buruzko datuak, 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrietan


2. taula. 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrri-profilaren aldagai ekonomikoa

1 ETA 5.000 BIZTANLE BITARTEKO UDALERRIEN ALDAGAI EKONOMIKOAREN PROFILA. EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018		
ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
EKONOMIKOA	Udalaren aurrekontua	4.988.763,18 €
	Kirol Sailaren aurrekontua	613.673,41 €
	1. kapitulua. Langile-gastuak.	79.787,70 €
	2. kapitulua. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak.	354.367,37 €
	3. kapitulua. Tasengatiko diru-sarrerak eta beste batzuk	109.926,73 €
	5. kapitulua. Ondare-sarrerak	0 €
	Kiroleko gastua, guztira	424.181,61 €
	Kiroleko sarrerak, guztira	96.185,89 €
	Defizita (diru-sarrerak-gastuak)	-327.996 €
	Defizitaren ehunekoa, udal-aurrekontuari dagokionez	% 7
	Autofinantzaketaren ehunekoa	% 23
	Kirolean egindako gastuaren ehunekoa, aurrekontu osoari dagokionez	% 12
	Gastua biztanle/urte	117,42 €
	Diru-sarrera biztanle/urte	26,63 €
	Defizita biztanleko	90,80 €
	Ekarpen ekonomikoak - dirulaguntzak	25.476,01 €
	Kirol-ekitaldietara bideratutako ekarpen ekonomikoak	11.501,78 €
	Dirulaguntza bidezko ekarpen ekonomikoak - aurrekontu osoari dagokionez	% 0,51
	Kirol-ekitaldietara bideratutako ekarpenen ehunekoa, aurrekontu osoari dagokionez	% 0,23
Kirol-arloan administrazio-emakidaren bat duten udalerrien ehunekoa	% 50	

1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrietako batez besteko datuek erakusten dute 4.988.763,18 €-ko aurrekontu orokorra dutela. Zenbateko horretatik 613.673,41 € kirol-arlori bideratzen dira (hau da, % 12); horietatik, 1. kapituluan 79.787,70 € erabiltzen dira langile-gastuetarako, eta 354.367,37 €, berriz, 2. kapituluan, beharrezkoak diren ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko, arloak egokiro jarduteko. Halaber, adierazten da arloak 109.926,73 €-ko sarrerak sortzen dituela 3. kapituluan (zerbitzu publikoen eta zerga-tasen kontraprestazioa), eta 0 €-koak 5. kapituluan (ondarearen etekinak). Hortik ondorioztatzen da kirol-arloko defizita -327.996 €-koa dela; hortaz, autofinantzaketa-ehunekoa % 23koa da.

Kirol-arloan udalerriko herritar bakoitzeko egiten den gastua 117,42 €-koa da urtean, eta diru-sarrera, aldiz, 26,63 €-koa. Beste era batera esanda, herritar bakoitzeko defizita urtean 90,80 €-koa da. Kirol-arloko defizitak udalaren defizitaren % 7 hartzen du.

## UDALERRIEN KUDEAKETA-EREDUA 1 ETA 5.000 BIZTANLE BITARTEAN



■ ZEHARKAKOA ■ ZUZENA ■ MISTOA

5. grafikoa. Kudeaketa-eredua 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrietan

Gainera, ikusi da udalerrien % 62,5ek zeharkako kudeaketa-eredua aukeratzen dutela, non kanpoko enpresen zerbitzuak kontratatzen diren kirol-instalazioak kudeatzeko; % 25ek nahiago dute zuzeneko kudeaketa, udalerriak kontratatutako langileekin; eta % 12,5ek kirol-zerbitzua kudeatzeko eredu misto erabiltzen dute; hau da, zuzendaritza eta koordinazioa udaleko langileen esku dago, eta exekuzioa eta mantentze-lanak azpikontratatu egiten dira. Ikusi 5. grafikoa.

Honako kudeaketa-ereduak daude egoeren arabera:

- Zeharkako kudeaketa-eredua. Kanpoko enpresekin kudeaketa-kontratua egiten da, eta kiroldegien kudeaketa integrala ematen zaie.
- Zuzeneko kudeaketa-eredua. Kirolaren Udal Institutuaren eta Gazteria eta Kirol Sailaren formula erabiltzen da.
- Kudeaketa mistoaren eredu. Udalaren kudeaketa propioa erabiltzen da, kirol-teknikariaren bidez, eta azpikontratatu egiten dira harrera-, jarduera-, mantentze- eta sorospen-zerbitzuak.



### 2.3.1.2. Aldagai sozialari buruzko datuak, 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrietan

Aldagai hau aztertzen hasi aurretik, adierazi behar da laginaren % 12,5ek ez dituztela jasota herritarren partaidetzari buruzko datuak. % 25ek ez dituzte datuak sexuaren arabera bereizita. Eta % 37,5ek baino ez dituzte eman dagokion kirol-modalitatea egiteko udal-instalazioak erabiltzen dituzten federatuei buruzko datuak.

3. taula. 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrri-profilaren 1. aldagai soziala

ALDAGAI SOZIALAREN PROFILA, 1 ETA 5.000 BIZTANLE BITARTEKO UDALERRIETAN. EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018		
ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
SOZIALA	Kirol-instalazioetako erabiltzaile abonatuak	% 25
	Kirol-instalazioetako gizon abonatuak	% 13
	Kirol-instalazioetako emakume abonatuak	% 12
	0-17 urte bitarteko abonatu guztiak	% 6
	0-17 urte bitarteko gizon abonatuak	% 3
	0-17 urte bitarteko emakume abonatuak	% 3
	18-64 urte bitarteko emakume abonatuak	% 13,83
	18-64 urte bitarteko gizon abonatu guztiak	% 7,34
	18-64 urte bitarteko emakume abonatuak	% 6,49
	65 urte baino gehiagoko abonatu guztiak	% 2
	65 urte baino gehiagoko gizon abonatuak	% 1
	65 urte baino gehiagoko emakume abonatuak	% 1
	Kirol-instalazioetako ikastarogileak	% 20,6
	Kirol-instalazioetako gizon abonatuaren artean, ikastarogileak	% 8,4
	Kirol-instalazioetako emakume abonatuaren artean, ikastarogileak	% 12,2
	0-17 urte bitarteko ikastarogileak	% 5
	0-17 urte bitarteko gizon ikastarogileak	% 3
	0-17 urte bitarteko emakume ikastarogileak	% 2
	18-64 urte bitarteko ikastarogileak	% 13
	18-64 urte bitarteko gizon ikastarogileak	% 5
	18-64 urte bitarteko emakume ikastarogileak	% 8
	65 urte baino gehiagoko ikastarogileak	% 2
	65 urte baino gehiagoko gizon ikastarogileak	% 1
	65 urte baino gehiagoko emakume ikastarogileak	% 1
	Kirol-instalazioetako erabiltzaile federatuak	% 5
	Kirol egokitua egiteko eskaintza 1.000 biztanleko	0,14
	Desgaitasuna duten pertsonentzako jarduerak sustatzen dituzten udalerrriak	% 37,5
	Instalazioak erabiltzen dituzten klubak, Espainiako klubei dagokienez	% 0,006
	Instalazioak erabiltzen dituzten klubak, EAEko klubei dagokienez	% 0,05

Kategoria honetan udaleko kirol-zerbitzuetara abonatuta dauden erabiltzaileen batezbestekoa biztanleen % 25ekoa da. Horietatik % 13 gizonak dira % 12a emakumeak.

Azterlan honetan, kirol-eskaintza zein adin-tarteri eskaintzen zaion ikusi nahi izan da, eta ondorioztatu da adigabeko biztanleei % 6 eskaintzen zaiola, 18 eta 64 urte bitartekoei % 13,82 eta 65 urtetik gorakoei % 2.

Bestalde, biztanleriaren % 20,6k egiten ditu kirol-jarduerak ikastaro formatuan. Ikastaro horien % 5 adingabeei daude zuzenduta; % 13, berriz, 18 eta 64 urte bitartekoei eta % 2, bukatzeko, 65 urtetik gorakoei.

Kirol-instalazioak erabiltzen dituzten klub federatuei dagokienez, kirolariak biztanleriaren % 5 ordezkatzen dute. Halaber, adierazi behar da udalerrri-tipo horiek lankidetzan aritzen direla Espainiako klubek % 0,006ekin eta Euskadiko klubek % 0,05ekin. Kirol-klubek udaleko kirol-instalazioei ematen dieten erabilerari dagokionez, futbola dago erabileraren rankingaren gailurrean (% 37,5), jarraian pilota dago (% 25) eta, azkenik, gainerako kirol-modalitateak (% 12) (ikus 4. taula).

4. taula. Kirol-modalitateak 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrietan

**1 ETA 5.000 BIZTANLE BITARTEKO UDALERRIETAKO KIROL-  
INSTALAZIOETAN KLUBEK EGITEN DITUZTEN KIROL-MODALITATEEN  
RANKINGA**

<i>KIROLA</i>	<b>ANTOLATZEN DUTEN UDALERRIEN EHUNEKOA</b>
<i>Futbola</i>	% 37,5
<i>Pilota</i>	% 25
<i>Igeriketa</i>	% 12,5
<i>Areto-futbola</i>	% 12,5
<i>Eskubaloia</i>	% 12,5
<i>Arraunketa</i>	% 12,5
<i>Saskibaloia</i>	% 12,5
<i>Boxeoa</i>	% 12,5
<i>Judoa</i>	% 12,5
<i>Mendia</i>	% 12,5

Desgaitasuna duten pertsoneri dagokienez, kategoria honetako udalerrien % 37,5ek eskaintzen dizkiete jarduerak.


5. taula. 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerri-profilaren 2. aldagai soziala

ALDAGAI SOZIALAREN PROFILA, 1 ETA 5.000 BIZTANLE BITARTEKO UDALERRIETAN. EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018		
ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
SOZIALA	Eskainitako kirol-jardueren kopurua	16
	0-17 urte bitartekoei eskainitako kirol-jarduerak	% 22,22
	18-64 urte bitartekoei eskainitako kirol-jarduerak	% 55,55
	65 urte baino gehiagokoei eskainitako kirol-jarduerak	% 22,22
	Beren kirol-jarduerari buruzko azterketak egiten dituzten udalerriak	% 12,50
	Beste sail batzuekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 62,5
	Berdintasun Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 62,5
	Integrazio Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 25
	Gizarte Zerbitzuen Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 25
	Droga-mendekotasun Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 37,50
	Osasun Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 87,50
	Hezkuntza Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 37,50
	Hirigintza Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 25
	Ingurumen Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 25
	Turismo Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 37,50
	Osakidetzarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 75
	Aldundiarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 75
	Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 50
	Kirol-arloko enpresa pribatuekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 0
	Herritarren parte-hartzea partaidetza-kanalen bidez sustatzen duten udalerriak	% 37,50
	Herritarren udal-zerbitzuekiko gogobetetze-maila neurtzen duten udalerriak	% 37,50
	Herritarren kirolarekiko gogobetetze-maila neurtzen duten udalerriak	% 25
	Kirol egiten ez dutenek zergatik egiten ez duten neurtzen duten udalerriak	% 12,50
	Biztanle sedentarioak kirola egitera erakartzeko neurriak garatzen dituzten udalerriak	% 50
	Kirol-arloan familientzako orientazio- eta akonpainamendu-zerbitzua duten udalerriak	% 0
	Beren herritarrei ondoko udalerriko kirol-zerbitzua erabiltzeko aukera ematen dieten udalerriak	% 75
	Modu batera edo bestera udalerrien partaidetza duten kirol-ekitaldien batezbestekoa	11

1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerriek batez beste 16 jarduera eskaintzen dizkiete herritarrei. Horietatik % 22,22 dira 0 eta 17 urte bitartekoentzat; % 55,55, berriz, 18 eta 64 urte bitartekoentzat; eta, gainerakoak, % 22,22a, 65 urtetik gorakoentzat.

Udalerrien % 12,5ek adierazi dute beren udal-errealitatearen kirol-jarduerari buruzko azterketa egiten dutela.

Kirol-zerbitzuen % 62,5ek adierazi dute harremanak dituztela beren udal-antolaketako sailekin edo beste entitate batzuekin. Udaleko beste sail batzuekin edo beste erakunde batzuekin harremana duten udalerrien laginak 6. grafikoan adierazitako moduan interakzionatzen du.




6. grafikoa. 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrien erakunde-harremanak

Kirolean, biztanleria-tarte honetako udalerrien % 37,5ek sustatzen du herritarren parte-hartzea, kirol-zerbitzuen bilakaerari buruz duten iritzia eman dezaten. Eta portzentaje berak, % 37,5ak, aztertzen du herritarren gogobetetze-maila, eskaintzen dituzten zerbitzuei dagokienez. Aldiz, herritarrek beren kirol-jarduerarekiko duten gogobetetze-maila pertsonala baloratzen duten galdetu zitzaizenean, lagineko udalerrien % 25ek bakarrik erantzun zuten baietz.

Kategoria honetako udalen % 12,5ek aztertzen dute kirol egiten ez dutenek zergatik ez duten egiten. Gainera, % 50ek neurriak hartzen dituzte herritar sedentarioak kirola egitera erakartzeko.

Honako hauek dira udalerririk horiek beren erabiltzaileen eskura jartzen dituzten kanalak kirol-zerbitzuari buruz duten iritzia eman dezaten: balorazio-inkestak, iradokizun-orriak, eta sare sozialetan eta foroetan parte hartzeko aukera.


### ERABILTZAILEAREN PROFILAREN ARABERA TASA BAT EDO BESTE ERABILTZEN DUTEN UDALERRIEN EHUNEKOA, 1 ETA 5.000 BIZTANLE BITARTEKO UDALERRIETAN



7. grafikoa. 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrietako tasak erabiltzaileen profilaren arabera

Udaleko kirol-instalazioetarako sarbideei eta kirol-eskaintzari aplikatzen dizkieten tasak behartzean (ikus 7. grafikoa), tarte horretako udalerrien % 65,5ek abonatu gabeko erabiltzaileak bereizten dituzte, eta honako irizpide hauek hartzen dituzten aintzat abonamenduaren prezioa zehazteko: udalerrian erroldatuta egotea edo ez egotea (udalerrien % 50ek), DSBEaren jasotzaile izatea (% 50ek), erretiratuak edo pentsiodunak izatea (% 65,5ek), desgaitasuna duten pertsonak izatea (% 65,5ek), kirol-instalazioak erabiltzen dituzten klubetako kirolariak izatea (% 65,5ek). Halaber, batzuek garrantzia ematen diete sarbide-tarifa kalkulatzeko eliteko kirolaritzat hartzen diren pertsonen (% 12,5ek).

### 1 ETA 5.000 BIZTANLE BITARTEKO UDALERRIETAKO KIROL-EKITALDIAK



9. grafikoa. 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrietako kirol-ekitaldiak

1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrietan batez beste 11 ekitaldi egiten dira urtean. Eta kirol-ekitaldi horietako parte-hartzearen batezbestekoak adierazten du tarte horretako udalerriek urtean 4 ekitaldi antolatzen dituztela, 9 babesten dituztela eta 1 ekitaldi antolatzen dutela desgaitasuna duten pertsonentzat (ikus 9. grafikoa).

Beren ekitaldietarako udalerriek hautatzen dituzten jardueri dagokienez, pilota (bere modalitate guztietan) da sailkapeneko lehena; izan ere, udalerrien % 75ek adierazi dute kirol horren ekitaldiren bat antolatzen dutela. Modalitate honetako herrien % 50ek bizikleta-jarduerak antolatzen dituzte. Jarraian igeriketa, korrika egiteko jarduerak (herri-krosak), surfa eta futbola daude. Horiek udalerrien % 37,5ek antolatzen dituzte (ikus 6. taula).

6. taula. Ekitaldietako kirol-modalitateak 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrietan


**1 ETA 5.000 BIZTANLE BITARTEKO UDALERRIETAN ANTOLATZEN DIREN  
KIROL-EKITALDIEN RANKINGA**

<b>KIROLA</b>	<b>ANTOLATZEN DUTEN UDALERRIEN EHUNEKOA</b>
<i>Pilota</i>	% 75
<i>Bizikleta</i>	% 50
<i>Igeriketa</i>	% 37,5
<i>Korrika egitea</i>	% 37,5
<i>Surfa</i>	% 37,5
<i>Futbola</i>	% 37,5
<i>Eskubaloia</i>	% 25
<i>Kayaka</i>	% 25
<i>Heziki</i>	% 25
<i>Ibilaldiak</i>	% 25
<i>Errugbia</i>	% 12,5
<i>Desgaitasuna duten pertsonentzako kirola</i>	% 12,5
<i>Motor-kirolak</i>	% 12,5
<i>Arraunketa</i>	% 12,5
<i>Nordic Walking-a</i>	% 12,5
<i>Irristaketa</i>	% 12,5
<i>Bola-jokoa</i>	% 12,5
<i>BTT</i>	% 12,5
<i>Tenisa</i>	% 12,5

### 2.3.1.3. Langileen aldagaiari buruzko datuak, 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrietan

Udalerri-talde honek 2,3 langile behar ditu mila biztanleko kirola garatzeko; hau da, 8 langile behar ditu kirol-zerbitzua emateko. Horietatik % 62,5 gizonak dira eta % 37,5a emakumeak.

#### LANGILEEN EHUNEKOA, SEXUAREN ARABERA, 1 ETA 5.000 BIZTANLE BITARTEKO UDALERRIETAN



10. grafikoa. 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrietako langileak sexuaren arabera

Udalerri-talde honetan, honako hau da arduradun teknikoaren profila: emakumea, 36 urtekoa, Jarduera Fisikoa eta Kirolaren Zientzietako lizentziaduna, kirol-masterren batean prestakuntza du, 7 urte darama kirol-arloko arduradun tekniko eta 5 urte udalerrian. (ikus 8. taula)

8. taula. 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrietako arduradun teknikoaren profila

#### 1 ETA 5.000 BIZTANLE BITARTEKO UDALERRIETAKO ARDURADUN TEKNIKOAREN PROFILA. EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018

ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
KIROL-ARLOKO ARDURADUN TEKNIKO NAGUSIA	LZn sartuta dago	% 50
	Kirol-arloko arduradun tekniko nagusiaren batezbesteko adina	36 urte
	Sexua: emakumea	% 62,5
	Jarduera Fisikoa eta Kirolaren Zientzietako lizentziaduna	% 50
	Masterren bat egin du	% 37,50
	Kirol-arloko arduradun lanpostuan egondako batez besteko denbora	5 urte
	Udalerrian lan egindako batez besteko denbora	7 urte

Kalean erabilera libreko instalazio irekiak dituzten udalerrien % 60k adierazi dute bidegorria edo bizikletentzako eta oinezkoentzako bidea dutela. Udalerrien % 80k adierazi dute gimnasio bio-osasungarriak edo kaleko gimnasioak dituztela. Biztanleria-kategoria honetako udalerrien % 55ek eskaintzen dituzte jarduera fisikoa eta kirol-jarduera bultzatzen dituzten jolasak bide publikoan. Halaber, udalerrien % 40k adierazi dute erabilera libreko kirol-instalazioak dituztela hainbat kirol egiteko. Erabilera libreko instalazioen rankinga ageri da 32. taulan.

32. taula. Erabilera libreko instalazioak 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrietan

**Udalerriek kirola sustatzeko lagatzen  
dituzten erabilera libreko  
instalazioak**

Pilotalekua  
Saskibaloikantxak  
Areto-futboleraiko kantxak  
Skate-parkeak  
Ping-pongeko mahaiak  
Erabilera anitzeko pistak  
Tenis-pistak

### 2.3.3.5 Arduradun teknikoek iritzia buruzko datuak, 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrietan



25. grafikoa. 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrietako teknikarien iritzia


20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrietako kirol-zerbitzuen arduradun teknikoek ustez honako hauek dira ereduaren mehatxuak: ereduaren zaharkitzea (% 60), udalerrietan zerbitzuak eskaintzen dituen lehia pribatua (% 20) eta irizpide politiko eza (% 40). Gainera, ahuleziaz hartzen dituzte instalazioak (% 80), baliabide ekonomikoak (% 80) eta langileak (% 80).



Libreki adierazi zuten gidalerro, irizpide eta zuzendaritza politiko zehatz eta koordinatu batzuen arabera lan egin beharko litzatekeela. Disrupzio teknologikoa ere mehatxuen arten sartu zuten.

### 2.3.4. 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerriak

Aldagai orokorrean, laginean hautatutako udalerrietako biztanle kopuruari buruzko datuak aipatuko ditugu. 26. grafikoa.



26. grafikoa. Lagineko 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerriak

Kategoria honen datu demografikoaren profila 70.066 biztanleko udalerri bat da.

Euskadin bi udalerrik baino ez dituzte 50.001-100.000 biztanle, bat Bizkaikoa da eta bestea Gipuzkoakoa. Hortaz, bi udalerri horien laginak kategoria honen unibertsoaren % 100 ordezkatzen du.

Arabak ez du biztanle-multzo hori duen udalerririk.

### 2.3.4.1. Aldagai ekonomikoari buruzko datuak, 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietan

Aldagai ekonomikoan, profila 33. taulan agertzen dena da.

33. taula. 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrri-profilaren aldagai ekonomikoa

50.001 ETA 100.000 BIZTANLE BITARTEKO UDALERRIEN ALDAGAI EKONOMIKOAREN PROFILA EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018		
ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
EKONOMIKOA	Udalaren aurrekontua	87.113.553 €
	Kirol Sailaren aurrekontua	5.529.176,28 €
	1. kapitulua. Langile-gastuak	1.071.108,49 €
	2. kapitulua. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	3.457.478,89 €
	3. kapitulua. Tasengatiko diru-sarrerak eta beste batzuk	5.576.933,76 €
	5. kapitulua. Ondare-sarrerak	33.973,21 €
	Kiroleko gastua, guztira	4.528.687,38 €
	Kiroleko sarrerak, guztira	2.805.453,49 €
	Defizita (diru-sarrerak-gastuak)	-1.723.234 €
	Defizitaren ehunekoa, udal-aurrekontuari dagokionez	% 2
	Autofinantzaketaren ehunekoa	% 55
	Kirolean egindako gastuaren ehunekoa, aurrekontu osoari dagokionez	% 6
	Gastua biztanle/urte	64,64 €
	Diru-sarrera biztanle/urte	40,04 €
	Defizita biztanleko	24,59 €
	Ekarpen ekonomikoak - dirulaguntzak	863.664,00 €
	Kirol-ekitaldietara bideratutako ekarpen ekonomikoak	50.000,00 €
	Dirulaguntza bidezko ekarpen ekonomikoak - aurrekontu osoari dagokionez	% 0,99
	Kirol-ekitaldietara bideratutako ekarpenen ehunekoa, aurrekontu osoari dagokionez	% 0,06
	Kirol-arloan administrazio-emakidaren bat duten udalerrien ehunekoa	% 50


50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietako batez besteko datuek erakusten dute 87.113.553 €-ko aurrekontu orokorra dutela. Zenbateko horretatik 5.529.176,28 € Kirol Sailera bideratzen dira (hau da, % 6); horietatik, 1. kapituluan 1.071.108,49 € erabiltzen dira langile-gastuetarako, eta 3.457.478,89 € 2. kapituluan, mota guztietako ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko arloak behar bezala jardun dezan.

Bestalde, arloak 5.576.933,76 €-ko sarrerak sortzen ditu 3. kapituluan (zerbitzu publikoen eta zerga-tasen kontraprestazioa), eta 33.973,21 €-koak 5. kapituluan (ondarearen etekinak). Hortik ondorioztatzen da kirol-arloan defizita -1.723.234 €-koa dela, eta, beraz, kirol-arloko defizita % 2koa dela udalaren aurrekontuari dagokionez. Aurrekoaren arabera, autofinantzaketa % 55ekoa da.

Kirol-arloan udalerriko herritar bakoitzeko egiten den gastua 64,64 €-koa da urtean, eta diru-sarrera, aldiz, 28,28 €-koa. Beste era batera esanda, herritar bakoitzeko defizita urtean 40,04 €-koa da.

Kirol-arloko defizitak udalaren defizitaren % 2 hartzen du.

Kudeaketa-ereduak



27. grafikoa. Kudeaketa-eredua 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietan

Udalerrri hauek bi kudeaketa-eredu hautatzen dituzte: zeharkakoa eta zuzeneko. Eta honela izendatzen dituzte: Tokiko Organismo Autonomoa eta, bestetik, Kirol Zerbitzua-Kultura eta Kirol Arloa

### 2.3.4.2 Aldagai sozialari buruzko datuak, 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietan

34. taula. 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerri-profilaren 1. aldagai soziala

ALDAGAI SOZIALAREN PROFILA, 50.001 ETA 100.000 BIZTANLE BITARTEKO UDALERRIETAN. EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018		
ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
SOZIALA	Kirol-instalazioetako erabiltzaile abonatuak	% 26
	Kirol-instalazioetako gizon abonatuak	% 14
	Kirol-instalazioetako emakume abonatuak	% 12
	0-17 urte bitarteko abonatu guztiak	% 7
	0-17 urte bitarteko gizon abonatuak	% 4
	0-17 urte bitarteko emakume abonatuak	% 3
	18-64 urte bitarteko emakume abonatuak	% 15
	18-64 urte bitarteko gizon abonatu guztiak	% 8
	18-64 urte bitarteko emakume abonatuak	% 8
	65 urte baino gehiagoko abonatu guztiak	% 4
	65 urte baino gehiagoko gizon abonatuak	% 2
	65 urte baino gehiagoko emakume abonatuak	% 2
	Kirol-instalazioetako ikastarogileak	% 7
	Kirol-instalazioetako gizon abonatuaren artean, ikastarogileak	% 5
	Kirol-instalazioetako emakume abonatuaren artean, ikastarogileak	% 2
	0-17 urte bitarteko ikastarogileak	Daturik ez
	0-17 urte bitarteko gizon ikastarogileak	Daturik ez
	0-17 urte bitarteko emakume ikastarogileak	Daturik ez
	18-64 urte bitarteko ikastarogileak	Daturik ez
	18-64 urte bitarteko gizon ikastarogileak	Daturik ez
18-64 urte bitarteko emakume ikastarogileak	Daturik ez	

65 urte baino gehiagoko ikastarogileak	Daturik ez
65 urte baino gehiagoko gizon ikastarogileak	Daturik ez
65 urte baino gehiagoko emakume ikastarogileak	Daturik ez
Kirol-instalazioetako erabiltzaile federatuak	% 6
Kirol egokitua egiteko eskaintza 1.000 biztanleko	0,01
Desgaitasuna duten pertsonentzako jarduerak sustatzen dituzten udalerrriak	% 100
Instalazioak erabiltzen dituzten klubak, Espainiako klubei dagokienez	% 0,04
Instalazioak erabiltzen dituzten klubak, EAeko klubei dagokienez	% 0,89

50.001 eta 100.000 biztanle arteko udalerrietan, biztanleriaren % 14 dira, batez beste, kirol-zerbitzuetako abonatu. Horietatik % 12 gizonak dira % 12a emakumeak.

Kirol-eskaintzaren % 7 izaten da 0-17 urte bitartekoentzat; % 15, berriz, 18-64 urte bitartekoentzat; eta % 4, ostera, 65 urtetik gorakoentzat.

Udalerrri hauek ez dute ikastarogileei buruzko daturik eman.

Kirol-instalazioak erabiltzen dituzten klub federatuei dagokienez, kirolariak biztanleriaren % 6 ordezkatzeko dute. Halaber, adierazi behar da udalerrri-tipo horiek lankidetzan aritzen direla Espainiako klubak % 0,04rekin eta Euskadiko klubak % 0,89rekin. Kirol-klubek udaleko kirol-instalazioei ematen dieten erabilerari dagokionez, honako hauek daude rankingaren gailurrean: futbola, pilota, igeriketa, areto-futbola, eskubaloia, waterpolo, arraunketa, saskibaloia, piraguismoa, belar-hockeya, mendia eta gimnastika erritmikoa (kasuen % 100) (ikus 35. taula)..

35. taula. Kirol-modalitateak 50001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietan

**50.001 ETA 100.000 BIZTANLE BITARTEKO UDALERRIETAKO KIROL-  
INSTALAZIOETAN KLUBEK EGITEN DITUZTEN KIROL-MODALITATEEN  
RANKINGA**

<b>KIROLA</b>	<b>ANTOLATZEN DUTEN UDALERRIEN EHUNEKOA</b>
<i>Futbola</i>	% 100
<i>Pilota</i>	% 100
<i>Igeriketa</i>	% 100
<i>Areto-futbola</i>	% 100
<i>Eskubaloia</i>	% 100
<i>Waterpolo</i>	% 100
<i>Arraunketa</i>	% 100
<i>Saskibaloia</i>	% 100
<i>Piraguismoa</i>	% 100
<i>Belar-hockeya</i>	% 100
<i>Mendia</i>	% 100
<i>Gimnastika erritmikoa</i>	% 100
<i>Ping-ponga</i>	% 50
<i>Halterofilia</i>	% 50
<i>Gimnastika artistikoa</i>	% 50
<i>Bela</i>	% 50
<i>Patin-hockeya</i>	% 50
<i>Beisbola</i>	% 50
<i>Linea-irristaketa</i>	% 50

Surfa	% 50
Errugbia	% 50
Badmintona	% 50
Arraun-surfa	% 50
Padela	% 50
Judoa	% 50
Txirrindularitza	% 50
Atletismoa	% 50
Squasha	% 50
Eskrima	% 50
Billarra	% 50
Plater-tiroketa	% 50
Tenisa	% 50
Arku-tiroa	% 50
Herri-kirola	% 50

Desgaitasuna duten pertsonen dagokienez, kategoria honetako udalerrien % 100ek eskaintzen dizkiete jarduerak.

36. taula. 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerri-profilaren 2. aldagai soziala


**ALDAGAI SOZIALAREN PROFILA, 50.001 ETA 100.000 BIZTANLE BITARTEKO UDALERRIETAN. EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018**

ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
SOZIALA	Eskaintako kirol-jardueren kopurua	Daturik ez
	0-17 urte bitartekoei eskaintako kirol-jarduerak	Daturik ez
	18-64 urte bitartekoei eskaintako kirol-jarduerak	Daturik ez
	65 urte baino gehiagokoei eskaintako kirol-jarduerak	Daturik ez
	Beren kirol-jarduerari buruzko azterketak egiten dituzten udalerriak	% 50
	Beste sail batzuekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 100
	Berdintasun Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 100
	Integrazio Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 50
	Gizarte Zerbitzuen Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 100
	Droga-mendekotasun Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 50
	Osasun Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 50
	Hezkuntza Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 50
	Hirigintza Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 100
	Ingurumen Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 50
	Turismo Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 50
	Osakidetzarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 100
	Aldundiarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 100
	Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 50
	Kirol-arloko enpresa pribatuekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 100
	Herritarren parte-hartzea partaidetza-kanalen bidez sustatzen duten udalerriak	% 50
Herritarren udal-zerbitzuekiko gogobetetze-maila neurtzen duten udalerriak	% 100	
Herritarren kirolarekiko gogobetetze-maila neurtzen duten udalerriak	% 50	

Kirolik egiten ez dutenek zergatik egiten ez duten neurtzen duten udalerrriak	% 0
Biztanle sedentarioak kirola egitera erakartzeko neurriak garatzen dituzten udalerrriak	% 50
Kirol-arloan familientzako orientazio- eta akonpainamendu-zerbitzua duten udalerrriak	% 0
Beren herritarrei ondoko udalerriko kirol-zerbitzua erabiltzeko aukera ematen dieten udalerrriak	% 0
Modu batera edo bestera udalerrien partaidetza duten kirol-ekitaldien batezbestekoa	386

50.001 era 100.000 biztanle bitarteko udalerrien % 50ek adierazi dute kirol-jarduera aztertzen dutela beren kirol-egoera bistaratzeko.

Kirol-zerbitzuen % 100ek adierazi dute beren udal-antolaketa sailekin edo beste entitate batzuekin harremanak dituztela. 28. grafikoan ikusten den moduan egiten dute.




28. grafikoa. 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrien erakunde-harremanak

Udalerrien % 50ek jasotzen dute herritarrek kirol-zerbitzuei buruz duten iritzia. Era berean, % 100ek aztertzen dute eskaintzen dituzten zerbitzuekiko herritarren gogobetetze-maila. Lagineko udalerrri batek ere ez du neurtzen herritarrek kirola egitean duten gogobetetze pertsonala.

Kategoria honetako udalerrri bakar batek ere ez du aztertzen kirolik egiten ez dutenek zergatik ez duten egiten. Gainera, % 50ek neurriak hartzen dituzte herritar sedentarioak kirola egitera erakartzeko.

Parte-hartzerako bide diren heinean, herritarrei kirol-espazioen birmoldaketaz duten iritziaz



galdetu dietela adierazi dute.


29. grafikoa. 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietako tasak erabiltzaileen profilaren arabera

Biztanle-tarte horretako udalek honako hauen arabera ezartzen dituzte udal-kirol instalazioetarako sarbideen eta beren kirol-eskaintzaren tarifak (ikusi 29. grafikoa): % 100ek abonatuak edo abonatu gabeko erabiltzaileak bereizten dituzte, eta honako irizpide hauek hartzen dituzten aintzat abonatuen prezioa zehazteko: udalerrian erroldatuta egotea edo ez egotea (udalerrien % 100ek), DSBEaren jasotzaile izatea (% 50ek), erretiratuak edo pentsiodunak izatea (% 50ek), desgaitasuna duten pertsonak izatea (% 100ek), kirol-instalazioak erabiltzen dituzten klubetako kirolariak izatea (% 50ek), eta sarbide-tarifa kalkulatzeko garrantzia ematen dieten eliteko kirolaritzat hartzen diren pertsonen (% 50ek).

Irungo Udalak, halaber, hobaria ematen du bizikidetzaren errentaren arabera; hau da, abonuaren kostuaren % 75 laguntzen du diruz.



### 50.001 ETA 100.000 BIZTANLE BITARTEKO UDALERRIETAKO KIROL-EKITALDIAK



30. grafikoa. 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietako kirol-ekitaldiak

50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietan, urtean 386 ekitaldi sortzen dira batez beste. Eta kirol-ekitaldi horietako parte-hartzearen batezbestekoak adierazten du tarte horretako udalerriek 2 antolatzen dituztela urtean, 377 babesten dituztela eta desgaitasuna duten pertsonentzat urtean 15 ekitaldi antolatzen direla (ikus 30. grafikoa).

38 kirol-modalitateetako ekitaldiak antolatzen dira tarte horretako udalerrietan (ikusi 37. taula).

37. taula. Kirol-modalitateak 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietan

#### 50.001 ETA 100.000 BIZTANLE BITARTEKO UDALERRIETAN ANTOLATZEN DIREN KIROL-EKITALDIEN RANKINGA


KIROLA	ANTOLATZEN DUTEN UDALERRIEN EHUNEKOA
<i>Pilota</i>	% 100
<i>Txirrindularitza</i>	% 100
<i>Igeriketa</i>	% 100
<i>Tenisa</i>	% 100
<i>Saskibaloia</i>	% 100
<i>Futbola</i>	% 100
<i>Eskubaloia</i>	% 100
<i>Gimnastika erritmikoa</i>	% 100
<i>Padela</i>	% 100
<i>Arku-tiroa</i>	% 100
<i>Mendia</i>	% 100
<i>Eskrima</i>	% 100
<i>Arraunketa</i>	% 100
<i>Piraguismoa</i>	% 100
<i>Triatloia</i>	% 50
<i>Errugbia</i>	% 50
<i>Boleibola</i>	% 50
<i>Atletismoa</i>	% 50
<i>Xakea</i>	% 50
<i>Arraun-surfa</i>	% 50

<i>Areto-futbola</i>	% 50
<i>Irristaketa</i>	% 50
<i>Patin-hockeya</i>	% 50
<i>Skatea</i>	% 50
<i>Boxeo</i>	% 50
<i>Desgaitasuna duten pertsonentzako kirola</i>	% 50
<i>Badminton</i>	% 50
<i>Herri-kirola</i>	% 50
<i>Ultimate</i>	% 50
<i>Bela</i>	% 50
<i>Urpeko kirolak</i>	% 50
<i>Halterofilia</i>	% 50
<i>Squasha</i>	% 50
<i>Waterpolo</i>	% 50
<i>Plater-tiroketa</i>	% 50
<i>Billarra</i>	% 50
<i>Judo</i>	% 50

### 2.3.4.3. Langileen aldagaiari buruzko datuak, 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietan

Udalerri-talde horrek mila biztanleko 1,17 langile behar ditu, hau da, kirol-zerbitzua garatzeko 82 langile. Horietatik % 61 gizonak dira eta % 39a emakumeak.

### LANGILEEN EHUNEKOA, SEXUAREN ARABERA, 50.001 ETA 100.000 BIZTANLE BITARTEKO UDALERRIETAN



31. grafikoa. 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietako langileak sexuaren arabera

Honako hau da 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietako arduradun teknikoaren profila: gizona, 48 urtekoa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziaduna, kirol-masterren bat egin du, 14 urte darama arduradun teknikoaren lanpostuan eta 13 urte udalerri horretan. (ikus 38. taula)

38. taula. 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietako arduradun teknikoaren profila

**50.001 ETA 100.000 BIZTANLE BITARTEKO UDALERRIETAKO ARDURADUN  
TEKNIKOAREN PROFILA. EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018**

ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
KIROL-ARLOKO ARDURADUN TEKNIKO NAGUSIA	LZn sartuta dago	% 100
	Kirol-arloko arduradun tekniko nagusiaren batezbesteko adina	48 urte
	Sexua: gizona	% 100
	Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziaduna	% 100
	Masterren bat egin du	% 100
	Kirol-arloko arduradun lanpostuan egondako batez besteko denbora	14 urte
	Udalerrian lan egindako batez besteko denbora	13 urte

Udalerri hauetan, honako hau da arduradun politikoen profila: gizona, 44 urtekoa, batez beste 7 urte darama kargu horretan, kirol-arloko titulazio akademikoa du (% 50), kirola egiten du (% 100), eta lotura du edo izan du ordezkatzan duen udalerriko klubaren batekin (% 100) (ikus 39. taula).

39. taula. 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietako arduradun politikoen profila

**50.001 ETA 100.000 BIZTANLE BITARTEKO UDALERRIETAKO ARDURADUN POLITIKOEN  
PROFILA. EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018**

ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
KIROL-ARLOKO ARDURADUN POLITIKOA	Kirol-arloko arduradun politikoen batezbesteko adina	44 urte
	Sexua: gizona	% 100
	Kirol-arloko titulazio akademikoak	% 50
	Kirol-arloko zinegotzi lanpostuan egondako batez besteko denbora	7 urte
	Kirol-arloko zinegotzia kirolaria da	% 100
	Kirol-arloko zinegotzia klubei lotuta dago edo egon da	% 100

Tarte horretako udalerrien % 50ek dute aholku-organoa eta Kirolaren Mahaia deitzen diote.

40. taula. 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietako aholku-organoen profila

**50.001 ETA 100.000 BIZTANLE BITARTEKO UDALERRIETAKO AHOLKU-ORGANOEN  
PROFILA. EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018**

ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
KIROL-ARLOKO AHOLKU- ORGANOAK	Kirol-arloko aholku-organok dauzkaten udalerrien ehunekoa	% 50
	Aholku-organoren izena: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirolaren Mahaia</li> </ul>	

### 2.3.4.4. Aldagai teknikoari buruzko datuak, 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietan

41. taula. 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrri-profilaren aldagai teknikoa

#### 50.001 ETA 100.000 BIZTANLE BITARTEKO UDALERRIEN ALDAGAI TEKNIKOAREN PROFILA. EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018

ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
TEKNIKA	Atletismo-pistak mila biztanleko	0,014
	Pabiloi estaliak mila biztanleko	0,037
	Tenis-pistak mila biztanleko	0,13
	Padel-pistak mila biztanleko	0,08
	Fitness-aretoen m <sup>2</sup> -ak mila biztanleko	11,70
	Gimnasia-aretoen m <sup>2</sup> -ak mila biztanleko	33,59
	Areto bakoitzeko spinning-bizikleta kopurua 1.000 biztanleko	0,45
	Ur berodun igerilekuen m <sup>2</sup> -ak mila biztanleko	22,05
	11ko futbol-zelaiak mila biztanleko	0,085
	Belar naturaleko 11ko futbol-zelaiak	% 24
	Belar artifizialeko 11ko futbol-zelaiak	% 76
	Argia duten 11ko futbol-zelaiak	% 100
	5-7ko futbol-zelaiak mila biztanleko	0,15
	Belar naturaleko 5-7ko futbol-zelaiak	% 0
	Belar artifizialeko 5-7ko futbol-zelaiak	% 90
	Argia duten 5-7ko futbol-zelaiak	% 100
	Pilotalekuak mila biztanleko	0,17
	Estalitako pilotalekuak	% 67
	Estali gabeko pilotalekuak	% 33
	Aldagelak mila biztanleko	1
	Bizikleta-bidea edo bidegorria dutela adierazten duten udalerriak	% 100
	Kaleko gimnasioak edo gimnasio bio-osasungarriak dituztela adierazten duten udalerriak	% 100
	Erabilera libreko kirol-instalazio irekiak dituzten udalerriak	% 100

Kaleetan edo parkeetan jarduera fisikoa egiteko jolasak dituzten udalerriak

% 0

Udalerri horiek 0,014 atletismo-pista, 0,037 kiroldegi-pabiloi estali, 0,13 tenis-pista eta 0,08 padel-pista eskaintzen dizkiete beren biztanleei (1.000 biztanleko kalkulaturatuta). Fitness-aretoen 11,70 m<sup>2</sup> eta gimnastika-aretoen 33,59 m<sup>2</sup> dituzte 1.000 biztanleko.

0,45 spinning-bizikleta dituzte areto bakoitzean 1.000 biztanleko. Igerilekuei dagokienez, 22,05 m<sup>2</sup> ur berodun xafla dago 1.000 biztanleko. Futbol-zelaiei erreparatuta, 11ko 0,085 futbol-zelai eta 5-7ko 0,15 futbol-zelai daude eskuragarri. 11ko futbol-zelaiaren % 24k belar naturaleko azalera dute eta ez dago belar naturaleko 5-7ko futbol-zelairik. Aldiz, belar artifizialekoak dira 11ko futbol-zelaiaren % 38 eta 5-7ko futbol-zelaiaren % 25. Argi artifiziala dago 11ko futbol-zelaiaren % 76an eta 5-7ko futbol-zelaiaren % 90ean.

1.000 biztanleko 0,17 pilotaleku daude. Horietatik % 67 estaliak dira eta % 33a estali gabeak. Halaber, aldagela bat dute 1.000 biztanleko.


Kalean edo erabilera libreko instalazio irekietan egiten den kirolari dagokionez udalerri horien % 100ek adierazi dute bidegorria edo bizikletentzako eta oinezkoentzako bidea dutela. Gimnasio bio-osasungarriei edo kaleko gimnasioei dagokienez, tarte horretako udalerrien % 100ek badituzte halako instalazioak. Ez dute adierazi jarduera fisikoa eta kirol-jarduera bultzatzen duen jolasik dutenik. Halaber, udalerrien % 100ek adierazi dute erabilera libreko kirol-instalazioak dituztela hainbat kirol egiteko. Erabilera libreko instalazioen rankinga ageri da 42. taulan.

42. taula. Erabilera libreko instalazioak 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietan

**Udalerriek kirola sustatzeko lagatzen  
dituzten erabilera libreko  
instalazioak**

Erabilera anitzeko pistak  
Pilotalekua  
Skate park-a

### 2.3.4.5. Arduradun teknikoen iritziari buruzko datuak, 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietan




32. grafikoa. 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietako teknikarien iritzia

Udalerrri hauetako teknikariek ez dute uste ereduaren zaharkitzea, lehia pribatua eta irizpideko politiko eza mehatxua direnik. Eta % 50ek uste du instalazioak, baliabide ekonomikoak eta langileak direla kirol-errealitatearen ahulezia.

### 2.3.6. 100.001 biztanletik gorako udalerrriak

Aldagai orokorrean, laginean hautatutako udalerrietako biztanle kopuruari buruzko datuak aipatuko ditugu. Grafikoa



33. grafikoa. 100.001 biztanletik gorako udalerrriak

Kategoria honen datu demografikoen profila 210.973 biztanleko udalerrri bat da.

Udalen hautaketa honetan Euskadiko lau udalerrri sartzen dira. Horiek guztiek 882.097 biztanle hartzen dituzte. Lagineko udalerriek kategoria honen unibertsoaren % 71,75 ordezkatzen dute. Arabak ez du ordezkaritzarik.

### 2.3.6.1. Aldagai ekonomikoari buruzko datuak, 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrietan

Aldagai ekonomikoan, profila 43. taulan agertzen dena da.

43. taula. 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrien profilaren aldagai ekonomikoa

#### 100.001 BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO UDALERRI TIPOEN ALDAGAI EKONOMIKOAREN PROFILA. EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018

ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
EKONOMIKOA	Udalaren aurrekontua	395.736.032,63 €
	Kirol Sailaren aurrekontua	12.791.105,27 €
	1. kapitulua. Langile-gastuak	3.491.792,79 €
	2. kapitulua. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	7.845.554,94 €
	3. kapitulua. Tasengatiko diru-sarrerak eta beste batzuk	6.028.130,88 €
	5. kapitulua. Ondare-sarrerak	2.185.188,37 €
	Kiroleko gastua, guztira	11.337.347,73 €
	Kiroleko sarrerak, guztira	8.213.188,37 €
	Defizita (diru-sarrerak-gastuak)	-3.124.159 €
	Defizitaren ehunekoa, udal-aurrekontuari dagokionez	% 1
	Autofinantzaketaren ehunekoa	% 60
	Kirolean egindako gastuaren ehunekoa, aurrekontu osoari dagokionez	% 3
	Gastua biztanle/urte	53,74 €
	Diru-sarrera biztanle/urte	38,93 €
	Defizita biztanleko	14,81 €
	Ekarpen ekonomikoak - dirulaguntzak	647.015,67 €
	Kirol-ekitaldietara bideratutako ekarpen ekonomikoak	87.057 €
	Dirulaguntza bidezko ekarpen ekonomikoak - aurrekontu osoari dagokionez	% 0,16
	Kirol-ekitaldietara bideratutako ekarpenen ehunekoa, aurrekontu osoari dagokionez	% 0,02
	Kirol-arloan administrazio-emakidaren bat duten udalerrien ehunekoa	% 0




100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrietako batez besteko datuek erakusten dute 395.736.032,63 €-ko aurrekontu orokorra dutela. 12.791.105,27 € Kirol Sailera bideratzen da, hau da, % 3; horietatik 1. Kapituluari, 3.491.792,79 € erabiltzen dira langile-gastuetarako (kirol-aurrekontuaren % 27,2), eta 7.845.554,94 € 2. Kapituluari, mota guztietako ondasun arruntak eta arloak behar bezala funtziona dezan beharrezkoak diren zerbitzuak erosteko, hau da arloaren gastuaren % 61,3.

Halaber, ikusi da kirol-arloak 6.028.130,88 €-ko diru-sarrerak jasotzen dituela 3. kapituluari, zerbitzu publikoak emateagatik eta zerga-tasak ordaintzeagatik kontraprestazio gisa. Azkenik, 5. kapituluari 2.185.188,37 € jasotzen ditu, ondare-errendimenduengatik. Hortik ondorioztatzen da kirol-arloko defizita -3.124.159 €-koa dela; hortaz, autofinantzaketa-ehunekoa % 60koa da.

Kirol-arloan udalerriko herritar bakoitzeko egiten den gastua 53,74€-koa da urtean, eta diru-sarrerara, aldiz, 38,93 €-koa. Beste era batera esanda, herritar bakoitzeko defizita urtean 14,81 €-koa da.

Kirol-arloko defizitak udalaren defizitaren % 1 hartzen du.

Kudeaketa-ereduak



34. grafikoa. 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrietako kudeaketa-eredua

Ikusi da udalerririk guztiek hautatzen dutela zuzeneko kudeaketa-eredua. Kirol-arloko Sozietate Anonimo eta Tokiko Organismo Autonomo eredua erabiltzen dute, Kirolaren Udal Institutuaren forma eta Kiroletako Udal Patronatua formatua.

### 2.3.6.2. Aldagai sozialari buruzko datuak, 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrietan

44. taula. 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerri-profilaren 1. aldagai soziala

#### 100.001 BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO UDALERRIEN ALDAGAI SOZIALAREN PROFILA. EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018

ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
SOZIALA	Kirol-instalazioetako erabiltzaile abonatuak	% 23
	Kirol-instalazioetako gizon abonatuak	% 12
	Kirol-instalazioetako emakume abonatuak	% 11
	0-17 urte bitarteko abonatu guztiak	% 6
	0-17 urte bitarteko gizon abonatuak	% 3
	0-17 urte bitarteko emakume abonatuak	% 3
	18-64 urte bitarteko emakume abonatuak	% 14
	18-64 urte bitarteko gizon abonatu guztiak	% 7
	18-64 urte bitarteko emakume abonatuak	% 7
	65 urte baino gehiagoko abonatu guztiak	% 2
	65 urte baino gehiagoko gizon abonatuak	% 1
	65 urte baino gehiagoko emakume abonatuak	% 1
	Kirol-instalazioetako ikastarogileak	% 8
	Kirol-instalazioetako gizon abonatuaren artean, ikastarogileak	% 3
	Kirol-instalazioetako emakume abonatuaren artean, ikastarogileak	% 5
	0-17 urte bitarteko ikastarogileak	% 3
	0-17 urte bitarteko gizon ikastarogileak	% 1,4
	0-17 urte bitarteko emakume ikastarogileak	% 1,6
	18-64 urte bitarteko ikastarogileak	% 4
	18-64 urte bitarteko gizon ikastarogileak	% 2
18-64 urte bitarteko emakume ikastarogileak	% 2	

65 urte baino gehiagoko ikastarogileak	% 0,9
65 urte baino gehiagoko gizon ikastarogileak	% 0,2
65 urte baino gehiagoko emakume ikastarogileak	% 0,7
Kirol-instalazioetako erabiltzaile federatuak	% 1
Kirol egokitua egiteko eskaintza 1.000 biztanleko	0,001
Desgaitasuna duten pertsonentzako jarduerak sustatzen dituzten udalerrriak	% 100
Instalazioak erabiltzen dituzten klubak, Espainiako klubei dagokienez	% 0,14
Instalazioak erabiltzen dituzten klubak, EAEko klubei dagokienez	% 3

Kategoria honetan udaleko kirol-zerbitzuetara abonatuta dauden erabiltzaileen batezbestekoa biztanleen % 23koa da. Horietatik % 12 gizonak dira % 11 emakumeak.

Azterlan honetan, kirol-eskaintza zein adin-tarteri eskaintzen zaion ikusi nahi izan da, eta ondorioztatu da biztanleria gazteenari % 6 eskaintzen zaiola, 18 eta 64 urte artekoiei % 14, eta 65 urtetik gorakoiei % 2.

Bestalde, biztanleriaren % 8k egiten ditu kirol-jarduerak ikastaro formatuan. Ikastaro horien % 3 adingabeei daude zuzenduta; % 4, berriz, 18 eta 64 urte bitartekoiei eta % 0,9 bukatzeko, 65 urtetik gorakoiei.

Kirol-instalazioak erabiltzen dituzten klub federatuei dagokienez, kirolariek biztanleriaren % 1 ordezkatzen dute. Halaber, adierazi behar da udalerrri-tipo horiek lankidetzan aritzen direla Espainiako klubak % 0,14rekin eta Euskadiko klubak % 3rekin. Kirol-klubek udaleko kirol-instalazioei ematen dieten erabilerari dagokionez, honako hauek daude rankingaren gailurrean: futbola, saskibaloia, eskubaloia, arraunketa, pilota, areto-futbola, gimnastika erritmikoa, waterpoloa, kirol egokitua, igeriketa, atletismoa eta arku-tiroketa (kasuen % 100). Jarraian, beisbola, borroka, belar-hockeya eta patin-hockeya daude (% 66) eta gainerako modalitateak (% 33) (ikus 45. taula).

45. taula. Kirol-modalitateak 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrietan

**100.000 BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO UDALERRIETAKO KIROL-  
INSTALAZIOETAN KLUBEK EGITEN DITUZTEN KIROL-MODALITATEEN  
RANKINGA**

<b>KIROLA</b>	<b>ANTOLATZEN DUTEN UDALERRIEN EHUNEKOA</b>
<i>Futbola</i>	% 100
<i>Saskibaloia</i>	% 100
<i>Eskubaloia</i>	% 100
<i>Arraunketa</i>	% 100
<i>Pilota</i>	% 100
<i>Areto-futbola</i>	% 100
<i>Gimnastika erritmikoa</i>	% 100
<i>Waterpoloa</i>	% 100
<i>Kirol egokitua</i>	% 100
<i>Igeriketa</i>	% 100
<i>Atletismoa</i>	% 100
<i>Arku-tiroa</i>	% 100
<i>Beisbola</i>	% 66,3
<i>Borroka</i>	% 66,3
<i>Belar-hockeya</i>	% 66,3
<i>Patin-hockeya</i>	% 66,3

<i>Ping-ponga</i>	% 33,3
<i>Tenisa</i>	% 33,3
<i>Boxeoa</i>	% 33,3
<i>Frontenisa</i>	% 33,3
<i>Irristaketa artistikoa</i>	% 33,3
<i>Abiadurako irristaketa</i>	% 33,3
<i>Linea-irristaketa</i>	% 33,3
<i>Bola-jokoa</i>	% 33,3
<i>Mendia</i>	% 33,3
<i>Petanka</i>	% 33,3
<i>Xakea</i>	% 33,3
<i>Ehiza</i>	% 33,3
<i>Triatloia</i>	% 33,3
<i>Softbola</i>	% 33,3
<i>Izotz-hockeya</i>	% 33,3
<i>Curlinga</i>	% 33,3
<i>Aikidoa</i>	% 33,3
<i>Padela</i>	% 33,3

Desgaitasuna duten pertsonen dagokienez, kategoria honetako udalerrien % 100ek eskaintzen dizkiete jarduerak.

46. taula. 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrri-profilaren 2. aldagai soziala

**100.001 BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO UDALERRIEN ALDAGAI SOZIALAREN PROFILA. EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018**


ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
SOZIALA	Eskainitako kirol-jardueren kopurua	94
	0-17 urte bitartekoei eskainitako kirol-jarduerak	% 30,8
	18-64 urte bitartekoei eskainitako kirol-jarduerak	% 65,9
	65 urte baino gehiagokoei eskainitako kirol-jarduerak	% 4,2
	Beren kirol-jarduerari buruzko azterketak egiten dituzten udalerrriak	% 33,3
	Beste sail batzuekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerrriak	% 100
	Berdintasun Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerrriak	% 100
	Integrazio Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerrriak	% 33,3
	Gizarte Zerbitzuen Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerrriak	% 100
	Droga-mendekotasun Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerrriak	% 0
	Osasun Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerrriak	% 66,6
	Hezkuntza Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerrriak	% 100
	Hirigintza Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerrriak	% 66,6
	Ingurumen Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerrriak	% 33,3
	Turismo Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerrriak	% 100
	Osakidetzarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerrriak	% 66,6
	Aldundiarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerrriak	% 100
	Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerrriak	% 66,6
	Kirol-arloko enpresa pribatuekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerrriak	% 0
Herritarren parte-hartzea partaidetza-kanalen bidez sustatzen duten udalerrriak	% 100	

Herritarren udal-zerbitzuekiko gogobetetze-maila neurtzen duten udalerriak	% 66,6
Herritarren kirolarekiko gogobetetze-maila neurtzen duten udalerriak	% 33,3
Kirolik egiten ez dutenek zergatik egiten ez duten neurtzen duten udalerriak	% 33,3
Biztanle sedentarioak kirola egitera erakartzeko neurriak garatzen dituzten udalerriak	% 66,6
Kirol-arloan familientzako orientazio- eta akonpainamendu-zerbitzua duten udalerriak	% 33,3
Beren herritarrei ondoko udalerriko kirol-zerbitzua erabiltzeko aukera ematen dieten udalerriak	% 33,3
Modu batera edo bestera udalerrien partaidetza duten kirol-ekitaldien batezbestekoa	153

100.000 biztanle baino gehiagoko udalerriek batez beste 94 jarduera eskaintzen dizkiete herritarrei. Horietatik % 30,8 dira 0 eta 17 urte bitartekoentzat; % 65,9, berriz, 18 eta 64 urte bitartekoentzat; eta, gainerakoak, % 4,2, 65 urtetik gorakoentzat.

Udalerrien % 33,3k adierazi dute beren udal-errealitatearen kirol-jarduerari buruzko azterketa egiten dutela.

Kirol-zerbitzuen % 100ek adierazi dute beren udal-antolaketa sailekin edo beste entitate batzuekin harremanak dituztela. Udaleko beste sail batzuekin edo beste erakunde batzuekin harremana duten udalerrien laginak 35. grafikoan adierazitako moduan interakzionatzen du.




35. grafikoa. 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrien erakunde-harremanak

Kirolean, biztanleria-tarte honetako udalerrien % 100ek sustatzen du herritarren parte-hartzea, kirol-zerbitzuen bilakaerari buruz duten iritzia eman dezaten. Halaber, udalerrien % 66,6k baloratzen dute herritarrek udal-zerbitzuekiko duten gogobetetze-maila Aldiz, herritarrek beren kirol-jarduerarekiko duten gogobetetze-maila pertsonala baloratzen duten galdetu zitzaizenean, lagineko udalerrien % 33,3k bakarrik erantzun zuten baietz.

Kategoria honetako udalen % 33,3k aztertzen dute kirolik egiten ez dutenek zergatik ez duten egiten. Gainera, % 66,6k neurriak hartzen dituzte herritar sedentarioak kirola egitera erakartzeko.


Honako hauek dira udalerrri hauek erabiltzaileei eskaintzen dizkieten kanalak kirol-zerbitzuari buruzko iritzia eman dezaten: kiroldegiei buruzko txostenak, aurrekontu parte-hartzaileetan proposamenak egiteko aukera, Eskola Kirolaren Mahaia eta Kirolaren Aholku Kontseilua.



36. grafikoa. 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrietako tasak erabiltzaileen profilaren arabera

Udaleko kirol-instalazioetarako sarbideei eta kirol-eskaintzari aplikatzen dizkieten tasak behartzean (ikus 36. grafikoa), tarte horretako udalerrien % 66,6k abonatuak edo abonatu gabeko erabiltzaileak bereizten dituzte, eta honako irizpide hauek hartzen dituzten aintzat abonatuaren prezioa zehazteko: udalerrian erroldatuta egotea edo ez egotea (udalerrien % 100ek), DSBEaren jasotzaile izatea (% 100ek), erretiratuak edo pentsiodunak izatea (% 100ek), desgaitasuna duten pertsonak izatea (% 33,3k), kirol-instalazioak erabiltzen dituzten klubetako kirolariak izatea (% 33,3k), eta kategoria honetako udalerrri bakar batek ere ez die garrantzirik ematen sarbide-tarifa kalkulatzeko eliteko kirolaritzat hartzen diren pertsonen.

## 100.001 BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO UDALERRIETAKO KIROL-EKITALDIAK



37. grafikoa. 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrietako kirol-ekitaldien kudeaketa

100.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan batez beste 153 ekitaldi egiten dira urtean. Eta kirol-ekitaldi horietako parte-hartzearen batezbestekoak adierazten du tarte horretako udalerriek 6 ekitaldi antolatzen dituztela urtean, 74 babesten dituztela eta desgaitasuna duten pertsonentzat urtean 6 ekitaldi antolatzen dela (ikus 37. grafikoa).

Udalerriek ekitaldiak egiteko hautatzen dituzten kirol-modalitateei dagokienez, futbola, saskibaloia, eskubaloia, korrika egiteko jarduerak (herri-krosa), pilota (bere modalitate guztietan) eta areto-futbola daude rankingaren goialdean. Izan ere, udalerrien % 100ek adierazi dute kirol-espezialitate horietako ekitaldiren bat antolatzen dutela. (ikus 47. taula)

47. taula. 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrietako ekitaldietako kirol-modalitateak

### 100.000 BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO UDALERRIETAN ANTOLATZEN DIREN KIROL-EKITALDIEN RANKINGA


KIROLA	ANTOLATZEN DUTEN UDALERRIEN EHUNEKOA
<i>Futbola</i>	% 100
<i>Saskibaloia</i>	% 100
<i>Eskubaloia</i>	% 100
<i>Pilota</i>	% 100
<i>Running-a</i>	% 100
<i>Areto-futbola</i>	% 100
<i>Karatea</i>	% 66,6
<i>Gimnastika erritmikoa</i>	% 66,6
<i>Errugbia</i>	% 66,6
<i>Atletismoa</i>	% 66,6
<i>Igeriketa</i>	% 66,6
<i>Ping-ponga</i>	% 33,3
<i>Herri-kirola</i>	% 33,3
<i>Irristaketa artistikoa</i>	% 33,3
<i>Arku-tiroa</i>	% 33,3
<i>Orientazioa</i>	% 33,3
<i>Automobilismoa</i>	% 33,3
<i>Txirrindularitza</i>	% 33,3

<i>Linea-irristaketa</i>	% 33,3
<i>Taekwondo</i>	% 33,3
<i>Dantza</i>	% 33,3
<i>Eskalada</i>	% 33,3
<i>Menditraila</i>	% 33,3
<i>Boxeo</i>	% 33,3
<i>Linea-hockeya</i>	% 33,3
<i>Eskrima</i>	% 33,3
<i>Tenisa</i>	% 33,3
<i>BTT</i>	% 33,3
<i>Kick Boxing-a</i>	% 33,3
<i>Dantza modernoa</i>	% 33,3
<i>Dardoak</i>	% 33,3
<i>Kalistenia</i>	% 33,3
<i>Defentsa pertsonala</i>	% 33,3
<i>Izotz-irristaketa</i>	% 33,3
<i>Arraunketa</i>	% 33,3
<i>Tiroketa olinpikoa</i>	% 33,3
<i>Bela</i>	% 33,3
<i>Errugbia</i>	% 33,3
<i>Heziki</i>	% 33,3

### 2.3.6.3. Langileen aldagaiari buruzko datuak, 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrietan

Udalerri-talde horrek mila biztanleko 0,88 langile behar ditu, hau da, kirol-zerbitzua garatzeko 186 langile. Horietatik % 55 gizonak dira eta % 45a emakumeak.

#### 100.001 BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO UDALERRIETAKO LANGILEEN EHUNEKOA, SEXUAREN ARABERA



47. grafikoa. 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrietako langileak sexuaren arabera



Udalerrri-talde honetan, honako hau da arduradun teknikoaren profila: gizona, 49 urtekoa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziaduna, kirol-masterren batean prestakuntza du, 3 urte eta erdi daramatza kirol-arloko teknikari arduradun eta 15 urte udalerrian. (ikus 48. taula)

48. taula. 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrietako arduradun teknikoaren profila

**100.001 BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO UDALERRIETAKO ARDURADUN TEKNIKOAREN PROFILA. EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018**

ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
KIROL-ARLOKO ARDURADUN TEKNIKO NAGUSIA	LZn sartuta dago	% 66,66
	Kirol-arloko arduradun tekniko nagusiaren batezbesteko adina	49 urte
	Sexua: gizona	% 66,66
	Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziaduna	% 100
	Masterren bat egin du	% 100
	Kirol-arloko arduradun lanpostuan egondako batez besteko denbora	3 urte eta erdi
	Udalerrian lan egindako batez besteko denbora	15 urte

Udalerrri-talde honetan, honako hau da arduradun politikoen profila: gizona, 48 urtekoa, batez beste 2 urte darama kargu horretan, kirol-arloko titulazio akademikoa du (% 66,6), kirola egiten du (% 66,6) eta lotura du edo izan du ordezkatzeko duen udalerriko klubean batekin (% 33,3) (ikus 49. taula).

49. taula. 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrietako arduradun politikoen profila

**100.001 BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO UDALERRIETAKO ARDURADUN POLITIKOAREN PROFILA. EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018**

ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
KIROL-ARLOKO ARDURADUN POLITIKOA	Kirol-arloko arduradun politikoen batezbesteko adina	48 urte
	Sexua: gizona	% 66,66
	Kirol-arloko titulazio akademikoak	% 66,66
	Kirol-arloko zinegotzi lanpostuan egondako batez besteko denbora	2 urte
	Kirol-arloko zinegotzia kirolaria da	% 66,66
	Kirol-arloko zinegotzia klubei lotuta dago edo egon da	% 33,33

100.000 biztanle baino gehiagoko udalerrien % 66,6k adierazi dute kirol-arloko aholku-organoak dituztela. Eta Kirolaren Mahaia eta Kirolaren Aholku Kontseilua deitzen diete.

50. taula. 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrietako aholku-organoen profila

**100.001 BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO UDALERRIETAKO AHOLKU-ORGANOEN  
PROFILA. EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018**

ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
KIROL-ARLOKO AHOLKU- ORGANOAK	Kirol-arloko aholku-organoak dauzkaten udalerrien ehunekoa	% 66,66
	Aholku-organoaren izena: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirolaren Mahaia</li> <li>• Kirolaren Aholku Kontseilua</li> </ul>	

**2.3.6.4. Aldagai teknikoari buruzko datuak 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrietan**

51. taula. 100.000 biztanle baino gehiagoko udalerrien profilaren aldagai teknikoa

**100.001 BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO UDALERRI TIPOAREN ALDAGAI TEKNIKOAREN PROFILA.  
EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018**

ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
TEKNIKA	Atletismo-pistak mila biztanleko	0,01
	Pabiloi estaliak mila biztanleko	0,04
	Tenis-pistak mila biztanleko	0,06
	Padel-pistak mila biztanleko	0,07
	Fitness-aretoen m <sup>2</sup> -ak mila biztanleko	9
	Gimnasia-aretoen m <sup>2</sup> -ak mila biztanleko	15
	Areto bakoitzeko spinning-bizikleta kopurua 1.000 biztanleko	0,10
	Ur berodun igerilekuen m <sup>2</sup> -ak mila biztanleko	16
	11ko futbol-zelaiak mila biztanleko	0,04
	Belar naturaleko 11ko futbol-zelaiak	% 11
	Belar artifizialeko 11ko futbol-zelaiak	% 89
	Argia duten 11ko futbol-zelaiak	% 100
	5-7ko futbol-zelaiak mila biztanleko	0,01
	Belar naturaleko 5-7ko futbol-zelaiak	% 0
	Belar artifizialeko 5-7ko futbol-zelaiak	% 100
	Argia duten 5-7ko futbol-zelaiak	% 100

Pilotalekuak mila biztanleko	0,10
Estalitako pilotalekuak	% 38
Estali gabeko pilotalekuak	% 62
Aldagelak mila biztanleko	0,27
Bizikleta-bidea edo bidegorria dutela adierazten duten udalerrriak	% 100
Kaleko gimnasioak edo gimnasio bio-osasungarriak dituztela adierazten duten udalerrriak	% 100
Erabilera libreko kirol-instalazio irekiak dituzten udalerrriak	% 100
Kaleetan edo parkeetan jarduera fisikoa egiteko jolasak dituzten udalerrriak	Daturik ez

Udalerrri horiek, 0,01 atletismo-pista, 0,04 kiroldegi-pabiloi estali, 0,06 tenis-pista eta 0,07 padel-pista eskaintzen dizkiete beren biztanleei (1.000 biztanleko kalkulaturatuta). Fitness-aretoen 9 m<sup>2</sup> eta gimnastika-aretoen 15 m<sup>2</sup> dituzte 1.000 biztanleko.

0,10 spinning-bizikleta dituzte areto bakoitzean 1.000 biztanleko. Igerilekuei dagokionez, 16 m<sup>2</sup> ur berodun xafla dago 1.000 biztanleko. Futbol-zelaiei erreparatuta, 11ko 0,04 futbol-zelai eta 5-7ko 0,01 futbol-zelai daude eskuragarri. 11ko futbol-zelaiaren % 11k belar naturaleko azalera dute eta ez dago belar naturaleko 5-7ko futbol-zelairik. Aldiz, belar artifizialekoak dira 11ko futbol-zelaiaren % 89 eta 5-7ko futbol-zelaiaren % 100. Argi artifiziala dago 11ko futbol-zelaiaren % 100ean eta 5-7 futbol-zelaiaren % 100ean.

1.000 biztanleko 0,10 pilotaleku daude. Horietatik % 38 estaliak dira eta % 62a estali gabeak. 1.000 biztanleko 0,27 aldagela dituzte.


Kalean edo erabilera libreko instalazio irekietan egiten den kirolari dagokionez udalerrri horien % 100ek adierazi dute bidegorria edo bizikletentzako eta oinezkoentzako bidea dutela. Gimnasio bioosasungarriei edo kaleko gimnasioei dagokionez, tarte horretako udalerrrien % 100ek badituzte halako instalazioak. Jarduera fisikoa eta kirol-jarduera bultzatzen duten jolasei dagokionez, udalerrri hauek ez daturik aurkeztu. Halaber, udalerrrien % 100ek adierazi dute erabilera libreko kirol-instalazioak dituztela hainbat kirol egiteko. Erabilera libreko instalazioen rankinga ageri da 52. taulan.

52. taula. Erabilera libreko instalazioak 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrrietan

**Udalerrriek kirola sustatzeko lagatzen  
dituzten erabilera libreko  
instalazioak**

Tuta  
Petanka  
Skate-pista  
Kalba  
5-7ko futbol-kantxa  
Saskibaloiko-kantxa  
Ping-pong pista  
Pilotalekua  
Bola-jokorako pista  
Rokodromoa

**2.3.6.5. Arduradun teknikoen iritziari buruzko datuak, 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrietan**



39. *grafikoa. 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrietako teknikarien iritzia*

Udallerri tipo honetako arduradun teknikoentzat, honako hauek dira ahuleziak: % 33,3rentzat, instalazioak; % 66,6rentzat, baliabide ekonomikoak eta % 66,6rentzat, langileak. Mehatxutzat hartzen dute, berriz, irizpide politiko eza (% 33,3).

## 2.4 EZTABAIDA

Aurreko kapituluko datuek udalerriek duten jokabidearen ikuspegi orokorra ematen digute, eta horri esker, posible da beren jarduteko modua aztertzea, tokiko erakunde-multzoaren kategoriaren arabera.

Hemendik aurrera, atal honetan, datu horien analisia egingo dugu; horretarako, datuen arteko aldeak aztertuko ditugu, kategoriaren arabera.

Aurreko paragrafoetan aipatu dugu udal-administrazioen errealitateak bilakaera heterogeneoa izango duela, eta hori udal-kirolean ere islatzen da. Hainbat adierazle aztertuta, argi geratzen da alde nabarmenak daudela udalerrien artean.

Azterlan honen helburua da udal-kirolaren errealitatearen berri ematea.

Bardach-en aburuz (1998), politika publikoen analisiak eztabaidagai eta aztergai izan behar du: *“arazoa zehaztea; kirolaren esparruan aintzat hartu beharreko inguruabarrak eta testuingurua finkatzea; informazioa biltzea. Urrats hori funtsezkoa da eta politika publikoak analizatzeko, ebaluatzeko eta politika publikoak proposatzeko diagnostikoei lotuta dago...”*.

Politika publikoak egiteko, hainbat urrats egin behar dira. Horietako bat ebaluazioa da, azterketa. Kirola ez da salbuespen.

Bardach-ek (1998) behin eta berriz esaten du alternatibak eraikitzeo eta irizpideak hautatzeko beharra dagoela. Horrek berekin dakar zenbait agertoki ezberdin planteatu, proiektatu, erkatu eta eztabaidatu behar direla.

Gauzak horrela, ebaluazioa da erabakiak hartzeko erabiltzen den inputetako bat. Horixe da, hain zuzen, azterlanaren atal honen xedea: Euskadiko udal-politiken jarduteko moduari buruzko informazioa ematen duten datuen analisiaren berri ematea, gehien komeni diren irtenbideak har daitezen.

Jakintzat ematen da datuak aztertzeak ez dituela kirolaren kudeaketa publikoak dituen arazo guztiak konponduko eta, berez, ez dituela zientifikoki egiazkoak diren irtenbideak emango berak bakarrik. Horren aurrean, tokiko erakundeek bide beretik jarraitzeko edo norabidea aldatzeko erabakiak hartu behar dituzte, eta hori aztertutakoa, teknikarien ekarpena eta nahi politikoak eztabaidatuz egin behar da

## 2.4.1. Aldagai ekonomikoaren konparazioa, udalerrriaren kategoriaren arabera

53. taula. Aldagai ekonomikoaren konparazioa, udalerrriaren kategoriaren arabera

Aldagaia	Adierazlea	1etik 5.000ra	5.001etik 20.000ra	20.001etik 50.000ra	50.001etik 100.000ra	100.001 baino +	Udalerrri tipoa
		Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa
<i>Orokorra</i>	Biztanleak	3.612	13.877	35.754	70.066	210.973	66.856
<i>Ekonomikoa</i>	Udalaren aurrekontua	4.988.763,18 €	18.996.405 €	49.957.306 €	87.113.553 €	395.736.032,63 €	111.358.411,96 €
	Kirol Sailaren aurrekontua	613.673,41 €	1.365.659 €	3.221.909 €	5.529.176,28 €	12.791.105,27 €	4.704.304,59 €
	1. kapitulua. Langile-gastuak	79.787,70 €	170.962 €	932.528 €	1.071.108,49 €	3.491.792,79 €	1.149.235,80 €
	2. kapitulua. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	354.367,37 €	654.886 €	1.828.356 €	3.457.478,89 €	7.845.554,94 €	2.828.128,64 €
	3. kapitulua. Tasengatiko diru-sarrerak eta beste batzuk	109.926,73 €	365.686 €	1.463.410 €	5.576.933,76 €	6.028.130,88 €	2.708.817,47 €
	5. kapitulua. Ondare-sarrerak	0 €	110.055 €	12.777 €	33.973,21 €	2.185.188,37 €	468.398,72 €
	Kiroleko gastua, guztira	424.181,61 €	766.313 €	2.760.884 €	4.528.687,38 €	11.337.347,73 €	3.963.482,74 €
	Kiroleko sarrerak, guztira	96.185,89 €	392.471 €	1.476.187 €	2.805.453,49 €	8.213.188,37 €	2.596.697,15 €
	Defizita (diru-sarrerak-gastuak)	-327.996 €	-373.841 €	-1.284.697 €	-1.723.234 €	-3.124.159 €	-1.366.785,40 €
	Defizitaren ehunekoa, udal-aurrekontuari dagokionez	% 7	% 2	% 3	% 2	% 1	% 3
	Autofinantzaketaren ehunekoa	% 23	% 51	% 53	% 55	% 60	% 48
	Kirolean egindako gastuaren ehunekoa, aurrekontu osoari dagokionez	% 12	% 7	% 6	% 6	% 3	% 7
	Gastua biztanle/urte	117,42 €	55,22 €	77,22 €	64,64 €	53,74 €	73,65 €
	Diru-sarrera biztanle/urte	26,63 €	28,28 €	41,29 €	40,04 €	38,93 €	35,03 €
	Defizita biztanleko	90,80 €	26,94 €	35,93 €	24,59 €	14,81 €	38,61 €
	Ekarpen ekonomikoak - dirulaguntzak	25.476,01 €	145.454 €	304.571 €	863.664 €	647.015,67 €	397.236,14 €
	Kirol-ekitaldietara bideratutako ekarpen ekonomikoak	11.501,78 €	44.322 €	45.816 €	50.000 €	87.057 €	47.739,36 €

Dirulaguntza bidezko ekarpenen ehunekoa, aurrekontu osoari dagokionez	% 0,51	% 0,77	% 0,61	% 0,99	% 0,16	% 0,61
Kirol-ekitaldietara bideratutako ekarpenen ehunekoa, aurrekontu osoari dagokionez	% 0,23	% 0,23	% 0,1	% 0,06	% 0,02	% 0,13
Administrazio-arloko kirol-emakida duten udalerrien ehunekoa	% 50	% 27	% 0	% 50	% 0	% 25



Kirolera bideratutako diru kopurua aztertuta, ikusten da alde nabarmena dagoela biztanle kopuru txikiena duten udalerriek eta gainerako udalerriek egiten duten inbertsioaren artean. Izan ere, 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerriek aurrekontu orokorren % 12 inbertitzen dute kirolean, eta gainerako kategorietan, aldiz, inbertsio hori % 3 eta % 7 bitartekoa da.

Bestalde, kirol-zerbitzuen autofinantzaketa alderantziz proportzionala da aurreko kasuarekiko: 5.001 herritar baino gehiago dituzten udalerrien kategoria guztietan autofinantzaketa % 53 eta % 60 artekoa, eta, aldiz, batezbestekoa % 23koa da udalerrri txikiagoetan.

Aurreko paragrafoetan adierazitakotik ondorioztatu behar da 1 eta 5.000 biztanle arteko udalerriek diru gehiago bideratu behar dutela beren aurrekontu orokorretatik kirolera, zerbitzu berbera ematearen truke diru gutxiago jasotzen dutelako. Gauzak horrela, gastua diru-sarrera baino handiagoa da.

Kirola ekitaldien antolaketaren bidez sustatzeari dagokionez, udalerrri txikienei hurrengo kategoriako udalerrriak gehitzen zaizkie; hau da, 5.001 biztanletik 20.000 biztanle arteko udalerrriak. Beste modu batera esanda, udalerrri txikiak biltzen dituzten bi kategoriek ehuneko handiagoa bideratzen dute kontzeptu horretara udalerrri handiagoek baino. Zehazki, udalerrri txikiak aurrekontuaren % 0,23 bideratzen dute ekitaldietara eta gainerakoek, berriz, % 0,02 eta % 0,1 artean.

Udalerrriko herritarren artean kirola sustatzeko egiten den beste gastu bat ekitaldi horiek antolatzen dituzten erakundeei laguntza ekonomikoak ematea da. Kasu horretan, alderik nabarmenena biztanle kopuru handiena duten udalerrrietan antzeman daiteke; zehazki, 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrrien kategorian % 0,16koa da gastua, eta gainerako kategorietan, ostera, aurrekontu-aplikazioaren % 0,50etik gorakoa da.

## 2.4.2. Aldagai sozialaren konparazioa, udalerraren kategoriaren arabera

54. taula. Aldagai sozialaren konparazioa, udalerraren kategoriaren arabera

Aldagaia	Adierazlea	1etik 5.000ra	5.001etik 20.000ra	20.001etik 50.000ra	50.001etik 100.000ra	100.001 baino +	Udalerrri tipoa
		Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa
Orokorra	Biztanleak	3.612	13.877	35.754	70.066	210.973	66.856
Soziala	Kirol-instalazioetako erabiltzaile abonatuak	% 25	% 31	% 33	% 26	% 23	% 28
	Kirol-instalazioetako gizon abonatuak	% 13	% 15	% 16,3	% 14	% 12	% 14
	Kirol-instalazioetako emakume abonatuak	% 12	% 15	% 16,7	% 12	% 11	% 13
	0-17 urte bitarteko abonatu guztiak	% 6	% 7	% 8	% 7	% 6	% 7
	0-17 urte bitarteko gizon abonatuak	% 3	% 3,6	% 4,7	% 4	% 3	% 4
	0-17 urte bitarteko emakume abonatuak	% 3	% 3,4	% 3,7	% 3	% 3	% 3
	18-64 urte bitarteko emakume abonatuak	% 13,83	% 15	% 14	% 15	% 14	% 14
	18-64 urte bitarteko gizon abonatu guztiak	% 7,34	% 7	% 7	% 8	% 7	% 7
	18-64 urte bitarteko emakume abonatuak	% 6,49	% 8	% 7	% 8	% 7	% 7
	65 urte baino gehiagoko abonatu guztiak	% 2	% 2	% 2	% 4	% 2	% 2
	65 urte baino gehiagoko gizon abonatuak	% 1	% 1	% 1	% 2	% 1	% 1
	65 urte baino gehiagoko emakume abonatuak	% 1	% 1	% 1	% 2	% 1	% 1
	Kirol-instalazioetako ikastarogileak	% 20,6	% 18	% 4	% 7	% 8	% 12
	Kirol-instalazioetako gizon abonatuarten, ikastarogileak	% 8,4	% 7	% 3	% 5	% 3	% 5
	Kirol-instalazioetako emakume abonatuarten, ikastarogileak	% 12,2	% 11	% 1	% 2	% 5	% 6
	0-17 urte bitarteko ikastarogileak	% 5	% 4	% 0,9	Daturik ez	% 3	% 3
	0-17 urte bitarteko gizon ikastarogileak	% 3	% 2	% 0,4	Daturik ez	% 1,4	% 2
	0-17 urte bitarteko emakume ikastarogileak	% 2	% 3	% 0,5	Daturik ez	% 1,6	% 2
	18-64 urte bitarteko ikastarogileak	% 13	% 10	% 2	Daturik ez	% 4	% 7
	18-64 urte bitarteko gizon ikastarogileak	% 5	% 4	% 0,8	Daturik ez	% 2	% 3
	18-64 urte bitarteko emakume ikastarogileak	% 8	% 7	% 1,2	Daturik ez	% 2	% 5
	65 urte baino gehiagoko ikastarogileak	% 2	% 1	% 0,3	Daturik ez	% 0,9	% 1
	65 urte baino gehiagoko gizon ikastarogileak	% 1	% 0,3	% 0,03	Daturik ez	% 0,2	% 0,4
65 urte baino gehiagoko emakume ikastarogileak	% 1	% 1	% 0,27	Daturik ez	% 0,7	% 1	
Kirol-instalazioetako erabiltzaile federatuak	% 5	% 2	% 2	% 6	% 1	% 3	
Kirol egokitua egiteko eskaintza 1.000 biztanleko	0,14	0,08	0,00003	0,01	0,001	0,05	

Desgaitasuna duten pertsonentzako jarduerak sustatzen dituzten udalerrriak	% 37,5	% 36	% 40	% 100	% 100	% 63
Instalazioak erabiltzen dituzten klubak, Espainiako klubei dagokienez	% 0,006	% 0,02	% 0,03	% 0,04	% 0,14	% 0,05
Instalazioak erabiltzen dituzten klubak, EAEko klubei dagokienez	% 0,05	% 0,35	% 0,72	% 0,89	% 3	% 1

Aldagaia	Adierazlea	1etik 5.000ra	5.001etik 20.000ra	20.001etik 50.000ra	50.001etik 100.000ra	100.001 baino +	Udalerrri tipoa
		Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa
Orokorra	Biztanleak	3.612	13.877	35.754	70.066	210.973	66.856
Soziala	Eskainitako kirol-jardueren kopurua	16	34	105	Daturik ez	94	62
	0-17 urte bitartekoei eskainitako kirol-jarduerak	% 22,2	% 25	% 42	Daturik ez	% 30,8	% 30
	18-64 urte artekoei eskainitako kirol-jarduerak	% 55,5	% 59	% 54	Daturik ez	% 65,9	% 59
	65 urte baino gehiagokoei eskainitako kirol-jarduerak	% 22,2	% 15	% 4	Daturik ez	% 4,2	% 11
	Beren kirol-jarduerari buruzko azterketak egiten dituzten udalerrriak	% 12,5	% 55	% 20	% 50	% 33,3	% 34
	Beste sail batzuekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerrriak	% 62,5	% 27	% 100	% 100	% 100	% 78
	Berdintasun Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerrriak	% 62,5	% 91	% 100	% 100	% 100	% 91
	Integrazio Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerrriak	% 25	% 45	% 40	% 50	% 33,3	% 39
	Gizarte Zerbitzuen Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerrriak	% 25	% 73	% 80	% 100	% 100	% 76
	Droga-mendekotasun Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerrriak	% 37,5	% 55	% 20	% 50	% 0	% 33
	Osasun Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerrriak	% 87,5	% 45	% 40	% 50	% 66,6	% 58
	Hezkuntza Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerrriak	% 37,5	% 91	% 60	% 50	% 100	% 68
Hirigintza Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerrriak	% 25	% 55	% 60	% 100	% 66,6	% 61	

Ingurumen Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 25	% 36	% 60	% 50	% 33,3	% 41
Turismo Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 37,50	% 45	% 45	% 50	% 100	% 56
Osakidetzarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 75	% 73	% 100	% 100	% 66,6	% 83
Aldundiarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 75	% 91	% 20	% 100	% 100	% 77
Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 50	% 73	% 20	% 50	% 66,6	% 52
Kirol-arloko enpresa pribatuekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 0	% 18	% 20	% 100	% 0	% 28
Herritarren parte-hartzea partaidetza-kanalen bidez sustatzen duten udalerriak	% 37,5	% 55	% 80	% 50	% 100	% 65
Herritarren udal-zerbitzuekiko gogobetetze-maila neurtzen duten udalerriak	% 37,5	% 64	% 80	% 100	% 66,6	% 70
Herritarren kirolarekiko gogobetetze-maila neurtzen duten udalerriak	% 25	% 0	% 0	% 50	% 33,3	% 22
Kirol-egiten ez dutenek zergatik egiten ez duten neurtzen duten udalerriak	% 12,5	% 18	% 0	% 0	% 33,3	% 13
Biztanle sedentarioak kirola egitera erakartzen dituzten udalerriak	% 50	% 64	% 60	% 50	% 66,6	% 58
Kirol-arloan familientzako orientazio- eta akonpainamendu-zerbitzua duten udalerriak	% 0	% 36	% 40	% 0	% 33,3	% 22
Beren herritarrei ondoko udalerriko kirol-zerbitzua erabiltzeko aukera ematen dieten udalerriak	% 75	% 55	% 40	% 0	% 33,3	% 41
Modu batera edo bestera udalerrien partaidetza duten kirol-ekitaldien batezbestekoa	11	50	52	386	153	130
Eskainitako kirol-jardueren kopurua	16	34	105	Daturik ez	94	62

Aldagai sozialean, udaleko kirol-zerbitzuetara abonatu dauden herritarren kopurua % 23 ingurukoa da 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrien kategorian, eta ehuneko hori % 33ra ere iristen da 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrien kategorian. Udalerri-kategoria guztietan dira gehiago gizon abonatuak emakume abonatuak baino, salbuespen bakarrarekin: 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrietan; bertan, kontrakoa gertatzen da. Edozein kasutan, kategoria bakarrean ere ez da esanguratsua gizon eta emakume abonatuaren arteko aldea.

Puntu honetan, Kirol Sailak bere instalazioetan artatzen dituen erabiltzaileen adinari buruzko ohar bat egin behar da. Tokiko erakunde guztietan geratu da agerian 18 eta 64 urte bitarteko adin-tartea dela artatuena. Are gehiago, adin-tarte horri egindako eskaintzaren batezbestekoa 0 eta 17 urte bitartekoei egindako eskaintzaren bikoitza da. Oso atzean geratzen da 65 urte baino gehiagokoen multzoa, herritarren % 2 baino ez baitu ordezkutzen. Kasu honetan, ez dago alde nabarmenik udal-kategorien artean.

Erabiltzaileei ikastarogile gisa ematen zaien arretari dagokionez, ostera, nabarmenak dira aldeak: erakunde txikienetan, hau da, 1 eta 5.000 eta 5.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerrietan, % 18 eta % 20 bitartera iristen da zifra hori. Gainerakoetan, aldiz, ez du % 8 gainditzen.

Kirolari ikastarogileen adinari erreparatuta, abonatuaren atalean gertatzen dena errepikatzen da hemen: ikastaroak 18 eta 64 urte bitartekoei ematen zaizkie nagusiki, eta horien atzetik datoz adingabekoak. Nagusienek jasotako ikastaroen kopurua nabarmen txikiagoa da, ehunekoari erreparatzen badiogu.

Desgaitasuna duten pertsonen ematen zaien zerbitzuari dagokionez, hiru udalerri-kategoria txikienetan, udalen % 36 eta % 40 artean sustatzen dituzte pertsona horientzako jarduerak. Aldiz, udalerri handiagoetan, % 100ek egiten du.

Dokumentu honetan baieztatu egiten da beharrezkoa dela udalerri bakoitzeko kirol-errealitatea aztertzea etorkizuneko kirol-politikak zehazteko. Horrenbestez, lehen aldiz galdetu da udalerriek beren kirol-jarduerari buruzko azterketarik egiten duten. 5.001-20.000 eta 50.001-100.000 biztanle bitarteko udalerrien erdiek egiten dituzte mota horretako azterketak. Atzetik datoz 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerriak; horien % 33k egiten ditu. Bestalde, 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrien % 20k egiten dituzte eta 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrien artean, soilik % 12k. Beraz, azken horiek dira beren kirolaren bilakaera aztertzeke ahaleginik txikiena egiten dutenak.

Kirolak duen zeharkako izaera ia udal-zerbitzu osoan nabarmentzen da. Hortaz, kirol-arloak ezinbestean egon behar du gainerako sailekin harremanetan, ahalik eta udalerririk kirolzaleena lortzeko. Udalerriko kirol-zerbitzuak gainerako udal-zerbitzuekin zein neurritan dauden harremanetan egiaztatzeke, udalerriei galdetu zitzaizkien ea zenbaterik baieztatzen duten beste sail batzuekin harremanetan daudela. Emaitza aztertuta, ondorioztatu daiteke udalerri txikietan Kirol Saila gutxiago koordinatzen dela gainerako udal-sailekin. Bereziki nabarmena izan zen 5.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerrien kategoria; izan ere, % 27k konfirmatu zuten harreman hori egon bazegoela beren udalerrietan. Ostera, udalerri txikiagoen kategorian udalerrien % 62k adierazi zuen hori bera. Gainerako kategorietan, udalerrien % 100ek egiten dute lan udaleko beste atal batzuekin. Hain zuzen, Berdintasun Sailarekin egiten dute lan Kirol Sail gehienek.

Udaletatik kanpoko erakundeekin batera egiten diren jardueren esparruan, udalen % 83k esan dute Euskal Osasun Zerbitzuarekin (Osakidetza) lankidetzan dihardutela. Bestalde, udalen

% 77k adierazi dute beren lurraldeko foru-aldundiarekin batera egiten dutela lan kirola sustatzeko. Arlo honetan, alde nabarmena dago 20.001 eta 50.000 biztanle arteko udalerrietan; izan ere, tamaina horretako udalerrien % 20k daukate harreman hori. Gainera, udal guztien % 52k adierazi dute Eusko Jaurlaritzaren administrazioako sailekin harremanetan daudela kirola kudeatzeko. Kasu honetan ere, 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerriak dira zifra horretatik gehien aldentzen direnak (% 20).

Ulertzen da udaleko kirol-politikak orokorra izan behar duela eta barne hartu behar dituela herritarrak eta herritarren artean kirola sustatzen duten erakundeak, guzti-guztiak, salbuespenik gabe. Premisa hori bete egiten den ala ez egiaztatzeko, kirol-zerbitzu publiko eta pribatuaren arteko harremana aztertzea erabaki zen. Horretan, 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerriak nabarmendu ziren, % 100ek adierazi baitzuen harreman hori egon badagoela beren udalerrietan. Gainerakoan artean, 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerriak eta 100.001 biztanle baino gehiagokoak azpimarratu behar dira; izan ere, udalerririk bakar batek ere ez du bere udalerrian kirol-zerbitzua ematen duen sektore pribatuarekin harremanik.

Hori ikusita, beharrezkoa dirudi herritarrei galdetzea zein iritzi duten beren udalerrietako kirolaren egoerari eta jasotzen duten zerbitzuari buruz; ziur zerbitzua hobetzeko proposamen ugari aterako direla herritarrei galdetuta. Egiaztatu da udalen % 65ek dituztela herritarren partaidetzarako kanalak. Edonola ere, alde handiak daude udalerririk handien eta 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerririk artean; izan ere, udalerririk handien % 100ek daukate herritarrek proposamenak egitea ahalbidetzen duen eredu bat eta, aldiz, udalerririk txikien % 37k bakarrik dute kudeaketarako tresna hori.

Ildo beretik, herritarrek jasotzen dituzten zerbitzuekiko duten gogobetetasunari ere erreparatu zitzaien. Berriz ere, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerririk txikien % 37k aztertzen dute beren herritarren gogobetetasuna; gainerako kasu guztietan, ordea, erakundeen % 60k baino gehiagok egiten dute.

Kirola ezinbestekoa da herritarrak gogobeteta egon daitezen, ez dago zalantzarik. Alabaina, aztertu nahi dena da herritarrei kirolarekiko duten gogobetetasun pertsonalaz galdetzen zaien ala ez. Bada, udalerririk % 22an egiten da kontsulta hori. Bi udalerririk-multzo dira azpimarratzekoak: 5.001 eta 20.000 eta 20.001 eta 50.000 biztanle bitartekoak; izan ere, % 0k egiten diete galdera hori beren herritarrei.

Argi dago udaletako kirol-zerbitzuak bat datozela erabiltzaileei ahalik eta produkturik onena emateko helburuarekin. Hala ere, kirola egiten ez dutenengan jartzen baldin badugu arreta, bi galdera planteatzen dira: batetik, udalerririk neurritu egiten al duten zergatik ez duten kirol-jarduerarik egiten kirolik egiten ez dutenek; eta bestetik, neurritu garatu den herritar sedentarioak kirola egitera erakartzeko. Emaitzei erreparatuta, datuek agerian utzi dute herritarrei zergatik ez duten kirolik egiten galdetzen dieten udalerririk batezbestekoa % 13koa dela; edonola ere, asko aldentzen dira ehuneko horretatik 20.001 eta 50.000 eta 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerririk, % 0k egiten baitute azterketa hori.

Herritar sedentarioak kirol-bizitza aktiboagoa izatera erakartzeko neurriak dagokienez, udalerririk % 58k adierazi dute mota horretako neurriak hartzen dituztela.

Beharbada, aurreko puntuko lehen esaldian adierazitakoa lortzeko modurik onena kirol-arloan familientzako orientazio- eta akonpainamendu-zerbitzua ematea izan daiteke. EAeko udalerririk

aditzera eman dutenez zerbitzu hori ez da ematen ez udalerrri txikienetan, ez 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietan. Gainerako kategorietan, zerbitzu hori ematen duten udalerrrien ehunekoak ez du % 40 gainditzen.

### 2.4.3. Langileen aldagaiaren konparazioa, udalerraren kategoriaren arabera

56. taula. Langileen aldagaiaren konparazioa, udalerraren kategoriaren arabera

Aldagaia	Adierazlea	1etik 5.000ra	5.001etik 20.000ra	20.001etik 50.000ra	50.001etik 100.000ra	100.001 baino +	Udalerrri tipoa
		Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa
<i>Orokorra</i>	Biztanleak	3.612	13.877	35.754	70.066	210.973	66.856
	Kirol-arloko langileak 1.000 biztanleko	2,3 pertsona	1,8 pertsona	2,22 pertsona	1,17 pertsona	0,88 pertsona	2 pertsona
<i>Langileak</i>	Kirol-arloko langileak	8 pertsona	26 pertsona	72 pertsona	82 pertsona	186 pertsona	75 pertsona
	Kirol-arloan lanean diharduten gizonak	% 62,5	% 44	% 52	% 61	% 55	% 55
	Kirol-arloan lanean diharduten emakumeak	% 37,5	% 56	% 48	% 39	% 45	% 45
	Udal LZn sartutako kirol-arloko arduradun teknikariak	% 50	% 73	% 100	% 100	% 66,66	% 78
	Kirol-arloko arduradun tekniko nagusiaren batezbesteko adina	36 urte	56 urte	52 urte	48 urte	49 urte	48 urte
	Kirol-arloko arduradun teknikariak, sexuaren arabera	% 62,5 emakumeak	% 64 gizonak	% 60 gizonak	% 100 gizonak	% 66,6 gizonak	% 77 gizonak
	Arduradunen artean, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziadunak	% 50	% 82	% 100	% 100	% 100	% 86
	Masterren bat egin duten arduradun teknikariak	% 37,5	% 55	% 80	% 100	% 100	% 75
	Kirol-arloko arduradun lanpostuan egondako batez besteko denbora	5 urte	24 urte	21 urte	14 urte	3 urte eta erdi	14 urte
	Udalerrrian lan egindako batez besteko denbora	7 urte	23 urte	24 urte	13 urte	15 urte	16 urte
	Kirol-arloko arduradun politikoaren batezbesteko adina	45 urte	43 urte	46	44 urte	48 urte	45 urte
	Kirol-arloko arduradun politikoak, sexuaren arabera	% 62,5 gizonak	% 73 gizonak	% 60 gizonak	% 100 gizonak	% 66,6 gizonak	% 72 gizonak
	Kirol-arloko titulazio akademikoak dituzten politikariak	% 0	% 27	% 80	% 50	% 66,66	% 45
	Kirol-arloko zinegotzi lanpostuan egondako batez besteko denbora	3 urte	5 urte	2 urte eta erdi	7 urte	2 urte	4 urte
	Kirol-arloko zinegotzia kirolaria da	% 62,5	% 82	% 80	% 100	% 66,66	% 78



Kirol-arloko zinegotzia klubei lotuta dago edo egon da	% 62,5	% 64	% 80	% 100	% 33,33	% 68
Kirol-arloko aholku-organoak	% 25	% 18	% 25	% 50	% 66,66	% 37

Kirol-zerbitzuetako langileen banaketa paritarioa da sexuari dagokionez: langileen % 55 gizonak dira eta % 45a, berriz, emakumeak. Egoera apur bat ezberdina da 5.000 biztanle baino gutxiagoko eta 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietan, ehunekoak batezbesteko horretatik apur bat aldentzen baitira: kirol-arloan lan egiten duten emakumeen ehunekoa ez da % 40ra iristen. Dena den, 5.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerrri batzuetan guztiz kontrakoa da joera, eta emakume gehiago daude kirol-zerbitzuetan lanean gizonak baino.

Arduradun teknikoari erreparatuta, udalerrien % 77an gizona da. Adierazle horrek emakumeen aldeko joera erakusten du 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan; bertan, kirol-arloko arduradun tekniko nagusiak emakumeak dira aztertutako udalerrien % 62,5ean. Ardura tekniko hori ondo finkatuta dago udalen % 78an; izan ere, horietan guztietan dago figura hori erakundeko lanpostu-zerrendan jasota. Item honetan ere, aldeak daude udalerrri txikienetan: zehazki, % 50ean bakarrik dago kirol-arloko teknikaria udaleko lanpostu-zerrendan jasota.

Ildo horretan, kirol-zuzendaritza teknikoetako langileek duten prestakuntza akademikoa Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziak edo graduak dira aztertutako kasuen % 86an. Are gehiago, hiru udalerrri handienen kategorietako kirol-arduradunen prestakuntzari erreparatuta, % 100ean betetzen da goian adierazitakoa. Alta, udalerririk txikienetan udal-kirola kudeatzen duten teknikarien % 50ek bakarrik dute arestian aipatutako titulazioa.

Kirol-arloko arduradun politikoei, hau da, zinegotziei dagokienez, % 72 gizonak dira.

Titulazio akademiko ofizialetan oinarrituta, udal-kirolaren arduradun politikoei kirolaren gainean zein ezagutza-maila duten jakitea zen azterlan honen beste helburuetako bat, eta ikusi da zinegotzien % 45ek dutela titulazio ofizialen bat kirol-arloan. Alabaina, kasu honetan alde handiak daude udalerrri multzo batetik bestera. Udalerrri txikienetan, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, alegia, zinegotzien % 0k dauka titulazioaren bat, baina, aldiz, 20.001 eta 50.000 biztanle bitartekoetan, zinegotzien % 80k.

Dena den, handia da kirolarekin harremana duten zinegotzien kopurua: zinegotzi guztien % 78k esan dute kirola egiten dutela eta % 68k, berriz, lotura dutela edo izan dutela kirol-klubekin.

Udalerrietan bertan kirolari buruz sortu behar den eztabaidari erreparatuta, emaitzek erakusten dute Euskadiko udaletako % 37an daudela egin beharreko gogoetak egiteko aholku-organoak. Biztanle gehien duten udalerrietan dago kontsulta-organo gehien.

Aldagaia	Adierazlea	1etik 5.000ra	5.001etik 20.000ra	20.001etik 50.000ra	50.001etik 100.000ra	100.001 baino +	Udalerrri tipoa	
		Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa	
<i>Orokorra</i>	Biztanleak	3.612	13.877	35.754	70.066	210.973	66.856	
	Atletismo-pistak mila biztanleko	0,03	0,5	0,021	0,014	0,01	0,1	
	Pabiloi estaliak mila biztanleko	0,34	1,6	0,063	0,037	0,04	0,4	
	Tenis-pistak mila biztanleko	0,03	1,6	0,057	0,13	0,06	0,4	
	Padel-pistak mila biztanleko	0,11	2,2	0,081	0,08	0,07	1	
	Fitness-aretoen m <sup>2</sup> -ak mila biztanleko	26,34	345,9	28,15	11,70	9	84	
	Gimnasia-aretoen m <sup>2</sup> -ak mila biztanleko	36,08	425,7	16,35	33,59	15	105	
	Areto bakoitzeko spinning-bizikleta kopurua 1.000 biztanleko	3,61	26,7	0,92	0,45		6	
	Ur berodun igerilekuen m <sup>2</sup> -ak mila biztanleko	33,42	493	25,55	22,05		118	
	<i>Teknikoa</i>	11ko futbol-zelaiak mila biztanleko	0,21	0,15	0,082	0,085	0,04	0,1
		Belar naturaleko 11ko futbol-zelaiak	% 38	% 21	% 9	% 24	% 11	% 21
		Belar artifizialeko 11ko futbol-zelaiak	% 38	% 74	% 71	% 76	% 89	% 70
		Argia duten 11ko futbol-zelaiak	% 63	% 77	% 75	% 100	% 100	% 83
		5-7ko futbol-zelaiak mila biztanleko	0,57	0,16	0,041	0,15	0,01	0,2
		Belar naturaleko 5-7ko futbol-zelaiak %	% 75	% 0	% 20	% 0	% 0	% 19
		Belar artifizialeko 5-7ko futbol-zelaiak	% 25	% 100	% 80	% 90	% 100	% 79
		Argia duten 5-7ko futbol-zelaiak	% 75	% 61	% 80	% 100	% 100	% 83
		Pilotalekuak mila biztanleko	0,64	0,31	0,09	0,17	0,10	0,3
		Estalitako pilotalekuak	% 75	% 68	% 70	% 67	% 38	% 64
	Estali gabeko pilotalekuak	% 25	% 32	% 30	% 33	% 62	% 36	
Aldagelak mila biztanleko	2	1,76	0,7	1	0,27	1		
Bizikleta-bidea edo bidegorria dutela adierazten duten udalerrriak	% 50	% 55	% 60	% 100	% 100	% 73		
Kaleko gimnasioak edo gimnasio bio-osasungarriak dituztela adierazten duten udalerrriak	% 50	% 82	% 80	% 100		% 82		
					% 100			

Erabilera libreko kirol-instalazio irekiak dituzten udalerrriak	% 50	% 55	% 40	% 100	% 69
Kaleetan edo parkeetan jarduera fisikoa egiteko jolasak dituzten udalerrriak	% 13	% 27	% 0	% 0	% 10
				Daturik ez	

**2.4.4. Aldagai teknikoaren konparazioa, udalerrriaren kategoriaren arabera**

57. taula. Aldagai teknikoaren konparazioa, udalerrriaren kategoriaren arabera

Kirola egiteko instalazioei eta elementuei buruzko aldagai honetan behin eta berriz azaleratzen da udalerrri txikien baliabide gutxiago dituztela metroei edo elementu kopuruari erreparatuta, kalkuluak 1.000 biztanleko eginda. Aipatzeko modukoa da 5.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerriekiko diferentzia, beren tamaina edozein izanik ere, herritarrek metro karratu gehiago dutelako kirola egiteko espazioetan.

Belar artifizialeko futbol-zelaiak egiteko joera dago; hain zuzen, futbol-instalazioetako stockaren % 70 hartzen dute. 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan aldatzen da gehien ehuneko hori gainerako udalerrri-kategorietan: futbol-zelaiak % 38 da belar artifizialeko udalerrri horietan. Futbol-zelaietako argiztapena ere % 100ekoa izateko bidean dago; argi naturalik ez dagoenean jolasteko aukera ematen duen zerbitzu elektrikoaz hornitutako zelaien batezbestekoa % 83koa da.

Pilotalekuei erreparatuta, konstante bat hauteman daiteke: pilotaleku estaliak % 64 eta estali gabeko pilotalekuek % 36 hartzen dute. Hala ere, joera hori aldatu egiten da herritar gehien duten udalerrietan: pilotalekuen % 38 estaliak dira eta % 62a, aldiz, estali gabekoak.

Bizikleta-bidea edo bidegorria EAeko udalerrien % 73an dago. Alabaina, alde nabarmenak daude ehunekoetan: % 50 txikienetan; % 55 hurrengoetan; % 60, berriz, 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrietan eta % 100 gainerakoetan.

Kaleko gimnasioak edo gimnasio bio-osasungarriak daude EAeko udalerrien % 82an. Alderik nabarmenena 5.000 biztanletik beherako udalerrietan dago, udalerrien % 50ek bakarrik dituztelako kirol-ekipamendu horiek.

Kalea herritarrak kirola egitera motibatuzeko elementu gisa erabiltzeari dagokionez, udalerrien % 69k esan dute erabilera libreko kirol-instalazio irekiak dituztela. Herritar gehien duten udalerrien bi kategorietako udalerrri guztiek dituzte mota horretako instalazioak; aldiz, ehuneko hori % 40ra murrizten da 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrietan eta % 50era biztanle kopuru gutxien dutenetan.

## 2.4.5. EAEko udalerrietako arduradun teknikoen iritziaren konparazioa, udalerraren kategoriaren arabera

58. taula. EAEko udalerrietako arduradun teknikoen iritziaren konparazioa, udalerraren kategoriaren arabera

Aldagaia	Adierazlea	1etik 5.000ra	5.001etik 20.000ra	20.001etik 50.000ra	50.001etik 100.000ra	100.001 baino +	Udalerrri tipoa
		Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa
<b>Orokorra</b>	Biztanleak	3.612	13.877	35.754	70.066	210.973	66.856
<i>EAEko udalerrietako arduradun teknikoen iritzia</i>	Instalazioak ahulezia direla uste duten arduradun teknikariak	% 63	% 45	% 80	% 50	% 33,3	% 54
	Baliabide ekonomikoak ahulezia direla uste duten arduradun teknikariak	% 50	% 45	% 80	% 50	% 66,6	% 58
	Langileak ahulezia direla uste duten arduradun teknikariak	% 50	% 27	% 80	% 50	% 66,6	% 55
	Ereduaren zaharkitzea ahulezia dela uste duten arduradun teknikariak	% 50	% 27	% 60	% 0	% 33,3	% 34
	Lehia pribatua ahulezia dela uste duten arduradun teknikariak	% 13	% 0	% 20	% 0	% 0	% 7
	Irizpide politiko eza ahulezia dela uste duten arduradun teknikariak	% 25	% 27	% 40	% 0	% 0	% 18



Ezinbestekoa da EAEko udalerrietan kirola kudeatzeaz eta sustatzeaz arduratzen diren teknikarien iritzia ezagutzea, haiek baitira beren udalerrietako kirol-errealitatea ondoen ezagutzen dutenak.

Egindako galderei laginean parte hartu zuten teknikarien % 89k erantzun zieten.

Kirol-instalazioei buruzko galderan, ikusten da 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udaletako arduradunen % 80k uste dutela instalazioak direla beren zerbitzuko ahulezia; aldiz, udalerrri handiagoetan, teknikarien % 33k uste dute hori.

5.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerrien % 45ean, instalazioetako teknikariak ahuleziaz jotzen dituzte kirola kudeatzera bideratutako baliabide ekonomikoak, eta ehuneko hori % 80ra iristen da 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrietan.

5.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerrietan, teknikarien % 27k uste dute ahulezia langileak direla; dena den, ehuneko hori oso urrun dago hori bera pentsatzen duten 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrietako teknikarien ehunekotik; bertan, % 80 daude langileengatik kezkatuta.

Kirola kudeatzeko ereduaren zaharkitzeari dagokionez, alderik handiena 50.001 eta 100.000 eta 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrietako teknikarien artean dago; lehenengoan, teknikarien % 0k uste dute eredu zaharkituta dagoela, eta, aldiz, bigarrean, teknikarien % 60k.

Beren udalerrian kirol-zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuak mehatxutzat jotzen dituzte teknikarien % 7k. Denak ala denak dira 1 eta 5.000 eta 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrietakoak.

Irizpide politiko eza ez da mehatxutzat hartzen biztanle kopururik handieneko bi udalerrri multzoetan; alabaina, kezagarritzat jotzen dute 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko teknikarien % 40k.



## 2.4.6. Udalerriaren profila: 1 eta 5.000 biztanle bitartean

Azterlanak honako datu demografiko hau eman du aditzera: 1 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrri tipoak 3.612 biztanle ditu Batez beste, eta, bertan, udaleko aurrekontu orokorraren % 12 bideratzen da Kirol Sailera. Sail hori autofinantzatu egiten da udalerrien % 23an, eta aurrekontu orokorrarekiko defizita % 7koa da. Kirolean biztanleko eta urteko egiten den gastua 117,42 €-koa da; aldiz, biztanleko eta urteko eskuratzen den diru-sarrera 26,23 €-koa. Gauzak horrela, kirol-arloan dagoen defizita, biztanleko eta urteko, 90,80 €-koa da.

Udalak aurrekontu orokorraren % 0,51 bideratzen du udalerrian kirola sustatzera, kirol-erakundeetara emandako laguntza ekonomikoen bidez. Horrez gain, % 0,23 bideratzen du kirol-ekitaldiak antolatuz.

Udaleko kirol-zerbitzuek biztanleriaren honako ehuneko hauek kudeatzen dituzte: abonatuak % 25, ikastarogileen % 20,6 eta federatuak % 5.

16 kirol-jarduerak eskaintzen dituzte, eta horietatik % 22,22 daude zuzenduta 0 eta 17 urte bitartekoei; % 55,55, berriz, 18 eta 64 urte bitartekoei, eta, azkenik, % 22,22a 65 urte baino gehiagokoei.

Udalen % 37,50ek eskaintzen dituzte kirol egokituko jarduerak. Ildo beretik, Espainian eta Euskadin inskribatutako klubak % 0,01 eta % 0,05 artatzen dituzte, hurrenez hurren.

Udalerri horien % 12,5ek beren udalerrian egiten den kirol-jarduerak aztertzen dute.

Udalerrien % 25ek dituzte kirol-arloko kontsulta-organoak.

Udalerrien % 62,5 harremanetan dago beste sail batzuekin edo kanpoko erakundeekin beren udalerriko kirola kudeatzeko. Alabaina, ez dute harremanik kirol-zerbitzuak beren udalerritik kanpo ematen dituzten enpresa pribatuekin.

Udalerrien % 37,5ek herritarren parte-hartzea sustatzen dute partaidetza-kanalen bidez.

Ildo beretik, udalerrien % 37,5ek aztertzen dute herritarrek zer gogobetetze-maila duten zerbitzuari dagokionez, eta % 25ek, berriz, herritarrek zer sentimendu duten udalerriko kirolaren gainean.

Udalerrien % 12,5 daude kezkatuta herritarrek kirolik ez egitea eragiten duten arazoengatik. Hala ere, udalerrien % 50ean dituzte herritar sedentarioak kirola egitera erakartzeko neurriak.

Dena den, ez dute kirol-arloan familientzako orientazio- eta akonpainamendu-zerbitzurik.

Batez beste 11 kirol-ekitalditan hartzen dute parte, modu batera edo bestera.

Batez beste, 8 pertsonak egiten dute lan kirol-zerbitzuan. Horien % 62,50 gizonak dira eta % 37,50a, berriz, emakumeak.

Kirol-arloko arduradun teknikoa 36 urteko emakumea da. Horien % 50 Jarduera Fisikoaren eta Kirolen Zientzietako lizentziadunak dira, eta % 37,5ek kirol-arloko masterren bat daukate. 5 urte darama kirol-arloko arduradun-lanpostuan, baina 7 udalerrian lanean.

Arduradun politikoa, hau da, zinegotzia, gizona da, 45 urtekoa, eta 3 urte darama karguan; ez du prestakuntza akademiko ofizialik kirol-arloan, baina kirolaria da eta harremana du edo eduki du kirol-klubekin.

Instalazioei dagokienez, gutxienez sei kaleko 0,1 atletismo-pista dituzte, 1,1 kirol-pabiloi estali, 0,1 tenis-pista eta 0,4 padel-pista. Halaber, 116,6 m<sup>2</sup> fitness-areto, 184,3 m<sup>2</sup> gimnastika-areto eta 153,9 m<sup>2</sup> ur berodun igerileku dituzte. Gainera, 18 spinning-bizikleta dauzkate areto bakoitzean. 11ko futboleko 1 zelai dute, eta belar artifizialekoa da udalerrien % 75ean. Ildo beretik, argi artifiziala dute zelai horien % 63k. Belar artifizialeko 5-7ko futbol-zelai bat ere badute, baita argi artifiziala ere, udalerrien % 75ean.

Udalerri tipo honetan, 2 pilotaleku daude, eta horien % 75 estaliak dira.

Azkenik, 9 aldagela daude herritarrentzako.

#### **2.4.7. Udalerriaren profila: 5.001 eta 20.000 biztanle bitartean**

Azterlanak honako datu demografiko hau eman du aditzera: 5.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerri tipoak 13.877 biztanle ditu batez beste, eta, bertan, udaleko aurrekontu orokorraren % 7

bideratzen da Kirol Sailera. Sail hori autofinantzatu egiten da udalerrien % 51n, eta aurrekontu orokorrarekiko defizita % 2koa da. Kirolean biztanleko eta urteko egiten den gastua 52,22 €-koa da; aldiz, biztanleko eta urteko eskuratzen den diru-sarrerara 28,28 €-koa. Gauzak horrela, kirol-arloan dagoen defizita, biztanleko eta urteko, 26,94 €-koa da.

Udalak aurrekontu orokorraren % 0,77 bideratzen du udalerrian kirola sustatzera, kirol-erakundeetara emandako laguntza ekonomikoen bidez. Horrez gain, % 0,23 bideratzen du kirol-ekitaldiak antolatuz.

Udaleko kirol-zerbitzuek biztanleriaren honako ehuneko hauek kudeatzen dituzte: abonatuak % 31, ikastarogileen % 18 eta federatuak % 4.

34 kirol-jarduera eskaintzen dituzte, eta horietatik % 25 daude zuzenduta 0 eta 17 urte bitartekoei; % 59 berriz, 18 eta 64 urte bitartekoei, eta, azkenik, % 15a 65 urte baino gehiagokoei.

Udalen % 36k eskaintzen dituzte kirol egokituko jarduerak. Ildo beretik, Espainian eta Euskadin inskribatutako klubak % 0,02 eta % 0,35 artatzen dituzte, hurrenez hurren.

Udalerririk horien % 55ek beren udalerrian egiten den kirol-jarduera bera aztertzen dute.

Udalerririk % 18k dituzte kirol-arloko kontsulta-organoak.

Udalerririk % 27 harremanetan dago beste sail batzuekin edo kanpoko erakundeekin beren udalerriko kirola kudeatzeko.

Alabaina, % 18k ez dute harremanik kirol-zerbitzuak beren udalerritik kanpo ematen dituzten enpresa pribatuekin.

Udalerririk % 55ek herritarren parte-hartzea sustatzen dute partaidetza-kanalen bidez.

Ildo beretik, udalerririk % 64k aztertzen dute herritarrek zer gogobetetze-maila duten zerbitzuari dagokionez, eta % 0k, berriz, herritarrek zer sentimendu duten udalerriko kirolaren gainean.

Udalerririk % 18 daude kezkatuta herritarrek kirolik ez egitea eragiten duten arrazoiengatik. Hala ere, udalerririk % 64an dituzte herritar sedentarioak kirola egitera erakartzeko neurriak.

Dena den, % 36k dute kirol arloan familientzako orientazio- eta akonpainamendu-zerbitzua.

Batez beste 50 kirol-ekitalditan hartzen dute parte, modu batera edo bestera.

Batez beste, 26 pertsonak egiten dute lan kirol-zerbitzuan. Horien % 44 gizonak dira eta % 56a, berriz, emakumeak.

Kirol-arloko arduradun teknikoa 56 urteko gizona da. Horien % 82 Jarduera Fisikoaren eta Kirolen Zientzietako lizentziadunak dira, eta % 55ek kirol-arloko masterren bat daukate. 24 urte darama kirol-arloko arduradun-lanpostuan, baina 23 udalerrian lanean.

Arduradun politikoa, hau da, zinegotzia, gizona da, 43 urtekoa, eta 5 urte darama karguan; udalerririk hauetako zinegotzirik % 27k kirol-arloko prestakuntza akademiko ofiziala daukate, kirolariak dira eta harremana dute edo eduki dute kirol-klubak batekin.

Instalazioei dagokienez, gutxienez sei kaleko 0,5 atletismo-pista dituzte, 1,6 kirol-pabiloi estali, 1,6 tenis-pista eta 2,2 padel-pista. Halaber, 345,9 m<sup>2</sup> fitness-areto, 425,7 m<sup>2</sup> gimnastika-areto eta 493 m<sup>2</sup> ur berodun igerileku dituzte. Gainera, 27 spinning-bizikleta dauzkate areto bakoitzean. 11 futboleko 2 zelai daukate, eta belar artifizialekoak dira udalerririk % 74an. Ildo beretik, argi

artifiziala dute zelai horien % 77k. Belar artifizialeko 5-7ko futboleko 2 zelai ere badauzkate, baita argi artifiziala ere, udalerrien % 61ean.

Udalerri tipo honetan, 4 pilotaleku daude, eta horien % 68 estaliak dira.

Azkenik, 23 aldagela daude herritarrentzako.

#### **2.4.8. Udalerraren profila: 20.001 eta 50.000 biztanle bitartean**

Azterlanak honako datu demografiko hau eman du aditzera: 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerri tipoak 34.754 biztanle ditu batez beste eta, bertan, udaleko aurrekontu orokorraren % 6 bideratzen da Kirol Sailera. Sail hori autofinantzatu egiten da udalerrien % 53an, eta aurrekontu orokorrarekiko defizita % 3koa da. Kirolean biztanleko eta urteko egiten den gastua 77,22 €-koa da; aldiz, biztanleko eta urteko eskuratzen den diru-sarrera 41,29 €-koa. Gauzak horrela, kirolarloan dagoen defizita, biztanleko eta urteko, 35,93 €-koa da.

Udalak aurrekontu orokorraren % 0,61 bideratzen du udalerrian kirola sustatzera, kirol-erakundeek emandako laguntza ekonomikoen bidez. Horrez gain, % 0,10 bideratzen du kirol-ekitaldiak antolatuzera.

Udaleko kirol-zerbitzuek biztanleriaren honako ehuneko hauek kudeatzen dituzte: abonatuak % 33, ikastarogileen % 4 eta federatuak % 2.

105 kirol-jarduera eskaintzen dituzte, eta horietatik % 42 daude zuzenduta 0 eta 17 urte bitartekoei; % 54 berriz, 18 eta 64 urte bitartekoei, eta, azkenik, % 4a 65 urte baino gehiagokoei.

Udalen % 40k eskaintzen dituzte kirol egokituko jarduerak. Ildo beretik, Espainian eta Euskadin inskribatutako klubak % 0,03 eta % 0,72 artatzen dituzte, hurrenez hurren.

Udalerririk horien % 20k beren udalerrian egiten den kirol-jarduera bera aztertzen dute.

Udalerririk % 25ek dituzte kirol-arloko kontsulta-organoak.

Udalerririk % 100 dago harremanetan beste sail batzuekin edo kanpoko erakundeekin beren udalerriko kirola kudeatzeko.

Alabaina, % 20k ez dute harremanik kirol-zerbitzuak beren udalerritik kanpo ematen dituzten enpresa pribatuekin.

Udalerririk % 80k herritarren parte-hartzea sustatzen dute partaidetza-kanalen bidez.

Ildo beretik, udalerririk % 80k aztertzen dute herritarrek zer gogobetetze-maila duten zerbitzuari dagokionez, eta % 0k, berriz, herritarrek zer sentimendu duten udalerriko kirolaren gainean.

Udalerririk % 0 daude kezkatuta herritarrek kirolik ez egitea eragiten duten arrazoiengatik. Hala ere, udalerririk % 60an dituzte herritar sedentarioak kirola egitera erakartzeko neurriak.

Dena den, % 40k dute kirol-arloan familientzako orientazio- eta akonpainamendu-zerbitzua.

Batez beste, 52 kirol-ekitalditan hartzen dute parte, modu batera edo bestera.

Batez beste, 72 pertsonak egiten dute lan kirol-zerbitzuan. Horien % 52 gizonak dira eta % 48a, berriz, emakumeak.

Kirol-arloko arduradun teknikoa 52 urteko gizona da. Horien % 100 Jarduera Fisikoaren eta Kirolen Zientzietako lizentziadunak dira, eta % 80k kirol-arloko masterren bat daukate. 21 urte darama kirol-arloko arduradun-lanpostuan, baina 24 udalerrian lanean.

Arduradun politikoa, hau da, zinegotzia, gizona da, 46 urtekoa, eta 2 urte eta erdi daramatza karguan; udalerririk hauetako zinegotzirik % 80k kirol-arloko prestakuntza akademiko ofiziala daukate, kirolariak dira eta harremana dute edo eduki dute kirol-klubak batekin.

Instalazioei dagokienez, gutxienez sei kaleko 1 atletismo-pista dute, 2 kirol-pabiloi estali, 2 tenis-pista eta 2 padel-pista. Halaber, 1.417 m<sup>2</sup> fitness-areto, 785 m<sup>2</sup> gimnastika-areto eta 913 m<sup>2</sup> ur berodun igerileku dituzte. Gainera, 45 spinning-bizikleta daukate areto bakoitzean. 11ko futboleko 3 zelai daukate, eta belar artifizialekoak dira udalerririk % 71n. Ildo beretik, argi artifiziala dute zelai horien % 75ek. Belar artifizialeko 5-7ko futboleko 2 zelai ere badaukate, baita argi artifiziala ere, udalerririk % 80an.

Udalerririk tipo honetan, 4 pilotaleku daude, eta horien % 68 estaliak dira.

Azkenik, 46 aldagela daude herritarrentzako.

#### **2.4.9. Udalerriaren profila: 50.001 eta 100.000 biztanle bitartean**

Azterlanak honako datu demografiko hau eman du aditzera: 50.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrri tipoak 70.066 biztanle ditu batez beste, eta, bertan, udaleko aurrekontu orokorraren % 6 bideratzen da Kirol Sailera. Sail hori autofinantzatu egiten da udalerrrien % 55ean, eta aurrekontu orokorrarekiko defizita % 2koa da. Kirolean biztanleko eta urteko egiten den gastua 64,64 €-koa da; aldiz, biztanleko eta urteko eskuratzen den diru-sarrera 40,04 €-koa. Gauzak horrela, kirol-arloan dagoen defizita, biztanleko eta urteko, 24,59 €-koa da.

Udalak aurrekontu orokorraren % 0,99 bideratzen du udalerrian kirola sustatzera, kirol-erakundeei emandako laguntza ekonomikoen bidez. Horrez gain, % 0,06 bideratzen du kirol-ekitaldiak antolatzen.

Udaleko kirol-zerbitzuek biztanleriaren honako ehuneko hauek kudeatzen dituzte: abonatuak % 26, ikastarogileen % 7 eta federatuen % 6.

Udalen % 100ek eskaintzen dituzte kirol egokituko jarduerak. Ildo beretik, Espainian eta Euskadin inskribatutako klubek % 0,04 eta % 0,89 artatzen dituzte, hurrenez hurren.

Udalerri horien % 50ek beren udalerrian egiten den kirol-jarduera bera aztertzen dute.

Udalerrien % 50ek dituzte kirol-arloko kontsulta-organoak.

Udalerrien % 100 dago harremanetan beste sail batzuekin edo kanpoko erakundeekin beren udalerriko kirola kudeatzeko.

Alabaina, % 100ek du harremana kirol-zerbitzuak beren udalerritik kanpo ematen dituzten enpresa pribatuekin.

Udalerrien % 50ek herritarren parte-hartzea sustatzen dute partaidetza-kanalen bidez.

Ildo beretik, udalerrien % 100ek aztertzen dute herritarrek zer gogobetetze-maila duten zerbitzuari dagokionez, eta % 50ek, berriz, herritarrek zer sentimendu duten udalerriko kirolaren gainean.

Udalerrien % 0 daude kezkatuta herritarrek kirolik ez egitea eragiten duten arrazoiengatik. Hala ere, udalerrien % 50ean dituzte herritar sedentarioak kirola egitera erakartzeko neurriak.

Dena den, % 0k dute kirol-arloan familientzako orientazio- eta akonpainamendu-zerbitzua.

Batez beste, 386 kirol-ekitalditan hartzen dute parte, modu batera edo bestera.

Batez beste, 82 pertsonak egiten dute lan kirol-zerbitzuan. Horien % 61 gizonak dira eta % 39a, berriz, emakumeak.

Kirol-arloko arduradun teknikoa 48 urteko gizona da. Horien % 100 Jarduera Fisikoaren eta Kirolen Zientzietako lizentziadunak dira, eta % 100ek daukate kirol-arloko masterren bat; 14 urte darama kirol-arloko arduradun-lanpostuan, baina 13 udalerrian lanean.

Arduradun politikoa, hau da, zinegotzia, gizona da, 44 urtekoa, eta 7 urte eta erdi daramatza karguan; udalerrri hauetako zinegotzien % 100ek dauka kirol-arloko prestakuntza akademiko ofiziala, kirolariak dira eta harremana dute edo eduki dute kirol-klubek batekin.

Instalazioei dagokienez, gutxienez sei kaleko 1 atletismo-pista dituzte, 3 kirol-pabiloi estali, 10 tenis-pista eta 7 padel-pista. Halaber, 850 m<sup>2</sup> fitness-areto, 2.550 m<sup>2</sup> gimnastika-areto eta 1.600 m<sup>2</sup> ur berodun igerileku dituzte. Gainera, 45 spinning-bizikleta daukate areto bakoitzean. 11ko futboleko 6 zelai daukate, eta belar artifizialekoak dira udalerrien % 76an. Ildo beretik, argi artifiziala dute zelai horien % 100ek. Belar artifizialeko 5-7ko futboleko 10 zelai ere badauzkate, baita argi artifiziala ere, udalerrien % 100ean.

Udalerri tipo honetan, 12 pilotaleku daude, eta horien % 68 estaliak dira.

Azkenik, 74 aldagela daude herritarrentzako.

#### **2.4.10. Udalerriaren profila: 100.001 biztanle baino gehiago**

Azterlanak honako datu demografiko hau eman du aditzera: 100.001 biztanle baino gehiagoko udalerrri tipoak 210.973 biztanle ditu batez beste, eta, bertan, udaleko aurrekontu orokorraren % 3 bideratzen da Kirol Sailera. Sail hori autofinantzatu egiten da udalerrien % 60an, eta aurrekontu orokorrarekiko defizita % 1ekoa da. Kirolean biztanleko eta urteko egiten den gastua 53,54 €-koa da; aldiz, biztanleko eta urteko eskuratzen den diru-sarrera 38,93 €-koa. Gauzak horrela, kirol-arloan dagoen defizita, biztanleko eta urteko, 14,81 €-koa da.

Udalak aurrekontu orokorraren % 0,16 bideratzen du udalerrian kirola sustatzera, kirol-erakundeei emandako laguntza ekonomikoen bidez. Horrez gain, % 0,02 bideratzen du kirol-ekitaldiak antolatuzera.

Udaleko kirol-zerbitzuek biztanleriaren honako ehuneko hauek kudeatzen dituzte: abonatuena % 23, ikastarogileen % 8 eta federatuena % 1.

94 kirol-jarduera eskaintzen dituzte, eta horietatik % 31 daude zuzenduta 0 eta 17 urte bitartekoei; % 65 berriz, 18 eta 64 urte bitartekoei, eta, azkenik, % 4a 65 urte baino gehiagokoei.



Udalen % 100ek eskaintzen dituzte kirol egokituko jarduerak. Ildo beretik, Espainian eta Euskadin inskribatutako klubak % 0,14 eta % 3 artatzen dituzte, hurrenez hurren.

Udalerri horien % 33k beren udalerrian egiten den kirol-jarduera bera aztertzen dute.

Udalerrien % 66,6k dituzte kirol-arloko kontsulta-organoak.

Udalerrien % 100 dago harremanetan beste sail batzuekin edo kanpoko erakundeekin beren udalerriko kirola kudeatzeko.

Alabaina, % 0k du harremana kirol-zerbitzuak beren udalerritik kanpo ematen duten enpresa pribatuekin.

Udalerrien % 100ek herritarren parte-hartzea sustatzen dute partaidetza-kanalen bidez.

Ildo beretik, udalerrien % 66k aztertzen dute herritarrek zer gogobetetze-maila duten zerbitzuari dagokionez, eta % 33k, berriz, herritarrek zer sentimendu duten udalerriko kirolaren gainean.

Udalerrien % 33 daude kezkatuta herritarrek kirolik ez egitea eragiten duten arrazoiengatik. Hala ere, udalerrien % 66an dituzte herritar sedentarioak kirola egitera erakartzeko neurriak.

Dena den, % 40k dute kirol-arloan familientzako orientazio- eta akonpainamendu-zerbitzua.

Batez beste, 153 kirol-ekitalditan hartzen dute parte, modu batera edo bestera.

Batez beste, 186 pertsonak egiten dute lan kirol-zerbitzuan. Horien % 55 gizonak dira eta % 45a, berriz, emakumeak.

Kirol-arloko arduradun teknikoa 49 urteko gizona da. Horien % 100 Jarduera Fisikoaren eta Kirolen Zientzietako lizentziadunak dira, eta % 100ek daukate kirol-arloko masterren bat. 3 urte darama kirol-arloko arduradun-lanpostuan, baina 15 udalerrian lanean.

Arduradun politikoa, hau da, zinegotzia, gizona da, 48 urtekoa, eta 2 urte darama karguan; udalerrri hauetako zinegotzian % 66k kirol-arloko prestakuntza akademiko ofiziala daukate, kirolariak dira eta harremana dute edo eduki dute kirol-klubak batekin.

Instalazioei dagokienez, gutxienez sei kaleko 1 atletismo-pista dituzte, 7 kirol-pabiloi estali, 12 tenis-pista eta 14 padel-pista. Halaber, 2.144 m<sup>2</sup> fitness-areto, 3.487 m<sup>2</sup> gimnastika-areto eta 3.186 m<sup>2</sup> ur berodun igerileku dituzte. Gainera, 20 spinning-bizikleta dauzkate areto bakoitzean. 11 futboleko 8 zelai dauzkate, eta belar artifizialekoak dira udalerrien % 71n. Ildo beretik, argi artifiziala dute zelai horien % 100ek. Belar artifizialeko 5-7ko futboleko 2 zelai ere badauzkate, baita argi artifiziala ere, udalerrien % 100ean.

Udalerri tipo honetan, 19 pilotaleku daude, eta horien % 68 estaliak dira.

Azkenik, 80 aldagela daude herritarrentzako.

## 2.4.11. Udalerri tipoaren profila. Euskadiko Udal Kirolaren Behatokia 2018

### 2.4.11.1 Udalerri tipoaren aldagai ekonomikoa. Euskadiko Udal Kirolaren Behatokia 2018

Aldagai ekonomikoan, profila 59. taulan jasotakoa litzateke

59. taula. Udalerri tipoen aldagai ekonomikoa. Euskadi 2018

#### 100.001 BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO UDALERRI TIPOEN ALDAGAI EKONOMIKOAREN PROFILA. EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018

ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
EKONOMIKOA	Udalaren aurrekontua	111.358.411,96 €
	Kirol Sailaren aurrekontua	4.704.304,59 €
	1. kapitulua. Langile-gastuak	1.149.235,80 €
	2. kapitulua. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	2.828.128,64 €
	3. kapitulua. Tasengatiko diru-sarrerak eta beste batzuk	2.708.817,47 €
	5. kapitulua. Ondare-sarrerak	468.398,72 €
	Kiroleko gastua, guztira	3.963.482,74 €
	Kiroleko sarrerak, guztira	2.596.697,15 €
	Defizita (diru-sarrerak-gastuak)	-1.366.785,40 €
	Defizita, udal-aurrekontuari dagokionez	% 3
	Autofinantzaketa	% 48


Kirolean egindako gastuak, aurrekontu osoari dagokionez	% 7
Gastua biztanle/urte	73,65 €
Diru-sarrera biztanle/urte	35,03 €
Defizita biztanleko	38,61 €
Ekarpen ekonomikoak - dirulaguntzak	397.236,14 €
Kirol-ekitaldietara bideratutako ekarpen ekonomikoak	47.739,36 €
Dirulaguntza bidezko ekarpen ekonomikoak - aurrekontu osoari dagokionez	% 0,61
Kirol-ekitaldietara bideratutako ekarpenak, aurrekontu osoari dagokionez	% 0,13
Kirol-arloan administrazio-emakidaren bat duten udalerriak	% 25

Euskadiko Udal Kirolaren Behatokia 2018ko udalerrri tipo honen batez besteko aurrekontua 111.358.411,96 eurokoa da, eta hortik 4.704.304,59 € bideratzen dira Kirol Sailera, hau da, aurrekontu osoaren % 7. Zenbateko hori honela dago hainbanatuta kapitulua: 1. kapituluan, 1.149.235,80 € bideratzen dira langileen gastuetara, hau da, kirolerako aurrekontuaren % 24,42. 2. kapituluan, 2.828.128,64 € bideratzen dira ondasun eta zerbitzu arruntak eskuratzera, arloak behar bezala funtziona dezan. Horrek arloko gastuaren % 60,11 hartzen du.

Halaber, ikusi da kirol-arloak 2.708.817,47 €-ko diru-sarrerak jasotzen dituela 3. kapituluan, zerbitzu publikoak emateagatiko eta zerga-tasak ordaintzeagatiko kontraprestazio gisa. Azkenik, 5. kapituluan 468.398,72 € jasotzen ditu, ondare-errendimenduengatik. Hortik ondorioztatzen da kirol-arloko defizita -1.366.785,40 €-koa dela; hortaz, autofinantzaketa % 48koa da.

Martinek (2015) 2013ko Euskadiko Udal Kirolaren Behatokian kalkulatu zuen tokiko kirolaren autofinantzaketa % 41ekoa zela. Hortaz, adierazle horretan zazpi puntuko hobekuntza egon da.

Gainera, hainbat egileren hitzak oinarritzat hartuta, besteak beste, Diego (2000), Bidarratz (2009), García-Unanue eta Gallardo (2014) eta Teruelo (2006 eta 2012), Martín (2015) gai izan zen bere lanean Euskadiko autofinantzaketa-kontzeptuaren bilakaera irudikatzeko, eta orain irudi hori osatu egin da azterlan honetatik ateratako datuekin (ikus 40. grafikoa)



40. grafikoa. Udal-kirolaren autofinantzaketaren ehunekoaren bilakaera. Balioespenaren arabera, udalerriko herritar bakoitzeko kirol-arloan egiten den gastua 73,65 €-koa da urtean, eta diru-sarrerara, berriz, 35,03 €-koa.

Beste era batera esanda, herritar bakoitzeko defizita urtean 38,61 €-koa da.

Kirol-arloko defizitak udalaren defizitaren % 3 hartzen du.

Kudeaketa-ereduari dagokionez, 2016an, Macias eta Ruesgas-ek zenbatetsi zuten enpresa pribatuek udal-jardueren % 39,40 hartzen zutela beren gain, eta, hortaz, jardueren % 60,60aren kudeaketa publikoa eta zuzeneko zela. 2018ko Behatokiak egindako azterketatik ondorioztatzen da zuzeneko kudeaketa % 62koa dela, eta kudeaketa pribatuak, beraz, % 38a hartzen duela.

Udallerri tipo honetan, honako kudeaketa-eredu hauek erabili izan dira: Zeharkako kudeaketa (kanpoko enpresa bat kontratatzea), zuzeneko kudeaketa. Gazteria eta Kirola Saila, kiroldegia osorik kudeatzeko emakida, kudeaketa mistoa udalaren beraren eta enpresaren langileen artean, udaleko kirol-arloko sozietate anonimoa eta tokiko organismo autonomoa, Kirolaren Udal Institutua formarekin eta Udal Kirol Patronatu formatuan.

#### 2.4.11.2. Udallerri tipoaren aldagai soziala. Euskadiko Udal Kirolaren Behatokia 2018

60. taula. Udallerri tipoen 1. aldagai soziala. Euskadi 2018

ALDAGAI SOZIALAREN PROFILA		
UDALERRI TIPOA. EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018		
ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
	Kirol-instalazioetako erabiltzaile abonatuak	% 28

SOZIALA	Kirol-instalazioetako gizon abonatuak	% 14,5
	Kirol-instalazioetako emakume abonatuak	% 13,5
	0-17 urte bitarteko abonatu guztiak	% 7
	0-17 urte bitarteko gizon abonatuak	% 4
	0-17 urte bitarteko emakume abonatuak	% 3
	18-64 urte bitarteko emakume abonatuak	% 14
	18-64 urte bitarteko gizon abonatu guztiak	% 7
	18-64 urte bitarteko emakume abonatuak	% 7
	65 urte baino gehiagoko abonatu guztiak	% 2
	65 urte baino gehiagoko gizon abonatuak	% 1
	65 urte baino gehiagoko emakume abonatuak	% 1
	Kirol-instalazioetako ikastarogileak	% 12
	Kirol-instalazioetako gizon abonatuaren artean, ikastarogileak	% 5
	Kirol-instalazioetako emakume abonatuaren artean, ikastarogileak	% 6
	0-17 urte bitarteko ikastarogileak	% 3
	0-17 urte bitarteko gizon ikastarogileak	% 2
	0-17 urte bitarteko emakume ikastarogileak	% 2
	18-64 urte bitarteko ikastarogileak	% 7
	18-64 urte bitarteko gizon ikastarogileak	% 3
	18-64 urte bitarteko emakume ikastarogileak	% 5
	65 urte baino gehiagoko ikastarogileak	% 1
	65 urte baino gehiagoko gizon ikastarogileak	% 0,4
	65 urte baino gehiagoko emakume ikastarogileak	% 1
	Kirol-instalazioetako erabiltzaile federatuak	% 3
	Kirol egokitua egiteko eskaintza 1.000 biztanleko	0,05
	Desgaitasuna duten pertsonentzako jarduerak sustatzen dituzten udalerrriak	% 63
	Instalazioak erabiltzen dituzten klubak, Espainiako klubei dagokienez	% 0,05
	Instalazioak erabiltzen dituzten klubak, EAEko klubei dagokienez	% 1

Kategoria honetan udaleko kirol-zerbitzuetara abonatura dauden erabiltzaileen batezbestekoa biztanleen % 28koa da. Horietatik % 14,5 gizonak dira % 13,5a emakumeak.

Datu horiei adin-tarteen arabera erreparatuta, ondorioztatu dugu abonatuaren % 7 adingabeak direla; % 14, aldiz, 18 eta 64 urte bitartekoak eta % 2, azkenik, 65 urte baino gehiagokoak.

Bestalde, biztanleriaren % 12k egiten ditu kirol-jarduerak ikastaro formatuan. Ikastaro horien % 3 adingabeei daude zuzenduta; % 7, berriz, 18 eta 64 urte bitartekoei eta % 1, bukatzeko, 65 urte baino gehiagokoei.

Solar eta Rojasek (2006) adierazi zuten kirol federatuak bat egiten duela udaleko kirol-zerbitzuekin hainbat puntu, interes eta laguntza-formulatan; izan ere, bi-biek dituzte kirola sustatzean oinarrituta dauden interes sozialak.

Hori klub federatuen udal-instalazioen erabileran ikus daiteke. Klubetan aritzen diren kirolariak biztanleriaren % 3 hartzen dute. Halaber, azpimarratu behar da udalerrri tipo hau Espainiako eta EAEko klubak % 0,05 eta % 1ekin, hurrenez hurren, dabilela lankidetzan. Kirol-klubek udaleko

kirol-instalazioak erabiltzeari dagokionez, 61. taulan daude jasota EAEko udalerrietan klubek zein kirol-modalitate praktikatzen duten udal-instalazioetan.

61. taula. Udalerrri tipoetan egiten diren kirol-modalitateak. Euskadi 2018

**UDALERRI TIPOETAKO KLUBEK KIROL-  
INSTALAZIOETAN EGITEN DITUZTEN  
KIROL-MODALITATEEN RANKINGA.  
EUSKADIKO KIROLAREN BEHATOKIA 2018**

<b>KIROLA</b>	<b>KIROLA</b>
<i>Futbola</i>	<i>Irristaketa artistikoa</i>
<i>Pilota</i>	<i>Abiadurako irristaketa</i>
<i>Areto-futbola</i>	<i>Petanka</i>
<i>Igeriketa</i>	<i>Softbola</i>
<i>Saskibaloia</i>	<i>Izotz-hockeya</i>
<i>Eskubaloia</i>	<i>Curlinga</i>
<i>Gimnastika erritmikoa</i>	<i>Aikidoa</i>
<i>Arraunketa</i>	<i>Taekwondo</i>
<i>Judoa</i>	<i>Boleibola</i>
<i>Atletismoa</i>	<i>Karatea</i>
<i>Arku-tiroa</i>	<i>Mendi-lasterketak</i>
<i>Mendia</i>	<i>Urpekaritza</i>
<i>Belar-hockeya</i>	<i>BTT</i>
<i>Tenisa</i>	<i>Trial sina</i>
<i>Patin-hockeya</i>	<i>Iraupen-eskia</i>
<i>Txirrindularitza</i>	<i>Orientazioa</i>
<i>Padela</i>	<i>Wing-tsuna</i>
<i>Irristaketa artistikoa</i>	<i>Motoziklismoa</i>
<i>Piraguismoa</i>	<i>Kriketa</i>
<i>Ping-ponga</i>	<i>Skatea</i>
<i>Kirol egokitua</i>	<i>Automobilismoa</i>
<i>Linea-irristaketa</i>	<i>Patin-hockeya</i>
<i>Boxeoa</i>	<i>Beisbola</i>
<i>Errugbia</i>	<i>Halterofilia</i>
<i>Triatloia</i>	<i>Gimnastika artistikoa</i>
<i>Xakea</i>	<i>Bela</i>
<i>Arraun-surfa</i>	<i>Surfa</i>
<i>Herri-kirola</i>	<i>Badmintona</i>
<i>Waterpolo</i>	<i>Squasha</i>
<i>Ehiza</i>	<i>Eskrima</i>
<i>Bola-jokoa</i>	<i>Billarra</i>
<i>Frontenisa</i>	<i>Plater-tiroketa</i>

Udal-instalazioetako erabiltzaileen datuak 2013ko behaketako datuekin erkatu dira 62. taulan.

62. taula. Erabiltzaileen konparazioa, 2013 eta 2018ko behaketen artean

**ABONATUEN, IKASTAROGILEEN ETA FEDERATUEN  
KONPARAZIOA 2013 ETA 2018KO BEHAKETEN ARTEAN**

<b>ERABILTZAILE MOTA</b>	<b>2013</b>	<b>2018</b>
<i>Abonatua</i>	% 30	% 28
<i>Ikastarogilea</i>	% 10	% 12
<i>Federatua</i>	% 5	% 3

Desgaitasuna duten pertsonen dagokienez, azpimarratu behar da EAEko udalerrien % 63k dituztela talde horri bereziki zuzendutako jarduerak.

63. taula. Udalerri tipoen 2. aldagai soziala. Euskadi 2018

ALDAGAI SOZIALAREN PROFILA		
UDALERRI TIPOA. EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018		
ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
SOZIALA	Eskainitako kirol-jardueren kopurua	62
	0-17 urte bitartekoei eskainitako kirol-jarduerak	% 30
	18-64 urte bitartekoei eskainitako kirol-jarduerak	% 59
	65 urte baino gehiagokoei eskainitako kirol-jarduerak	% 11
	Beren kirol-jarduerari buruzko azterketak egiten dituzten udalerriak	% 34
	Beste sail batzuekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 78
	Berdintasun Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 91
	Integrazio Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 39
	Gizarte Zerbitzuen Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 76
	Droga-mendekotasun Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 33
	Osasun Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 58
	Hezkuntza Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 68
	Hirigintza Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 61
	Ingurumen Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 41
	Turismo Sailarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 56
	Osakidetzarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 83
	Aldundiarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 77
	Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 52
	Kirol-arloko enpresa pribatuekin harremanetan daudela baieztatzen duten udalerriak	% 28
	Herritarren parte-hartzea partaidetza-kanalen bidez sustatzen duten udalerriak	% 65
	Herritarren udal-zerbitzuekiko gogobetetze-maila neurtzen duten udalerriak	% 70
	Herritarren kirolarekiko gogobetetze-maila neurtzen duten udalerriak	% 22
	Kirol egiten ez dutenek zergatik egiten ez duten neurtzen duten udalerriak	% 13
	Biztanle sedentarioak kirola egitera erakartzeko neurriak garatzen dituzten udalerriak	% 58
	Kirol-arloan familientzako orientazio- eta akonpainamendu-zerbitzua duten udalerriak	% 22
	Beren herritarrei ondoko udalerriko kirol-zerbitzua erabiltzeko aukera ematen dieten udalerriak	% 41
Modu batera edo bestera udalerrien partaidetza duten kirol-ekitaldien batezbestekoa	130	

Euskadiko Udal Kirol Behatokiko 2018ko udalerri tipo honek 62 jarduera eskaintzen dizkie, batez beste, bere herritarrei. Horien % 30, zehazki, 0 eta 17 urte bitartekoei daude zuzenduta; % 59, berriz, 18 eta 64 urte bitartekoei eta gainerakoa, hau da, % 11 65 urte baino gehiagokoei. "Pertsona nagusien" azken datu horri dagokionez, honako hau dio García Leandrez-ek (2006): *udal-kirolaren ikuspegitik, kolektibo hori ezin da inola ere ahaztu kudeaketa-plangintzetan*. Alabaina, ikus daitekeenez, kirol-eskaintzaren ehunekorik txikiena dago haiei zuzenduta EAEko udalerrietan.

Udalerrien % 34k diote aztertu egiten dutela beren udalerrietako kirol-jarduera. Egindako azterketak 64. taulan daude jasota.

64. taula. Udalerriek beren kirol-jarduerari buruz egindako azterketak

***Beren udal-errealitateko kirolari buruz egindako azterketak.***

*Udalak eskaintzen dituen kirol-jardueretako parte-hartzaileen estatistikak egiten dira*

*Gogobetetasun-inkestak*

*Emakumeek eta gizonen udal-kirolean duten egoerari buruzko diagnostikoa*

*Urteko memoria*

*Udalerriko instalazio eta kaleetan egindako kirol-ekitaldiei buruzko hiruhilekoko txostena*

*Kirol-kluben egiturari buruzko txostenak*

*Herritarren kirol-ohiturak eta ohitura osasungarriak - instalazioak eta kirol-jarduerak*

*Erabiltzaileen gogobetetasun-maila*

*Hainbat jardueretako ate irekien egunak*

*Emakumeek eskola-kirolean duten parte-hartzearen analisia*

*Jarduera fisikoa eta kirol-jarduera planifikatzeko azterlana*

*Kirol-plan estrategikoa*


Ausartuko gara esatera udal-kirolaren kudeaketa zeharkakoa dela eta hainbat eragile eta erakunde behar dituela zerbitzu publiko integrala emateko. EBren arabera (2010), ezinbestekoa da kirolean parte hartzen duten sail eta erakundeen arteko lankidetzak, esku-hartze eta lankidetzak publiko-pribaturako estrategiak sortu eta tokiko eragileak gehiago inplikatzeko.

Elkarrekotasun hori ikusteko, erabaki da Kirol Sailak eta gainerako sailek zein harreman duten aztertzea, zehazki, udal-kiroleko balizko parte hartzaileen esku-hartzea analizatze aldera. Edonola ere, ezin da sektore pribatua ahaztu, udalerrietan kirola sustatzeko egituraren baitan beste zutabe bat baita: “eskaintza pribatuak eta publikoak bat egiten dutela dirudi, eta adostasun horrek partekatutako hiru zutabe ditu oinarrian: kirola eta osasuna batera identifikatu behar dituzte euskal herritarrek” Los Arcos (2016).

Hortik ondorioztatzen da kirol-zerbitzuen % 78 harremanetan dagoela udaleko beste sail batzuekin eta/edo beste erakunde batzuekin. Udaleko beste sail batzuekin edo beste erakunde batzuekin harremana duten udalerrien laginak 41. grafikoan adierazitako moduan interakzionatzen du.



### Udalerri tipoetako kirol-zerbitzuen harremanak beste sail edo erakunde batzuekin (% 78). Euskadiko Udal Kirolaren Behatokia 2018



41. grafikoa. Udalerri tipoen erakunde-harremanak. Euskadi 2018.

2018ko udalerri tipoaren lankidetzen deskribapena 65. taulan ikus daiteke.

65. taula. Beste sail batzuekiko edo administrazioko beste organismo batzuekiko lankidetzak

#### **Beste sail batzuekiko edo administrazioko beste organismo batzuekiko lankidetzaren deskribapena**

*Informazioa edo dirulaguntzak eskatzea*

*OSAKIDETZAREKIN: kirol-orientaziorako zerbitzua*

*Aldundiarekin: Hezikiren topaketak, eskola-kirola, kirol jaiak*

*Osasun Sailarekin: parke bio-osasungarria*

*Berdintasun Sailarekin: BERDINTASUN AUTOBUSA (berdintasunaren aldeko autobusa)*

*Hainbat erakunderekin (Osakidetza, ikastetxeak, kultura) Udalerri aktiboa*

*Turismo Sailarekin, BTT MARTXA TURISTIKOA*

*Hirigintza Sailarekin, instalazioen diseinuan*

*Euskara Sailarekin*

Euskadiko tokiko erakundeek % 28k adierazi dute harremanetan daudela kirol-arloko sektore pribatuarekin, kirola modu koordinatuan sustatze aldera. Aintzat hartu behar da, dena den, herritar kopuru txikia duten udalerri askok ez dutela beren udalerrietan kirol-arloko enpresa pribaturik. Lankidetzak horiek 66. taulan daude jasota.

66. taula. Kirol-arloko sektore pribatuarekiko lankidetzak

### ***Kirol-arloko sektore pribatuarekiko lankidetzen deskribapena***

*Merkatarien Elkartearekin kirol egokituari buruzko nazioarteko hitzaldi bat antolatzeko*

*Udalerriko bi gimnasio pribatuekin espazio publikoan antolatzen diren jardueren esparruan*

*Lankidetzeta udalerrian jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko*

*Halaber, garrantzitsua da herritarrek aktiboki parte hartzea; horretarako, beren eskaerak eta iritziak zuzenez jasotzea ahalbidetuko duten espazioak sortu behar dira, hartzen diren erabakiak aurretiaz ezagutzen diren beharrianak betetzera bideratu daitezten. Iturrioz, Miranda eta Valverde (2016). Kasu honetan, arestian aipatutako horretan jarri da arreta; horrela, aztertu egin da nola jarduten duten Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek beren herritarrek duten pertzepzioari dagokionez.*

Ondorioa da, kirol-arloan, EAEko udalerrien % 65ek ematen dutela aukera herritarrek kirol-zerbitzuen bilakaeran parte hartu eta beren iritzia emateko. Halaber, udalerrien % 70ek baloratzen dute herritarrek udal-zerbitzuekiko duten gogobetetze-maila Aldiz, herritarrek beren kirol-jarduerarekiko duten gogobetetze-maila pertsonala baloratzen duten galdetu zitzaizenean, laginekiko udalerrien % 22k bakarrik erantzun zuten baietz.

Euskadiko kirol-zerbitzu batzuek eskaintzen dituzten kirolei buruzko txosten bateratuak egiten dituzte, herritarrei kirolaren kudeaketaren bilakaeraren berri emateko.

Herritarrek jasotzen duten zerbitzuarekiko zein iritzi duten jakiteko, kexa- eta iradokizun-orriak, webguneak, sare soziala, foroak eta erabiltzaileentzako gogobetetasun-inkestak erabiltzen dira. Gainera, topaketa-foroak ere antolatzen dira, besteak beste: Kirol Batzorde Parte-hartzailea, Kirolaren Mahaia, Udaleko Kirol Batzordea, Kirolaren Aholku Kontseilua, Osasunaren Mahaia eta Eskola Kirolaren Mahaia. Bildutako emaitzei jarraikiz, horietan guztietan biltzen dira eskola-, kirol-, gizarte- eta osasun-arloko hainbat erakunde.

Halaber, parte-hartze prozesuak antolatzen dira araudiak eta erregelamenduak prestatzeko, instalazioak diseinatzeko, gobernantza-eredua definitzeko eta aurrekontu parte-hartzaileak egiteko.

Bide horiek guztiek erabilia errazten dute EAEko udalerriek erabiltzaileen eta udalen arteko interakzioa, kirol-zerbitzuari buruz duten iritzia zein den jakite aldera.

2016an, Iturrioz, Miranda eta Valverdek esan zuten Euskadiko udal-erronka nagusienetako bat hau dela: *“udal-egitasmoa berehala zentratu behar da jarduera fisikoa baldintzatzen duten faktoreetan. Zuzenean jardun beharko luke beren bizitzetan jarduera fisikoa txertatzeko jarrera, interes edo asmoa duten arren, borondate hori ekintza bihurtzeko gai ez diren herritar talde handietan eragiten duten faktoreetan.*

Gauzak horrela, ezinbestekoa zen udal-kirolak herritar ez-aktiboekiko nola jarduten duen egiaztatzea. Puntu honetan ondorioztatu da EAEko udalerrien % 13k neurtzen dituztela kirolik egiten ez duten herritarrek kirolik ez egiteko dituzten arrazoiak. Gainera, udalerrien % 58k neurriak ezartzen dituzte herritar sedentarioak kirola egitera erakartzeko, 67. taulan ikus daitekeen bezala.

67. taula. Herritar sedentarioak kirola egitera erakartzeko egiten diren jarduerak

### ***Herritar sedentarioak kirola egitera erakartzeko egiten diren jarduerak***

*Herritar horiei beren-beregi helaraztea eskaintzen diren jardueri eta antolatzen diren ekitaldiei buruzko informazioa, besteak beste  
Emakumeentzako runner-ak*

*Oinez egiteko ibilaldiak hirugarren adinekoentzat*

*Jarduera fisikorako orientazio-zerbitzua OSAKIDETZAREKIN batera*

*Langile kualifikatuek zuzendutako jarduera fisikoak*

*Kirola egitea sustatzen duten egun bereziak: Kirol jaia, mendi-ibilaldiak, BBT*

*Ibilbide osasungarriak*

*Parke bio-osasungarriak*

*Hainbat jardueretako ate irekien egunak*

*Kirol-, nutrizio- emozio-orientazioa eta -aholkularitza emateko udal-zerbitzua*

*Urteko publizitate-kanpainak*

*Tokiko osasun-sarea*

*Belaunaldi arteko proiektua, pertsona nagusiekin*

*Kontzientziazio-kanpainak, hitzaldiak, etab.*


*Mugikortasun-tailerrak*

*Jarduera fisikoa sustatzea Bigarren Hezkuntzako ikasleen artea*

*Jarduera fisikoa "nahieran" eskaintzea ikastetxei, eskolak bukatu ondoren egiteko*


Udalen % 22an du tokia kirolak familientzako orientazio- eta akonpainamendu-zerbitzuan.

#### ERABILTZAILE-PROFILAREN ARABERA TASA EZBERDINA ERABILTZEN DUEN 2018KO EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIKO UDALERRI TIPOAREN EHUNEKOA



42. grafikoa. Udalerri tipoetako erabiltzailearen arabeko tasak. Euskadi 2018

EAEko udalerriek udal-instalazioetarako sarbideari eta beren kirol-eskaintzari (ikus 42. grafikoa) zein tarifa ezartzen dieten aztertzen badugu, ikus daiteke udalerrien % 83k tarifa ezberdinak erabiltzen dituztela erabiltzaileak abonatuak diren ala ez. Halaber, prezioak ezartzerako orduan, udalerrien % 72k aintzat hartzen dute erabiltzaileak udalerrian erroldatuta dauden; % 59k DSBEa jasotzen duten; % 63k erretiratuak edo pentsiodunak diren; % 54k desgaitasuna duten pertsonak diren; % 54k beren kirol-instalazioak erabiltzen dituzten klubetako kirolariak diren eta % 38k eliteko kirolariak diren.



43. grafikoa. Udalerrri tipoetan egiten diren kirol-ekitaldien kudeaketa. Euskadi 2018

Euskadiko kirol-ekitaldiei buruz hitz egiteko, Shone eta Parryk (2001) proposatzen duten ikuspegi zabala hartuko dugu aintzat azterlan honetan, hau da: «ezohiko egoeretan sortzen diren fenomenoak, eguneroko jardueran presente ez dauden helburuak dituztenak: aisialdikoak, kulturalak, pertsonalak edo antolakuntzakoak izan daitezke. Horien guztien azken xedea da pertsona talde bat ilustratzea, ospatzea, entretenitzea edo beren esperientziari erronka jotzea». Beharbada hau gehitu beharko litzateke azken esaldi horretan “eta kirol-jarduera oro har sustatzea edo kirol-modalitate jakin bat bultzatzea”.

Honako hau diote Murua, Vallejo eta Zabalak (2016) kirol-ekitaldiak sustatzeari dagokionez: “euskal erakundeek kirol-jarduerak sustatzeko ematen duten babes ekonomikoa izan ohi da funtsean, beste baliabideak ere ematen dituzte. Edonola ere, izan giza baliabideak edo baliabide materialak, gastu bat eragiten diote erakundeari berari”. Behatokiak ondorioztatu du kirol-ekitaldietara bideratzen den laguntza ekonomikoa udalerrri tipoaren aurrekontu orokorreko % 0,13 dela.

Euskadiko Udal Kirolaren Behatokiko 2018ko udalerrri tipoan, 130 kirol-ekitaldi antolatzen dira Batez beste. Aldiz, kirol-ekitaldietan duen parte-hartzea aztertzeke adierazleen batezbestekoak aditzera eman du urtean 6 ekitaldi antolatzen dituela, 111 ekitaldi babesten dituela eta 5 ekitaldi antolatzen dituela desgaitasuna duten pertsonentzat (ikus 43. grafikoa).

Honako hau da Euskadiko Udal Kirolaren Behatokiko 2018ko Udalerri tipo honetan, modu batera edo bestera udaleko kirol-zerbitzuaren parte-hartzea duten ekitaldiak antolatzen dituzten kirolen rankinga. (ikus 68. taula).

68. taula. Udalerri tipoetan antolatzen diren ekitaldietako kirol-modalitateak. Euskadi 2018

**UDALERRI TIPOAN ANTOLATZEN DIREN  
EKITALDIETAKO KIROLLEN RANKINGA.  
EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018**


<b>KIROLA</b>	<b>KIROLA</b>
<i>Futbola</i>	<i>Tenisa</i>
<i>Saskibaloia</i>	<i>Dardoak</i>
<i>Eskubaloia</i>	<i>Kalistenia</i>
<i>Pilota</i>	<i>Defentsa pertsonala</i>
<i>Running-a</i>	<i>Izotz-irristaketa</i>
<i>Txirrindularitza</i>	<i>Arraunketa</i>
<i>Areto-futbola</i>	<i>Mendia</i>
<i>Karatea</i>	<i>Eskrima</i>
<i>Tenisa</i>	<i>Piraguismoa</i>
<i>Gimnastika erritmikoa</i>	<i>Triatloia</i>
<i>Errugbia</i>	<i>Boleibola</i>
<i>Atletismoa</i>	<i>Xakea</i>
<i>Igeriketa</i>	<i>Arraun-surfa</i>
<i>Ping-ponga</i>	<i>Irristaketa</i>
<i>Herri-kirola</i>	<i>Patin-hockeya</i>
<i>Irristaketa artistikoa</i>	<i>Skatea</i>
<i>Arku-tiroa</i>	<i>Boxeoa</i>
<i>Orientazioa</i>	<i>Desgaitasuna duten pertsonentzako kirola</i>
<i>Automobilismoa</i>	<i>Badmintona</i>
<i>Txirrindularitza</i>	<i>Herri-kirola</i>
<i>Linea-irristaketa</i>	<i>Ultimate</i>
<i>Taekwondo</i>	<i>Bela</i>
<i>Dantza</i>	<i>Urpeko kirolak</i>
<i>Eskalada</i>	<i>Halterofilia</i>
<i>Menditraila</i>	<i>Squasha</i>
<i>Boxeoa</i>	<i>Waterpolo</i>
<i>Linea-hockeya</i>	<i>Plater-tiroketa</i>
<i>Eskrima</i>	<i>Billarra</i>
<i>Tiroketa olinpikoa</i>	<i>Judoa</i>
<i>Bela</i>	<i>Kayaka</i>
<i>Errugbia</i>	<i>Karatea</i>
<i>Heziki</i>	<i>River-line-a</i>

<i>Padela</i>	<i>Trial sina</i>
<i>Arku-tiroa</i>	<i>Boulderra</i>
<i>BTT</i>	<i>Indoor irristaketa</i>
<i>Kick Boxing-a</i>	<i>Roller-eskia</i>
<i>Dantza modernoa</i>	<i>Nordic Walking-a</i>
	<i>Bola-jokoa</i>

### 2.4.11.3. Udalerri tipoaren langileen aldagaia. Euskadiko Udal Kirolaren Behatokia 2018

Udalerri talde honek 2 langile behar ditu mila biztanleko, eta profil honetako udalerrietan, batez beste, 75 langile behar dira kirol-zerbitzua emateko. Azterlan honetako emaitzak eta Adimen Investigación-ek (2016) egindako lanekoak oso ezberdinak dira. Behatoki honetan, sexuaren arabera aldeak aztertu eta ondorioztatu da udalerrietako kirol-arloko langileen % 55 gizonak direla eta % 45a emakumeak. Aldiz, beste lan horretatik ateratako datuari erreparatuta, Euskadin kirol-arloan lan egiten duten 19.703 langileetatik % 26,9 bakarrik dira emakumeak, eta % 73,1a, aldiz, gizonak.

#### UDALERRI TIPOETAKO LANGILEEN ehunekoa, SEXUAREN ARABERA. EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018



44. grafikoa. Udalerri tipoetako langileen banaketa, sexuaren arabera. Euskadi 2018

Kirol-kudeaketako adituaren rola funtsezkoa izango da egungo eta etorkizuneko biztanleriaren kudeaketan (López eta Luna-Arocas, 2000). Erabat ados gaude horrekin, eta, hain zuzen, hortik dator EAEko udalerrietan kirol-arloko arduradun teknikoaren figura doitzeko beharra.

Euskal Autonomia Erkidegoan 1.723 pertsona daude kirol-zuzendari karguan (Adimen Investigación, 2016).

Euskadiko Udal Kirolaren Behatokiaren 2018ko udalerrri tipoari erreparatuta, arduradun teknikoa 48 urteko gizona da udalerrrien % 77an. Erkidego osoari erreparatuta, ostera, kirol-zuzendarien % 81,8 dira gizonak (Adimen Investigación, 2016), eta 43 urte dauzkate batez beste.

Horrez gain, Behatokia ohartu da arduradun teknikoen % 86 Jarduera Fisikoaren eta Kirolen Zientzietako lizentziaduna edo graduaduna dela, eta % 75ek kirol-arloko masterren bat ere badutela. Erkidegoa osoan, aldiz, kirol-arloko zuzendarien % 50,1 baino ez dira graduadunak edo lizentziadunak, eta horietatik % 12,1ek dute graduondoko prestakuntza, Adimen Investigación erakundeari jarraikiz (2016).

Halaber, teknikari horrek 14 urte eta erdi daramatza kirol-arloko arduradun tekniko karguan, eta 16 urte udalerrian lanean. (ikus 69. taula).

69. taula. Udalerrri tipoetako arduradun teknikoaren profila. Euskadi 2018

**UDALERRI TIPOETAKO KIROL-ARLOKO ARDURADUN TEKNIKOAREN PROFILA.  
EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIA 2018**

ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
KIROL-ARLOKO	LZn sartuta dago	% 78
	Kirol-arloko arduradun tekniko nagusiaren batezbesteko adina	48 urte
ARDURADUN TEKNIKO NAGUSIA	Sexua: gizona	% 77
	Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziaduna	% 86
	Masterren bat egin du	% 75
	Kirol-arloko arduradun lanpostuan egondako batez besteko denbora	14 urte
	Udalerrian lan egindako batez besteko denbora	16 urte

Udalerrri tipo honetako kirol-arloko arduradun politikoaren profilari erreparatuta, udalerrrien % 72an gizona da, 45 urtekoa, eta batez beste 4 urte darama karguan. Arduradun politikoaren % 45ek kirol-arloko titulazio akademikoak dauzkate, % 78k kirola egiten dute eta % 68 ordezkatzan duen udalerriko kirol-kluben bati lotuta dago edo egon da. (ikus 70. taula).

70. taula. Udalerrri tipoetako arduradun politikoaren profila. Euskadi 2018

**UDALERRI TIPOETAKO KIROL-ARLOKO ARDURADUN POLITIKOAREN PROFILA.  
EUSKADIKO UDAL KIROLAREN BEHATOKIKO 2018**

ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
KIROL-ARLOKO ARDURADUN POLITIKOA	Kirol-arloko arduradun politikoaren batezbesteko adina	45 urte
	Sexua: gizona	% 72
	Kirol-arloko titulazio akademikoak	% 45
	Kirol-arloko zinegotzi lanpostuan egondako batez besteko denbora	4 urte
	Kirol-arloko zinegotzia kirolaria da	% 78
	Kirol-arloko zinegotzia klubei lotuta dago edo egon da	% 68

EAEko udalerrien % 36k adierazi dute kirol-arloko aholku-organoak dituztela. Zehazki, hauek: Kirolaren Mahaia, Kirolaren Aholku Kontseilua, Kirolaren Batzorde Parte-hartzailea, Udaleko Kirol Batzordea, Osasunaren Mahaia eta Eskola Kirolaren Mahaia. Ikus 71. taula.

71. taula. Udalerri tipoetako aholku-organoak. Euskadi 2018

UDALERRI TIPOETAKO KIROL-ARLOKO AHOLKU-ORGANOEN PROFILA. EUSKADIKO UDAL  
KIROLAREN BEHATOKIKO 2018

ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
KIROL-ARLOKO AHOLKU- ORGANOAK	Kirol-arloko aholku-organoak dauzkaten udalerrien ehunekoa	% 36
	Aholku-organoaren izena: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirolaren Mahaia</li> <li>• Kirolaren Aholku Kontseilua</li> <li>• Kirol Batzorde Parte-hartzailea</li> <li>• Udaleko Kirol Batzordea</li> <li>• Kirolaren Aholku Kontseilua</li> <li>• Osasunaren Mahaia</li> <li>• Eskola Kirolaren Mahaia.</li> </ul>	

#### 2.4.11.4. Udalerri tipoen aldagai teknikoa. Euskadiko Udal Kirolaren Behatokia 2018

Iturrioz, Miranda eta Valverde (2016) azpimarratu zuten oso garrantzitsuak direla sektore publikoa eta tokiko administrazioa Euskadiko kirolean. Euskadiko Kirol Instalazioen Erroldari (2020) jarraikiz, Euskadin 4.617 kirol-instalazio dago. Iturrioz, Miranda eta Valverderen (2016) arabera, Euskadiko instalazioen % 78 titulartasun publikokoak dira, eta horietatik % 92 tokiko administrazioari dagozkio. Hortaz, agerikoa da Behatoki honetan egokia zela herritarrek kirol-instalazio horien zein ehuneko duten eskuragarri egiaztatzea.

72. taula. Udalerri tipoetako aldagai teknikoa. Euskadi 2018

UDALERRI TIPOETAKO ALDAGAI TEKNIKOAREN PROFILA. EUSKADIKO KIROLAREN UDAL BEHATOKIA 2018		
ALDAGAIA	ADIERAZLEA	Batezbestekoa
TEKNIKA	Atletismo-pistak mila biztanleko	0,1
	Pabiloi estaliak mila biztanleko	0,4
	Tenis-pistak mila biztanleko	0,4
	Padel-pistak mila biztanleko	1
	Fitness-aretoen m <sup>2</sup> -ak mila biztanleko	84
	Gimnasia-aretoen m <sup>2</sup> -ak mila biztanleko	105
	Areto bakoitzeko spinning-bizikleta kopurua 1.000 biztanleko	6
	Ur berodun igerilekuen m <sup>2</sup> -ak mila biztanleko	118
	11ko futbol-zelaiak mila biztanleko	0,1
	Belar naturaleko 11ko futbol-zelaiak	% 21
	Belar artifizialeko 11ko futbol-zelaiak	% 70
	Argia duten 11ko futbol-zelaiak	% 83
	5-7ko futbol-zelaiak mila biztanleko	0,2
	Belar naturaleko 5-7ko futbol-zelaiak	% 19
	Belar artifizialeko 5-7ko futbol-zelaiak	% 79



Argia duten 5-7ko futbol-zelaiak	% 83
Pilotalekuak mila biztanleko	0,3
Estalitako pilotalekuak	% 64
Estali gabeko pilotalekuak	% 36
Aldagelak mila biztanleko	1
Bizikleta-bidea edo bidegorria dutela adierazten duten udalerriak	% 73
Kaleko gimnasioak edo gimnasio bio-osasungarriak dituztela adierazten duten udalerriak	% 82
Erabilera libreko kirol-instalazio irekiak dituzten udalerriak	% 69
Kaleetan edo parkeetan jarduera fisikoa egiteko jolasak dituzten udalerriak	% 10

Euskadiko Udal Kirolaren Behatokiko 2018ko udalerrri tipo honek honako hauek eskaintzen dizkio bere herritarrei, kalkuluak 1.000 biztanleko eginda: 0,1 atletismo-pista, 0,4 kirol-pabiloi estali, 0,4 tenis-pista eta 1 padel-pista. 84 m<sup>2</sup> fitness-areto eta 105 m<sup>2</sup> gimnastika-areto dauzkate 1.000 biztanleko.

Areto bakoitzean, 6 spinning-bizikleta eskuratu daitezke 1.000 biztanleko. Igerilekuei dagokienez, 118 m<sup>2</sup> ur berodun xafla dago 1.000 biztanleko. Futbol-zelaiei erreparatuta, 11ko 0,1 futbol-zelai eta 5-7ko 0,2 futbol-zelai daude eskuragarri. Horietatik % 21 dira belar naturalekoak 11ko futbol-zelaietan eta % 19 5-7ko futbol-zelaietan. Aldiz, belar artifizialekoak dira 11ko futbol-zelaietan % 70 eta 5-7ko futbol-zelaietan % 79. Argi artifiziala dago 11ko futbol-zelaietan % 83an eta 5-7ko futbol-zelaietan % 83an.

1.000 pertsonako, 0,3 pilotaleku dago, eta horietatik % 64 estaliak eta % 36 estali gabekoak dira. Halaber, aldagela bat dute 1.000 biztanleko.

Muruari (2014) jarraikiz, ezinbesteko da hirigintza-arloan jarduera fisikoa aintzat hartzea, besteak beste hiri-plangintzan, hiri-espazioak dinamizatzeko programetan, mugikortasunaren dinamizazioan eta jarduera fisikoa sustatzeko hiri-espazioen diseinuan, eta arreta berezia eman behar zaie udal-kirolaren agendei.

Euskadiko herritarren kirol-jarduerari buruzko 2006ko datuei jarraikiz, orduan herritarren % 75ek egiten zuten kirola kalean, eta horren harira, De Mariak (2006) honako hau adierazi zuen: *“jendea kalera ateratzen da eta erori egiten dira kiroldegiko hormak”*. Horregatik, azterlan honetan saiakera bat egin da aztertzeko udalek nola erabiltzen duten hirigintza kirola sustatzeko, kirol-instalazioen diseinutik eta funtzionaltasunetik, eta jarduera fisikoa eta kirola egiteko baliabide eta azpiegituren erroldetatik haratago.

Euskadiko Kirol Instalazioen Erroldari jarraikiz (2020), erkidegoan kirola egiteko 10.616 gune eta kirola egiteko 10.781 gune osagarri daude. Behatoki honetan, ikusi dugu kalean edo erabilera libreko instalazio irekietan kirola egiteari dagokionez, udalerrien % 13k dituztela bidegorriak edo bizikleta-bideak eta oinezkoentzako bideak. Gimnasio bio-osasungarriei eta kaleko gimnasioei


dagokienez, udalerrien % 82k dauzkate mota horretako instalazioak. Jarduera fisikoa eta kirola sustatzen duten jolasei dagokienez, % 10ean daude. Halaber, udalerrien % 69k dauzkate erabilera libreko instalazioak hainbat kirol egiteko. Erabilera libreko instalazioen rankinga ageri da 73. taulan.

73. taula. Udalerri tipoetan dauden erabilera libreko instalazioak. Euskadi 2018

***Udalerriek kirola sustatzeko lagatzen dituzten erabilera libreko instalazioak***

<i>Futbol-areto pista</i>
<i>Eskubaloi-pista</i>
<i>Saskibaloi-pista</i>
<i>Tenis-pista</i>
<i>Ezkerparetako pilotalekua</i>
<i>Eskuin-paretako pilotalekua</i>
<i>Bolatokia</i>
<i>Tenis-pista</i>
<i>Rokodromoa</i>
<i>Skate park-a</i>
<i>Ping-ponga</i>
<i>Piraguan ibiltzeko eremua</i>
<i>Futbol-zelaia</i>
<i>Atletismo-pista</i>
<i>Tuta</i>
<i>Petanka</i>
<i>Kalba</i>
<i>5-7ko futbol-kantxa</i>
<i>Ping-pong pista</i>
<i>Bola-jokorako pista</i>
<i>Erabilera anitzeko pistak</i>
<i>Tenis-pistak</i>
<i>Atletismo-pista</i>

#### 2.4.11.5. Udalerrri tipoetako kirol-arloko teknikari arduradunen iritziaren aldagaia. Euskadiko Udal Kirolaren Behatokia 2018



45. grafikoa. Udalerrri tipoetako teknikarien iritzia. Euskadi 2018

Udalerrri tipo honetako arduradun teknikoek iritziak, honako hauek dira ahuleziak: % 54ren ustez, instalazioak; % 58ren ustez, baliabide ekonomikoak eta % 55en ustez, langileak. Bestalde, eredu zaharkitzea, lehia pribatua eta irizpide politiko eza dira mehatxu nagusiak, teknikarien % 34, % 7 eta % 18ren iritziak, hurrenez hurren.

Gainera, aditzera eman dute ereduaren zaharkitzeari zabalkuntza faltaren eta herritarren ulermen ezaren ikuspegitik heldu behar zaiola; izan ere, administrazio-emakidak egin izan dira zerbitzuetan, eta, ondorioz, herritarrek uste dute organo pribatua dela.

Ildo beretik, adierazi dute ondo definitu eta koordinatutako jarraibideak, irizpideak eta norabide politikoa behar direla.

Horrez gain, iruditzen zaie kirol-arloko aholkularitza-batzorde edo aholku-organoren batekin lan egin beharko litzatekeela. Hori gutxi balitz bezala, aldarrikatu dute ereduak aintzat hartu behar dituela herritarren kolektibo ezberdinak, ikastetxeak, klubak eta beren interesak, eta horiek

guztiak kontuan hartuta zehaztu behar dela udalerrriak kirolaren eta jarduera fisikoaren esparruan izango duen ikuspegia.

Teknikarien aburuz, gainera, kirol-arloan gabezia handiena duen alderdia herritar sedentarioak aktiboago bihurtzeko saiakera da. Izan ere, ez da herritarrengana iristen, eta, ondorioz, herritarrak ez dira jarduera fisikoa egitera motibatzen. Bestalde, teknikarien aburuz badago zer hobetu premia bereziak dituzten pertsonen inklusioan, orain arte egindako lana ez baita bikaina.

Egia da desgaitasuna duten pertsonentzako jarduerak daudela, baina horrek ez du inklusioa sustatzen.

Gainera, uste dute administrazio-emakidak instalazioen erabilera pribatiboa egiteko erabili direla.

Zer iritzi duzu zure udalerriko kirol-arloko zuzendaritza politikoari buruz? galderaren erantzunak 74. taulan jaso genituen.

74. taula. Teknikarien iritzia. Euskadiko Udal Kirolaren Behatokia 2018

***Udal-kiroleko arduradun teknikoek beren udalerrietako zuzendaritza politikoari dagokionez***

*Ona*

*Egokia*

*Egokia da eta errespetatu egiten du arloko langile zuzenen iritzia*

*Kudeaketa ona egiten du baliabide ekonomikoak eskuratzeko*

*Irizpide tekniko eta politikoek talka egiten dute*

*Politikaren menpe dago, eta, beraz, ezin da erabakirik hartu*

*Kirol-arloko politikan helburuak definitzea falta da, baita kirolaren eta jarduera fisikoaren arloan norabide orokor bat ezartzea ere*

*Uste dut lan-ildoak bikaina dela; izan ere, aintzat hartzen ditu kirol-munduko eragile guztiak*

*Oro har, ona da, baina desiragarria litzateke irizpide teknikoak gehiago hartzea aintzat*

*Ez dago epe luzerako irizpiderik definituta*

*Uste dut norabide zuzenean goazela, nahiz eta oraindik asko dagoen egiteke*

*Zuzendaritza teknikoarekin dabil lankidetzan une oro*

*Asko hobetu daiteke*

*Ona Kirol-munduaren gaineko ezagutzak eta erabakitzeko gaitasuna ditu*

### 3. ONDORIOAK

Azterlan honen ondorioetan KAITek ikuspegiak berrikustearen eta hobetzearen alde egiten duen apustua azalduko da; horretarako, lan sistematiko eta egituratu bat egitea proposatzen du, gako-erakundeen datuak eta teknikarien eta erakundeen interesak eta iritziak bilduko dituen.

Gauzak horrela, datuak ikusaraziko dituen argazki bat erakustea da asmoa, aukera emango duena udal-kirolaren kalitatearen kudeaketa zein egoeratan dagoen aztertzeke. Kudeaketari dagokionez, honela definitzen du EUSKALITek (2004) kalitate osoa eta bikaintasuna: *“talde interesdun guztien beharrian eta espektatibak modu orekatuan asetzen dituen antolakuntzara bideratutako kudeaketa-estrategia”*.

Aurrekoaren harira, egiaztatu dugu udaletako kirol-instalazioak kudeatzea ez dela udal-kirola kudeatzearen sinonimo; lehena bigarrenaren barruan sartzen da, baina ez da bakarra. Zentzu horretan, bat gatoz De Santiago eta Iturrioz (2006) autoreekin: eskaintzaren kudeaketan eta udaleko kirol-instalazioetan zentratutako udal-zerbitzuak atzean utzi eta herritar aktiboagoak lortzera bideratutako zerbitzu bat izatera pasatzea izan behar da joera. Horrenbestez, baieztatu dezakegu EUSKALITen definizioa inoiz baino beharrezkoagoa dela azterlan honetako emaitzei begira.

Are gehiago, García Lópezek (2006) esan zuen modura, badirudi beharrezkoa dela bikaintasun-kultura bat sortzea, oinarrian diseinua izango duena eta erakundearen zeregina, ikuspegia eta balioak zabalduko dituen. Halaber, proiektuan parte hartzen duten eragile edo talde interesdun guztiekiko harremanetan ezarri beharreko gida ideologiko ere izan behar du.

Kalitate hori lortzeko, ezinbestekoa da, nola ez, erabiltzailea gogobeteta sentitzea kirol-arloan. Hori ez da horrenbeste zentratzen jasotzen duen zerbitzuarekiko pertzepzioan (ikusitako dugu neurketa hori erkidegoko udalerritik askotan egiten dela, udalerririk txikienetan berrikusi egin beharko litzatekeen arren), baizik herritarrak kirol egitean sentitzen duen gogobetetasun pertsonalaren pertzepzioan. Hori lagineko udalerrien % 22k baino ez dute neurtzen. Alabaina, ikuspegi horretatik abiatuta, arreta pertsonalizatu egin daiteke.

Horregatik, ez da txorakeria arreta kirola barne hartzen duen familientzako orientazio- eta akonpainamendu-zerbitzuan jartzea. Euskadin kirol-zerbitzuen % 22k bakarrik ematen dute horretarako aukera.

Arreta pertsonengan jartzea, hori da gakoa. Udaletako kirol-zerbitzuak herritar guztiengan zentratu behar dira. Dena den, kudeatzen diren izapide motak aztertuta, ondorioztatzen dugu ez dela ahalegin bera egiten adin-tarte guztietan. 65 urte baino gehiagoko pertsonen kolektiboaren

harira, García Leandrezek (2006) dio pertsona nagusiak kirol-kudeaketaren helburu bihurtu direla herritarren zahartzeagatik, osasun-arloko faktoreengatik eta erretiro aurreratuengatik, gizarte- eta lan-arloko arrazoiengatik. Hala eta guztiz ere, pertsona talde horri bideratutako jarduerak Euskadiko udalek antolatutako kirol-jarduera guztien % 11 baino ez dira. Gainera, pertsona nagusien % 2 baino ez dira ikastarogileak eta abonatuak.

Desgaitasuna duten pertsonen udal-kirolean duten inklusio-maila ere berrikusi egin behar da. Pertsona horiei zuzendutako 5 ekitaldi antolatzen dira, desgaitasunik ez dutenentzat, aldiz, 130. Gainera, udalerrien % 63k astero antolatzen dituzte pertsona horientzako jarduerak. Alabaina, 1 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrietatik % 38k soilik antolatzen dituzte mota horretako jarduerak, eta, beraz, horrek esan nahi du, oro har, udalerrien lehen hiru kategorietan dauden 245 udalerrietatik, 93tan bakarrik dagoela eskaintza hori. Hortik ondorioztatzen da, halaber, EAEko udalerrien % 54k bakarrik hartzen dutela desgaitasuna aldagaitzat, kirol-zerbitzuen prezioak ezartzeko garaian.

Espainiako Gobernuako Kultura eta Kirol Ministerioko Idazkaritza Tekniko Nagusiko Estatistika eta Azterketa Atalak 2019an egin zuen urteko kirol-estatistiken urtekariari jarraikiz, Euskadin herritarren % 46,9k diote astero egiten dutela kirola. Datu horrek jarduteko oso marjina handia uzten du, herritarrek kirola egitera erakartzeko. Udaleko kirol-zerbitzua denez herritarrengandik hurbilen dagoen zerbitzua, bere estrategia aipatutako helburu horretara bideratu beharko litzateke; hau da, herritarrek kirola aktiboki praktikatzera animatzea. Alabaina, eta udalerrien % 58k herritar sedentarioek kirola egiteko neurriak ezartzen dituzten arren, Euskadiko udalen % 13k bakarrik neurtzen dute zergatik ez duten kirolik egiten kirolik egiten ez duten herritarrek. Hortaz, zentzuzkoa dirudi herritarrei galdetzea zergatik ez duten kirolik egiten, gero printzipioz eraginkorrak izan daitezkeen neurriak ezartzeko.

Hortik ondorioztatu daiteke egungo ereduak pertsona askori aktiboagoak izaten lagundu dien arren, jarduteko modu horrek gabeziak dituela aktiboak ez diren herritarren beharrezan erantzuteko garaian. Horregatik, Iturriozek (2009) esan bezala, eredu horrek funtzio erraztailea hartu behar du, eta udalerrri bakoitzean jarduera fisikoa egiteko dauden baliabide eta aukerak mobilizatu.

Jarduera fisikoa sustatzeko zeregin horretan aurre egiteko, beste sektore batzuetako eragileak ere mobilizatu behar dira, besteak beste, hirigintzakoak, osasunekoak, gizarte zerbitzuetakoak, mugikortasunekoak, hezkuntzakoak eta gazteriakoak, «jarduera fisikoa politika guztietan» lelopean (Iturrioz, Miranda eta Villaverde, 2016). Zentzu horretan, badirudi hori lortzeko bidean gaudela, azterlan honetatik ateratako datuen arabera; izan ere, EAEko udalerrien % 78k adierazi du harremanetan dagoela udaleko beste sail batzuekin edo udaletik kanpoko erakundeekin. Dena den, komenigarria litzateke udalek aldundiekin duten harremana berrikustea, 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrien % 20 baino ez dagoelako dagokion aldundiarekin harremanetan.

Bestalde, emaitzek erakusten dute udalei interesatu egiten zaiela kirola bultzatzeko kirol-ekitaldiak sustatzea, denek antolatzen edo babesten baitituzte, modu batera edo bestera, ekarpen ekonomiko edo materialak eginez. Murua, Vilarejo eta Zabalak (2016) adierazi bezala, badirudi ikuspegi ekonomikotik, laguntza horiek kanpo-efektu positiboak sortzen direlako justifikatzen direla. Besteak beste, honako hauek aipa daitezke: gizarte-efektu positiboak sortzea, antolatzen diren lurraldearen irudia hobetzea eta erakundearekin zerikusirik ez duten jardueretan diru-sarrerak sortzen dituen turismoa erakartzea, adibidez, ostalaritzan, merkataritzan eta

zerbitzuetan. Erakundeek ulertzen dute itzulera sozioekonomiko horrek balioa duela eta ekitaldiaren antolakuntza babestea onuragarria izan daitekeela udalerrirako.

Kalea kirol-eremu gisa erabiltzearen alderdiak ere berrikuspena behar du: kalea horretarako erabiltzeak kirol-esperientzia ugaritarako aukera eman dezake. Alabaina, udalerrien % 10ek bakarrik adierazi dute jarduera fisikorako jolasak dituztela kale edo parketan. Hori sailen arteko harremanaren esparruan jorratu beharreko kontu bat da; zehazki, Hirigintza Sailarekiko harremanen esparruan. Bada, sail horrekin harremanetan daude Euskadiko kirol-zerbitzuen % 61.

